

Euskeraren Erri Akademia / Academia Popular de la Lengua Vasca
L´Academie Populaire de la Langue Basque

# Euskerazaintza

LXXIX Zenbakia • 2017. urtea-1

# Euskalerriaren edestia VII

Euskerazaintza

**Gure irakurleari:**

Azken zenbakian gure aldizkari au artzen dutenentzat eta adizkideentzat jarritako oar bat agertu zan, arpidendunai diru-laguntza eskatuz.

Batzuk arpidetza zenbat dan jakin nai dute eta gure erantzuna au da: "Len", oraingoz ez degu arpide-saria zeaztuteko asmorik, al degun artean naiago dogu irakurleen gogo ona kontuan artu eta emaitza ematen digutenak "laguntzaille" taldera sartuko ditugula esaten da gendun.

**Gaur, diru kontuetan estutasunean sartuta gagoz, eta al dauanak gura geunke "urtero" 30 euro ordaintzea, bealdean aipatzen dogun gure kontuen zenbakietan.**

**Gure kontuen zenbakiak onek dira:**

**BBVA: ES41-0182-1296-00-0201538669**

**KUTXA: ES80-2101-0200-46-0006681589**

EUSKERAZAINTZA
Euskeraren Erri-Akademia
Colón de Larreategi 14, 2ª eskuma
48001 - BILBAO
e-mail: *aeuskerazaintza@gmail.com*
*www.euskerazaintza.org*

Z. N. A. / C. I. F. G 20/127. 759
Eusko Jaurlaritzaren Elkarte Erroldan, 1136 zenbakia.
Erri Zuduzkotasunaren Aldarrikapena
(BOE 45/1981 eta EE. AA. 96/1984)

I.S.B.N. : 1132– 1318
Legerako Gordetza: BI-1928-87

Diseinua eta inprimaketa: IBEGRAFIK
www.ibegrafik.com

Laguntzaille
Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

# aurkibidea

*Atarikoa* .......... 7

## Euskalerriaren Edestia

*1. ZATIA* .......... 9

*1.3. Euskalerriaren edesti onetan, VIIn ataleko aurkezpena.* .......... 9

*1.4. Sarrera.* .......... 11

*1. 5. Euskalerriaren edestiari ostera ebatuta* .......... 11

*1. 6. Frantziko XIIIn eta Nafarroako IIn Luis, Ritxelieu kardinalagaz garaipendun, Rotxelleri egindako erasoan.* .......... 14

*1. 7. Txanpaineko Pilippek esaten ebana XIIIn Luiseri buruz* .......... 16

*1. 8. XIIIn Luisen Nortasuna.* .......... 17

*1. 9. XIIIn Luis eta bere emazte Austriako Anak euki ebazan alaba semeak.* .......... 17

*1. 10.  XlIIn Luisen eriotza* .......... 18

*1. 11. Gaztelako IIn Karlos "Lilluratua"* .......... 18

*Oar txiki bat emen* .......... 19

*1. 12. 1.665-1.675eko urte bitartean IIn Karlos, bere ama Austriako Marianaren errege ordegotzan* .......... 19

*1. 13. Nitard Eberardo kardinalaren baliatze edo erabilketa* .......... 20

*1. 14. Nitard kardinalaren eztabaidak Austriako Juan Joserekin, eta Nitard kanporatzea bere jaurkintzazko lekuetatik* .......... 21

*1.15. Gaztelako IIn Karlosen erregetza.* .......... 22

*1. 16. IIn Karlosen aolkulariak, diruaren arloak goraldu edo obetu.* .......... 23

*1. 17.  IIn Karlosek euki ebazan ondorengotasunezko arazoak.* .......... 25

*1. 18. Espainiako IIn Karlosen eriotza.* .......... 25

*1. 19. 31n Jauna, Bizkaiko Jauntzan* .......... 26

*1. 20. Frantziko XIVn Luis erregea, eta IIIna Nafarroako erregetzan* .......... 26

*1. 21. XIVn Luisek, euki ebazan izen buruak.* .......... 28

*1. 22. XIVn Luisen aurtsaroa, eta koroatzea.* .......... 28

*1. 23. Espainolakin guda amaitzea, eta XIVn Luisen jaurpidetza.* .......... 30

*1. 24. 1.680ko amarkadan Europan, Frantziaren nagusitasuna.* .......... 32

*1. 25. Frantziko Lurraldearen batzangotasuna, eta galikanismoa.* .......... 33

*1. 26. Nanteseko legearen ezereztatzea, eta erlijioaren bateratzea* .......... 34

*1. 27. Aujsburgotarren Biltzar edo Alkartasuna. Aujsburgoko elkartasuna* .......... 36

*1. 28. Espainitar artean, erregetzaren ondoretasunagaitik sortu zan guda.* .......... 38

*1. 29. XIVn Luisek, zazpi amarkadaren erregetza amaituz, beren eriotzea* .......... 41

*XIVn Luisen eriotzea.* .......... 41

*1. 30. XIVn Luisek euki ebazan alaba semeak Balliereko Luisagaz. ....41*

*Athenais de Rotxetxouart ta Mortemarfeko Frakoise, Montespaneko Madamegaz.... 42*

*Bin des Eillets´eko Klaudiagaz. .... 42*

*Skorailleseko María Anjelikagaz.... 42*

*1.31. XIVn Luis erregearen ondorioa.... 42*

*1. 32. Borboritar Vn Felipe, espainitarrentzat aukeratuko erregea.... 44*

*1. 33. Vn Feliperen jaio ta eriotzea.... 45*

*1. 34. Vn Felipek Espainako erregetzara igotea, eta Madrillera eltzea. .... 45*

*1.35. Vn Feliperen erregetza.... 45*

*1.36. 1.701-1.714ko urte bitartean, Espaitar Ondorengo Guda..... 47*

*1.37. Vn Felipek, espainitarrentzat eroan eban jaurri bidea..... 47*

*1. 38. Vn Felipek egin ebazan aldaketak politikan eta banakuntzazho arloetan. ....51*

*1. 39. Oar txiki bat emen. .... 51*

*Vn Felipeen edesti au berrezkuratuta. .... 52*

*1. 40. Vn Felipek, diru arloetan egin ebazan aldaketak..... 52*

*1. 41. Vn Felipek, ikaskintza arloetan egin ebazan aldakuntzak. .... 52*

*1. 42. 1.715-1.724ko urte bitartean Vn Felipek, atzerrirako ibili ebazan politikak. ....53*

*1. 43. 1.724ko urtean Vn Felipek, bere erregetzazko utziera, bere leen seme I Luisen arduratan, eta Vn Felipek ostera, erregetzaren berrezkuratzea....53*

*1. 44. 1.725-1.746ko urte bitartean, Vn Felipek eroan eban atzerritarrezko politika.....55*

*1. 45. Vn Felipeen leen ezkontza, eta euki zituzen alaba semeak.... 56*

*1. 46. Vn Felipeen bigarren ezkontza bidetik, euki zituzen alaba semeak....57*

*1. 47. Vn Felipeen eriotzea.... 57*

*1. 48. Bere nortasuna adierazteko, esan onegaz argituko dogu.... 58*

*1. 49. 32n Jauna Bizkaiko Jauntzan.... 58*

*1. 50. 33n Jauna Bizkaiko Jauntzan.... 60*

*1. 51. Frantziko eta Nafarroako erregetzan, XVn Luis erregea..... 60*

*1.52. Orleanseko dukearen erregeen ordegotza..... 62*

*1. 53. André Erkule Fleury kardinala.... 63*

*1. 54. María Leszkzynska, Polaka erregiña.... 64*

*1. 55. Madame Ponpadour markesa ta duke andrea. .... 65*

*1.56. XVn Luisek euki ebazan alaba semeak..... 66*

*1. 57. VIn Fernando Espainiako erregetzan. .... 67*

*1.58. VIn Fernando Asturiaseko printzea.... 68*

*1. 59. VIn Fernandoren erregetza.... 69*

*1. 60. Ensenadako Markesaren egitarauak. .......................................... 69*

*1. 61. Karbajalek eroan eban atzerrizko politikea. ............................. 70*

*1.62. 1.758ko dagonillaren 1.759ko Dagonillara,*
*errege bageko urtea. ...................................................................71*

*1. 63. 34n Jauna Bizkaiko jauntzan. .................................................. 72*

*1. 64. IIIn Karlos, Napoles eta Siziliako erregea. ................................. 72*

*1. 65. IIIn Karlos espainitarren errege. ................................................ 74*

*1. 66. IIIn Karlosek, atzerrirako eroan eban politikea. ........................ 74*

*1. 67. Ameriketako Laterri batuak, espainitarrengandik*
*askatzeko egin eban guda, 1.776-1.783ko urte bitartean. ...........74*

*1. 68. Errusia eta Prusia. .................................................................... 75*

*1.69. Lurrarteko Itsasoa. ..................................................................... 75*

*1. 70. Itsas-Nausi edo Baketzuan gertatutakoak. ................................ 75*

*1. 71. Espainitarren barrurako politikea. Ta eroan eben*
*agindukeri edo nausikerizko jakintsutasuna. ..............................76*

*1.72. Eskilatxeren berrikuntzak edo aldaketak. .................................. 76*

*1. 73. IIIn Karlosek, erlijio arloan eroan eban politikea. ..................... 77*

*1. 74. IIIn Karlosen berrikuntzak. ........................................................ 78*

*1. 75. Zaldunak edo izen aundikoak. ................................................... 79*

*1. 76. Apaizak. ..................................................................................... 79*

*1. 77. Be-maillako erritarrak. ............................................................... 79*

*1. 78. Ijituak. ........................................................................................ 80*

*1. 79. IIIn Karlosek, bere ezkontza bidez euki zituzen alaba semeak. ........... 80*

*1. 80. 35n Jauna Bizkaiko Jauntzan. .................................................... 81*

*1. 81. XVIn Luis, Nafarroa eta Frantziko erregea. ............................... 81*

*1.82. XVIn Luisen aurtzaroa. ............................................................... 82*

*1.83. XVIn Luisen Ezkontza. ................................................................ 83*

*1. 84. XVIn Luis Frantzia ta Nafarroaren errege aulkira*
*igonda, egin eban jaurpidetza. .....................................................84*

*1. 85. Turgot´tar Jakkes ministruaren jaurkintza. ................................ 86*

*1. 86. Nekker´en ministeritza. .............................................................. 87*

*1. 87. Kalonne´en ministeritza. ............................................................ 88*

*1. 88. XVIn Luisek, atzerrirako eroan eban politikea. .......................... 89*

*1. 89. XVIn Luisek, Austriarekin euki ebazan artu emonak. ................ 90*

*1. 90. Frantziko Orokorrezko Laterriak. ............................................... 91*

*1. 91. Frantziko Iraultza. ...................................................................... 92*

*1. 92. Oar txiki bat emen. .................................................................... 96*

*1.93. XVIn Luisen epaiketazko bidea, eta iltzea. ................................. 97*

*1. 94. XVIn Luisek euki zituzen alaba-semeak. .................................... 98*

*1. 95. Atal onen Ondorioa. Sarrera. ...................................................... 98*

*1. 96. VIIIn Atalaren egitaraua. ........................................................... 99*

www.euskerazaintza.org

**400.000 BISITARI**

**Gure irakurleari:**

Azken zenbakian gure aldizkari au artzen dutenentzat eta adizkideentzat jarritako oar bat agertu zan, arpidendunai diru-laguntza eskatuz.

Batzuk arpidetza zenbat dan jakin nai dute eta gure erantzuna au da: "Len", oraingoz ez degu arpide-saria zeaztuteko asmorik, al degun artean naiago dogu irakurleen gogo ona kontuan artu eta emaitza ematen digutenak "laguntzaille" taldera sartuko ditugula esaten da gendun.

**Gaur, diru kontuetan estutasunean sartuta gagoz, eta al dauanak gura geunke "urtero" 30 euro ordaintzea, bealdean aipatzen dogun gure kontuen zanbakietan.**

**Gure kontuen zanbakiak onek dira:**

**BBVA: ES41-0182-1296-00-0201538669**

**KUTXA: ES80-2101-0200-46-0006681589**

# Atarikoa 2017-1.

Atariak, babes egitura adierazten deusku euritik edo otzetik zaintzekoa.

Ereinkintza mota bat da etxe baten aurrean edo ta etxe illararen aurrean egindakoa.

Olan, gertakizunen aurpegia edo sarrera azalduten deusku, ez etxeena soillik, baita jasotakoena be bai.

Gaurko atarian azpimarratu gure neuke munduan gertatukoen kontaketa edo istoria, Euskalerriarena, Atutxa´tar Paulo idazleak eskeintzen dauskuna.

Euskalerriko istoria bat antolatzeko bearrezkotzat jo daitezke:

1º Antolaketa edo istoriaren susterra begitandutea.

2º Egitaz jasotakoa, edo ta ipuin edo asmatutakoa ote dan adieraztea.

3º Antolaketa-egillearen zentzun ona ta jakite dotoretsua.

4º Gezurrak bastertzea ta egizaletasuna erakustea. Trikimailluak ez dau gauz onik sortzen.

5º Aditu zelan antolaketa edo kontakizun bat txarto daitekela kontagillearen aundiuste ta gaikeriagaitik.

6º Gertatu diranak, izan diran moduan onartu bear dira.

7º Istoria bat idazterakoan, batez be euskeraz, bearrezkoa da buruko miñik ez emotea irakurleari.

Euskalerriaren istoria, aberatsa ta jakingarria, Atutxa´tar Pauloren eskutik datorkigu gertakizunen fetxak, urteak, egunak al danik ondeen zeastuz. ¿ Utsak ba dirala ta nor ezta pakatu bako edo utsik egiten ez dauana ?.

Txaloak bada, nere aldetik, eta artu beza saritzat merezi dauen txapel egokia.

**Barroeta´tar Klaudio, cmf.**

**Agurain. 2.017.04.30**



# EUSKALERRIAREN EDESTIA VIII.

# 1. ZATIA.

### 1.3. *Euskalerriaren edesti onetan, VIIn ataleko aurkezpena.*

Txori begi lez ikusten dogu, eta Gaztelako jaurpidetzan geien, Ipar orratzak, ontzi-oialen mobilkortasunak, eizarako izkillu, lerrauts edo bolborarengintzan, gudarako tresnerigintzan, etxegintzan, ta artu ziran aurrerakuntza guztiaren indarrak, erritarren jaurpidetza edo erritar-bizitzari lagundu barik, edozein guda edo beti borrokarako prestuten zirala.

Bai ta errigizarteak euren bereztasunezko eskubideetan jaurpidetu barik, maltzurkeri ta nabarmenkeri edo lotsa-gabekeriz, euren jabetasunezko arazoen kanpotik, 325eko urtean Nizean ziñezkintzatuta, artu ziran Erromatar Kaisar Sakratu katolikotasunean batzangotuz aberritzeko mende erabagiakaz, batzango orren eskaerazko neurrian asi zirala berezko erriak beartzen.

Badakigu, bearkuntzazko alegiñean, dan guztiko mekanikeriak sartzen dabezala, eta olako neurri orreikaz, nortasunezko ekanduaren zentzuak urrundu egiten direla.

a) Giza legez.

b) Errigizarte lez.

d) Aberri lez.

e) Errege edo Jaunen artekaritzatik.

Eta gure arbasoak, millaka urtetan lortu eben askatasunezko demokrazitik.

Orregaitik azterkatu bear doguz arlo oneitan, gitxien jakiteko, nun sartu gintzazan IVn gizaldi ortatik aurrera, eta gure azterketako XVIIIn gizaldi onetan noraiño eldu ziran ikusi, gaur iñork ez daiten arritu, sortzen jakuzanakaz ekandu bageko bizitz onetan.

Giza legez: ezeren begirun bage alboratu egin zirala, Jaungoikuak Ludi oneri ipinitako berezko legetik.

Errigizarte lez: Tresneri antzeko baten biurtu giñala.

Aberri lez: Arroztuteko bidean ipini euskuela, katolikotasunean batzangotuz aberritzeko.

Errege edo Jaunen legezko artekaritzak: pikutara bialdu gure ebazala beti, errege jaun orreik.

Katolikotasunean aberri-batzangotzeko, norkerizko tresneri orrek, erregeak be bideratzen ebazalako, al-osokeriz jaurri egien, katolikotasun aberrikuntzazko norkerien ametsak bete zitezen.

f) Gure arbasoak milla urte askoren bidez, lortu ebezan askatasunezko demokraziak, ondo baiño obeto oiñarrituta daukaguzenak gure euskal baitan, euren erauzteko alegiñakaz, daukagun nortasuna, brast kendu gura euskuela.

Ez dira konturatuten, Jaungoikuaren Legeagaz batera ekanduta ekarten dogun sinis barrena, ezin dabela kendu, Jaungoikuaren Legez bereztasun onetan, beti berriztuten dan gauza dalako.

Mundu onetan ez dago aukerarik, Jaungoikoaren Legerik baztartzeko, ez eta gitxiago kentzeko.

g) Gaurko demokrazia, txori begi lez ikusita: azterketa onetan egin doguzan itaun bakoitzean ikusten dogu, jokabide guzti oneik, izatezko nortasunaren biotzera doiazala artez, batzuk norkeriz asmatu daben arau-xortaren eran bizi gindezan.

Eta norkerizko gauza orreik lortzeko, Jangoikuagandik ekarten doguzenak aldatu bear direlako, or gabiltz danok, berezko arduraren ekandutik kanpo, ezeren zentzun barik.

Ori da gaurko Europa ta Munduko gizarteari sortzen jakona, bear dogun zor eskubide-aren ordezkaritzazko arduraren kanpotik bizi garalako.

Eta jaiotasunetik berezko azturan agertzen jakuzan, ezkontza, auzotasuna, erria, aberri eta aberriaren arteko ulermen orreik, ez badoguz askatasunezko demokrazira eroaten, galduta gagozelako.

i) Zergaitik sortzen ote jaku gaur, jaurkintzazko arloetan aitu ezin dan ekandubageko guzur ta maltzurtasunezko lokatzarte au?:

Ludi-Fisiko onetan egiñak, egillea daukielako, ez dago sorburu bageko mugialdi edo eragiñik.

Eta norkeriz egindako gauzak, goitik berako agindupean egiten diran lez, norkeriaren emaitzan agertzen dira, guzurra, guzurragaz bakarrik elikatu leikelako.

Eta munduaren norkerizko jakintsu nagusi orreik, ta batez be Iberiako erdiugarte onen ugazabak senditzen diralako, uste dabe, eurena dala dan guztia.

Orregaitik agertzen gara ainbesteko lapurkerian, gaur sortzen jakun lez.

Beste gauza zoragarri bat agertuko liteke, Ludi onen gizakien ardurak, bakoitzaren eskuetan ba legoz.

Eta nortasunezko ardurean jokatuta, antolatuko ba geunkez, danon eskubideak ondorioz, askatasunezko eskubidetik zainduko geunkez.

Besterik bear ote dogu ?.

Kontuan artu, orduko errege-erregiñak be, asmamen orren tresnen batzuk baiño ez zirala izan.

-Erregiñak, nai senidezko odol batekoak izanda be, umeak ekarteko(1).

(1) Erregiñak, nai odol batekuak izanda be, umeak ekarteko, Sortzailie edo Jaungoikuak bereztu ebazan lege guztiaren aurka = en su mentira se creían, que una Santa Bula del Papa, les hiba a librar de los síndromes de KLINERFERTER y sus consecuencias degenerativas. Guetatik, iñork ez daukagu *"almenik"*, bereztasunezko legearen aldaketetan ibilteko.

Euskerazaintza

-Eta erregeak, IVn gizaldian, norkeriaren bidetik asmatuta, erromatar kaisarkeriz Ludi onen giza osoa, katolikotasunezko aberkidetasunean batzangotzeko, iñoiz ezin diran bete edo asetuko lege arauak, ezkatzen daben eran jaurkitzeko.

***Demokrazian bizitzea zer dan:***

Demokrazian bizitzea, bakotxari zor jakon neurrian, berea emotea da, eta gure artean ez leuke egon bear zalantzarik arlo orretan, errigizarte lez, ekanduzko orekan iraun gura ba dogu.

Gaurko munduaren ekanduzko arloetan, guztiz naastekatuta agertzen garan lez, gaurko mundu onen agintariak, geratu bear leukiez orain bertan, tresneriz doguzan diruetxe edo dirukutxaren zeregiñak, arik eta, mundu onen Europa eta Ameriketako agintariak, gizaren eskubideakaz, benetan asi arte.

***Ludi onen berezko erri edo errigizarteak, Euskalerria daukan erri zaarrenagaz buru dogula, aurrera egin bear leuke.***

Europak, badauka bai, Euskalerriari zer eskertu, bera dalako Paleolitiko Neolitiko alditik, askatasunezko demokraziz lortu zan parebageko jendekuntz demokratikoaren aitorlea(1).

Gaurko munduari, mesede aundiak egingo leuskiona, lortutako ekandu demokratiko ulermen ori, kontuan artu ezkero.

Zenbatu ezinezko ainbat milla urte askotan, ekanduzko lojikan eta erinduaren azterkuntzazko azturan biziz(2), gure arbasoak askatasunezko legean, ordezkaritzaren demokrazizko lege ederrenean ezarri ziran, gure "Euskereak" eta "Euskal Lege Zaarrak" erakusten daben lez.

Eta eleuke zalantzarik egon bear, biak, Ludi edo Mundu onen "Aitagandiko edo gurasoen etorkizunezkoak dirala" izendatzea.

Egia dalako, Europaren Mendebal onetan eta milla urte askotan Jaungoikuari begira, Alemaniaren erditik Atlant-Itsasoraiño, eta Eskoziatik Kadizeraiñoko lur zabaletan, zentzun aundiko euskal bizitza lortu ebela maitasun aundiz.

## 1.4. *Sarrera.*

Seigarren atalean ikusi dogu, I Karlos zelan konturatu zan, bere denborako diru ta aurrerakuntz guztiak ez zirala naikoak, kaisertzazko indar guzti orreik bere eskuetan gura ba ebazan.

Eta Katolikokotasunean aberkidetzeko batzangotasun orrek, geiago eskatzen eutsolako, I Karlosek, erritarren jaurpidea kontuan artu bage jaurri eban, kaisertza zabal orretan.

Orregaitik agertzen zan beartuta, al eben diru guztiak batzen.

Ez ziran iñoiz naikoak izan, katolikotasunezko montio orrek, geiago eskatzen eutzazalako, ezin ditekena lortzen.

Ezin dalako ezer egin, Jaungoikoak ipini euskuzan legearen aurka.

Eta Europaren errigizarteakaz batera joango dira erdiugarte onek daukazan berezko ta ezberdiñezko errigizarteak, norkerizko jaurbide ortatik gaurko egunerarte, ezin

(1) Euskaldunak garela aitorleak = testigos directos de la civilización Paleo-Neolitica. (2) *Ekanduzko lojikan eta erinduaren azterkuntzazko azturan biziz* = viviendo en una moral lógica y en constatnte crecimiento investigador rigurosamente refinado.

diralako lortu katolikotasunaren batzangotasunezko aberkuntz orreik, Europa ta mundu guztian ezartzeko.

Jaungoikuak berezkotu eutsoezan bere legeak, izatezko Izadi oneri, lur ontara ez garelako etorri, ipini euskuzan baldintzazko legeen kanpotik ibilteko.

Gauza eder bat erakutsi eben emen gaztelar komuneroek I Karlos errege-kaiserraren denboran, ez ebala aztu oraindiño, euskal arbasoen etorkizunetik baituz euki eben ekanduta askatasunezko demokrazia.

Eta txarrena, askatasunezko demokraziaren ekanduz, euki ebezan egizko zentzu orreik galduko ebezala komunero-gaztelarrak, I Karlosek euren buruak moztuten asi zanetik, aiñ sarraski aundiak egin ondoren, berezko erritar guztien nortasun orreik, kikildu ebazalako.

Baita, I Karlos ta IIn Felipeen denboratik, ondorengotu ziran Absburgotar errege guztiak IIn Karlosen denboraraiño, ez bakarrik, ezin ebezala katolikotasunaren aberrikuntzazko batzangotasun orreik lortu, euren erregetzazko al-osotasunak be, sekula ez ebelako lortu.

Orregaitik oraiñ, 1.789ko urtean Frantzian egin zan iraultzararte, geratzen diran errege jaunakaz ikusiko dogu, zelango bideak artu ta antolatu ziran, merkantil batzangotasunezko katolikotasunean aberritzeko, eta ondoren, Europan gaur koloni edo ta atzerritarreko ekanduz daukaguzan errigizartearen laterrizko merkataritz ezarpen auek azterkatzeko.

## 1. 5. *Euskalerriaren edestiari ostera ebatuta.*

***Nafarroako IIIna eta Frantziko errege XlIIn Luis.***

1.601eko urtean Iraillaren 27an Fontainebleauko jauregian jaio zan XIIIn Luis au, Nafarroako IIIna eta Frantziko errege IVn Enrike ta bere emazte Mediziseko Mariaren bidetik.

Eta 1.643ko urtean Loraillaren Man Saint-Jermain´en Layeko jauregian il.

XIVn Luisen aita izan zan, Eguzki erregeen izen goiti edo ez izenagaz ezagutuko zana.

1.610-1.643ko urte bitartean Nafarroa eta Frantziko erregea izanda, Andorrako Printzerriaren kide urte bardiñetan izan zan.

1.641eko urtean ta Kataluña matxinatu ostean, Frantziaren babespean geratu zan Andorrako printzerria, eta XIIIn Luis izendatu eben Bartzelonako kondea.



***Nafarrokoa Una eta Frantziako errege XlIIn Luis eta AndorrakoPrintze kidea.***



***XIIIn Luisen armaría***

Euskerazaintza

Bere osagillearen bidetik ezagutzen da XIIIn Luisen aurtxaroa, umearen osasunezko egoerakaz bakarrik ez zalako egokitzen, euren bizitzako gauzakaz be arduratzen zalako.

Bere anai eta sasianaien artean azkortu zan XIIIn Luis au, esku-geiko(1) edo lizun(2) zaletasunezko inguru giro txarra eukelako.

1.608ko urtean Italiar diplomazizko batek esaten eban giro orregaitik, berak, iñon ez ebala ainbesteko zalapart edo ekanduzko zirriborrorik ikusi, frantziko gortean ikusi ebana baiño.

1.609ko urtean itzi eban Saint Jermaineko jauregia, Loubre jauregira joateko bere aitaren ondora, erregezko zeregiñetan sartuz.

Ez eban ikasi gauza aundirik Soubretar Pilles, bere irakasle bidetik, Luis bera, ez zalako arduratuta egon, Latiñ eta elertiko gauzakaz.

Eizan gura eban geiago, baita soiñu edo ta musik-aldiko gauzatan.

Errege gazte au, marrezkari eta zaldun ona izan zan, euken Plubineltar Antonio irakasleari esker.

Bere ezin-esaneko beldurtsu izaerak(3) salatzen dautso, beldurti edo ta bere izaeragaz, ezustekoa zalako(4).

Eta edestilari batzuk esaten dabe, beren aita Nafar eta Frantziko errege IVn Enrike aldetik, artzen ebazan astindu gogorrakaz, izaera gogorrekoa, egon eziñekoa, zaintsu(5), ta erasotzaillezkoa biurtu zala.

1.610eko urtean il eben Nafarroa eta Frantziko errege IIIn ta IVn Enrike, eta XIIIn Luis egiten dabe Nafar-Frantziko errege, bederatzi urte bakarrik eukazala, bere ama Mediziko Mariaren errege ordezko ardurapean.

1.614ko urtean XIIIn Luisek adiñetara eldu zala ta, Nafar Frantziko errege egin ebenean, bere ama Medizitar Mariak, oraindiño XIIIn Luis, gorputz ta borondatez makala zala esanda, aolkularitzatik baztertu eban, eta Mariak Konzinitar Konzino, ta Doratar Leonorreri deituz, euren eskuetan itzi eban errege ordezko ardura, Frantziko erregetza berak jaurkitzeko.

XIIIn Luis, asarratu egiten zan Konzizitar Konzino ikusten eban bakotzean, bere jaurkintzaren lapur lez euki ebalako, eta bera Loubreko albo baten bazterreratu ebelako.

XIIIn Luisek ez eban euki aurtzaro onik, eta bere aitaren ilketeagaitik minduta, gitxiago, baita bere amaren maitetasunetik kanpo egonagaz be, Medizitar Mariak bere seme txikerra Gastonengaitik begitzen ebalako.

Geiago asarratu zan XIIIn Luis, bere anai Gaston, Anjou ta Orleanseko dukea izendatu ebenean.

Medizitar Mariaren errege ordegotza, oso txarra zan, samintasun edo mingostasun geiago sortu ebalako XIIIn Luisen barneko sentipenean.

Egoera guzti orregaitik XIIIn Luis, nai aitaren zentzunezkoa izan, ta urteak aurrera joia zala, beregandu edo norberekotuta, ixilkor edo ixil zale(6) ta sinisgaitzezko gizona(7) biurtu zan.

---

(1) Esku-geiko = descarado, licencioso, libertino, inmoral. (2) Lizun = moho, manido, sobado, sucio, obsceno. (3 )Bere ezin esaneko beldurtsu izaerak baifia, salatzen dautson lez = pero como su carácter miedoso y tartamudo lo denuncia. (4) Ezustekoa zan = impredecible. (5)Zaintsu = nervioso. (6) Ixilkor edo ixil-zale = taciturno. (7) Sinisgaitzezko gizona = persona desconfiada.

E

1.615eko urtean Azaroaren 2lean, Burgoseko urian ezkondu eban Mediziztar Mariak bere 14 urteko seme XIIIn Luis au. Luisek, espainitar etsai bat lez ikusten eban Austriako Anarekin, eta lau urte luzetan egon ziran alkar ezer egin barik, arik eta Luynes´eko dukeak bultzatuta, Austriako Anarekin ogeratu arte.

1.617ko urtean Jorraillaren 24an ezarri zan XIIIn Luis Frantziko erregetzaren aulkian, Konzinitar Konzino, bere amaren gogoko gizona il egien aginduta, eta bere ama Bloisera atzerriratu ondoren, berak eroan ebazan erregetzaren jaurketak, euken lagun edo aldeko Luynes dukeagaz batera.

Luynes duke au, jaurlari ona ez izanez gaiñ, izen buru aundi eta diru zale amorratua zan ekintza onegaz gorteko batzuengan, asarre eta eztaibada aundiak sortu ebana.

1.619ko urtean, erregearen ama Mediziztar Mariak, iges egiten dau Bloiseko gaztelutik, eta gudalozte bat antolatuz, bere seme XIIIn Luisen aurka joaten da, eta Angulemako ongunde bitartez XIIIn Luis bere amagaz adizkidetuta, Luisek, Angers eta Txinon´eko uriak emoten dautsoz, gobernuaren aulkularitzazko ateak berentzat itxita.

1.620ko urtearen Dagonillan Mariak, anai arteko guda sortzen dau, Dagonillaren illean de Ze´ko Ponts borrokan, guztiz menperatuz geratuta, eta XIIIn Luisek, oraindiño bildur zan lez bere ama matxintasunezko ekintza orreitan iraun egien, on artzen dau ama, gortetara etorri zedin.

1.620ko urtean eta Dagonillaren ostean, XIIIn Luis Nafarroako Pau´ra joan zan bertoko errege lez, berrogeita amar urte ariñagotik katolikotasunaren erlijioa debekatuta egon zan lekuan ostera katolikotasun aginpidea ezartzeko, eta ekarten ebazan lege bereziekaz amaitu gura ebalako, ukalariekaz sortu jakozan erlijiozko gudak.

1.621eko urtean egin eban lenengo erasoa ukalarien aurka, Saint Jean d´Anjelyko erriaren lurraldea ukalariei kenduta, naita Montaubanen aurka ia dana galdu, Luynes dukea ezjakiña zalako gudako arlo orretan.

Luynes duke au, Monteurt´eko ingurutasunean il zan elgorri gaixotasunagaz.

XIIIn Luisek emendik aurrera, Laterriaren zeregiñetan sartzea erabagitzen dau, bere alboan ministru bat bakarrik eukinda, eta Sillerytar Brülant ta bere seme Puisieux´eko markesa artzen dauz Bieubillegaz batera, euren gauzeztasunagaitik laster botako ebazanak.

## 1. 6. *Frantziko XIIIn eta Nafarroako IIn Luis, Ritxelieu kardinalagaz garaipendun, Rotxelleri egindako erasoan.*

1.624ko urtean Mediziztar Mariak, Ritxelieu kardinala erregearen aolkularitzan sartzea lortzen dau, eleizaren aldetik, 1.614ko Laterrien orokorrezko batzarretan ordezko buru nagusi edo eleiz buru(1) izan zana, eta Konzini jaurlarien ministrua.

Onek, XIIIn Luisen uste edo sinismena lortzeko: “Je soumets cette pensée comme toutes les autres á votre majesté”(2) idatzi eutson, beragaz erregeari esateko, berak sekula ez ebala jaurkituko beren baimenik bage.

Gizon bi auek, XIIIn Luis eta Ritxelieu kardinalak, batera sinisten eben Frantziaren aunditasunagaz, eta beren onerako egin bear izan ebezan leentasunak.

(1) Buru-nagusi edo eleiz-buru = prelado. (2) “Je soumets cette pensée comme toutes les autres á votre majesté” = «Someto este pensamiento como todos los otros a su majestad», beragaz erregeari esateko, berak sekula ez ebala jaurkituko beren baimenetik kanpo.

Euskerazaintza

Ritxelieu kardinalaren galdeketazko agerbidea(1), iru gauza oneitan osotzen zan: ministru batzarraren arrazoimena edo arrazoipidea; atzerritar Absburtagorren aurka borroka egitea; eta feudodunezko aundikiaren menpekotasuna.

Sarritan esan da, Ritxelieu kardinalak ukalarien aurka, euren barruan eta antolatutako era zorrotz bategaz borrokatzen ebala.

Egia baiña, ugonotearen aurka euki ebazan borroka guztiak, Roaneko duke ta Soubiseko printze zirikatzaille onek eraginda izan zirala matxintasun orreik, beronen erruagaitik asita, Rotxelleko gaztel-uriaren ingurutasuna.

1.628ko urtean eta ingurutasun luze baten bidez amaitu zan Rotxelleko borroka au. 1.629ko urtean Bagillaren 28an Ales´eko aginduagaz amaitu zana, ukalarien batzar politikuak eta eurak babesteko euki ebazan gaztelu ta uriak kenduta, naita erregetza guztian Parisen izan ezik, erlijiozko mota ezberdiñaren askatasuna ezarri.

XIIIn Luisek, aurpegia emon bear izan eban bere zati bateko sendiaren aurrean Ritxeliurengaitik, auek euki eben asarraldian, gortetik bota egin ebelako Ritxelieu, errege ta bere ama Mediziztar Mariaren artean sartzearren.

1.630eko urtean Azaroaren 10ean las Dupeseko egunean, Ritxelieu ostera onartu eben gortekoak eta bere aolkularitzazko lekuan ezarrita, onartu ebazan gortekoak, Ritxeliek emon ebazan aolkuak, Mediziztar Maria erregearen ama Moulinsera atxerritzeko(2), Marilla´tar Mitxel kanzillerra espetxeratzeko, eta baita onen anai Marillak´tar Mariskala guzur edo ta maltzurkeriz iltzeko, batek badaki zergaitik.

XIIIn Luisek, gorteko andikien buruak makurtu gurean, biotz gogor agertu zan une batzuetan, eta batez be, Boutebilleko Montmorenzi kondea il ebenean, debekatuta egon ziran bakoitzazko borrokaren il jokoen legetik urten edo ta zapaldu ebazalako, baita matxinatu zan Montmorenzy´tar dukea be, il eban ostean.

Ilketa ugari orren ostean XIIIn Luis, Ritxelieu kardinalaren eskuetan panpabitxi baten antzeko bat izan bezala itzuratzen eban erri-kondairako esanak, batera egoalako, edo alan emoten eban beintzat, Ritxelieu kardinal iltzailleak agintzen ebazan odolezko eriotzarekin.

XIIIn Luisek, Orleanseko Gastonek antolatu eutsoezan matxinada batzuk menperatu bear izan ebazan, eta Bendomeko dukea bezala, bere anai-orde batzuk atxilotu bear izan ebazan.

1.63lko urtetik aurrera, 30 urteko borrokak asi ziranetik, illundu edo laiñotu egin jakon ezaumena XIIIn Luiseri.

Bere aita il ostean espainitarrakaz euki eben borroka, geroratu egiten ebalako edozein aitxaki gaitik.

Ritxelieu kardinalak egiten ebezan zuurtasun edo diplomazizko antolak Frantziko erregetza bideratzeko, gogortu egiten ziran espainolakaz euki ebezan artu emanen bidez.

Urte batzuetan, guda-otz bat agertuta erri bien artean, Susako ibilbidean ordaidu bear zalako bide-sarigaitik eta baita Mantuaren askatasunagaitik.

l.635eko urtetik XIIIn Luisek, aldaketa aundi bat agertu eban, Frantzia ta espainol arteko diplomazi arloetan, Frantziak, guda gogor eta zabala aurkeztu eutselako espainolai, berari geratzen jakon biziaren azkenerarte iraungo ebena, batzutan Luisek berak bideratuz eukezan gudalozteak, Korbie´ko lekuan bezela.

Eta urte latz batzuk geroago, Frantzia garaipenduko zan espainolaren aurka.

---

(1) Galdeketazko agerbidea = programa. (2)Bere senide XIVn Luis erregeak, ez ebana geiago ikusiko.

## 1. 7. *Txanpaineko Pilippek esaten ebana XIIIn Luiseri buruz.*

Frantziko XIIIn Luis, erriagaz arduratzen zan erregea zala jakiteko, Pilippek esaten dau: -Frantziko gotzaiak beartu ebazanean, euren serbitzura egon ziran eleizgizon agintariai, ordaintzeko aginduz.

-Ezer-gabe egon ziran erritarrai, laguntzen eutsoen Paultar San Bizenteko lekaideai, erregetzazko Usar-egille edo Emailleak izendatuz.

-Subi barriaren (puente Neuf) egitea amaitu ebalako.

-Brianeko ur-aska egitea agindu ebalako, eta leenengo bulego errolda edo beargabe eta elbarrituak(1) erroldatzeko, lan-gela zabalduta.

-Parisen, Klermoneko Josu lagunei baimena emonda, euren ikastegiak zabaldu egizan dirudunen semeari ikasketak emoteko.

-XIIIn Luis, bera da lurraldearen jaurkintzan, zaingoaren ardurazko taldea irasi ebana(2), seneskales(3) ta bailios´gaitik(4) ordezkatuz.

-Baita bere erregetzan leenengoz, diruaren arloan, Luis urrezko-txaponak atarata.

-1.638ko urtean egon ziran arazoagaitik, ta bera eleizduna izanda, Ama Birjiñaren babes edo begipean ezarri eban Frantziko lurralde osoa, bere Kaussintar Nikolas aitorlariagaz batera, otoitz egiteko liburua argitaratuz.

Frantziako lurraldeak zabaldu egin ziran bere erregetzan: Nafartar erregetza, Bealdeko Nafarroa, Portu oste(5), eta Bearn bera be sartuz zabaltasun orretan. Ukalariak bien bitartez, aldarrikatzen eben Laterria, Frantziko Laterri barruan, bertan utzita.

1.640-1.652ko urte bitartean, espainolaren aurka egoan Kataluña, Frantziagaz alkartu eban aldi onetan, Piamonte ta Saboyagaz batera.

Gero, Lonbardiako lurraldearen Monferrateko Kasale alkartuko zan Frantziagaz. Baita Auñamendiko Bakearen bidez(6) eta XIVn Luis errege zala, Perpiñan eta Roselloneko konderria be, betiko aldatuko ziran Frantziko lurraldeetara.

-Arras menperatu ebanean, Ainauteko ia lurralde geiena artu eben frantzezak. Baita ekialdetik, Lorenako lurraldea.

-Azken baten Frantziko erregeak, Txanplaintar Samuelek egin ebazan Kanadako txango edo ibilaldiak ordainduko ebazan, Frantziari ate barriak zabalduz.

XIIIn Luisek lenengoetan, Ritxelieugaz euki ebazan artu emonak, korapillotzuak izan ba ziran be, aurrerako bidean obetu egin ziran, euren arteko sinis osoraiño elduta.

Ritxelieu il zanean XIIIn Luisek, bere antziñeko etsaiakaz adizkidatzen da, bere anai-erdi Bendomeko Zezar ta bere semeakin, Merkoeur eta Beauforteko dukeakaz, naita au ministrua izendatu barik egon arren, Ritxelieu´ren jaurpidetza eroan eban aurrerantzean.

---

(1) Elbarritu edo ta bear bage egon ziranak erroldatzeko, zabaldu ebalako bulegoa = la primera oficina que se abrió, para censar a inválidos y personas sin trabajo. (2) Zaingoaren ardurazko taldea irasi ebena = creación del cuerpo de intendentes, que suplieron a senecaleses y bailios, (3) Senekales = erri batzuetan. erregetzazko etxe edo erregeen gaztelu, edo jauregiaren etxe-zain nagusia. Senekales = criado antiguo, y en algunos países, mayordomo mayor de la casa real. (4) Bailio = caballero profeso de la orden de San Juan que tenia bailiaje o categoría de juez. Bailio = San Juan lekaidegoaren zaldunezko botodun edo ziñizüm eta bailiajea euki ebana. Bailio = zaldun edo ta apaiz-lekaideai emoten jakien izen-buru ta lurraldearen ardurak. euren antolaketetan, sari edo ta urteko-sariak batzeko. (5) Portu-oste = Ultrapuertos = lo que está más allá, o a la otra parte de los puertos de las montanas. (6) Aunamendiaren Bakean = la Paz de los Pirineos.

Euskerazaintza

Eta il orduko, Mazarino izendatu eban len ministrua, Ritxelieu´ren bidetik jaurpidetu egian, XIVn Luisen erregetza, al-osotasunezko jaurkintzara elduta.

## 1. 8. *XIIIn Luisen Nortasuna.*

XIIIn Luis bere aita bezela, errege gudalaria izan zan, txikitatik zaldi eta gudarako bear ziran aizto ta tresneriekin griñatuta egoana.

-Zaldun ona izanda, sarri ibili zan gudako borrokatan sartuta, eta bakezko denboran, eiztaritza izan zan bere berezkeri maiteena.

-Erlijioz, katoliko sutsua zan, eta ukalariak begirunez euki ba zituzen, bere aitari begira egiten ebazan gauza orreik, baketsua zalako.

-Bere ama, Medizitar Mariak zainduko eban geien, XIIIn Luis katolikua izan zedin, pekatuaren arloetan, bildur gorriraňoko neurriraiño ezita.

-Arrokeriaren aurkako lez, utsaltasunarenu(1) aurkaria zalako, gortekoakin euki eban artu emona, otsa, itzalgaitz edo gibel-beldurrezkoa izan zan, gorteko andrak ergelkerizko edo txolinkerizkoak lez eukinda, emakume lez, griña txarreko eritzian euki ebazalako.

-XlIIn Luisen andre-etsaitasun orrek(2), Luis, kunde-bereko edo omoseksukoi zalakoen zurmur antzeko bat zabaldu zan gorteetatik, baita, Luynes dukea, Toiraseko markesa, San Simoneko dukea Baradat, eta Zink-Mars markesarekin ibili zalako, naita iñork ikusi ez, beren lagunakaz omoseksukoi´ezko ekitaldietan ibilten zala esan.

E

## 1. 9. *XIIIn Luis eta bere emazte Austriako Anak euki ebazan alaba semeak.*

Bere erregetzan XIIIn Luisek, ainbat ilteko larrialdietatik bizirik urtenda, semerik ez eukitea geien arduratu egiten eutsona zan, eta bere ondorengoak ziranen artetik, anai, anai-orde ta beren lobatik asita, norberekoiezko itxaropen aundiak bizkortu ebazan.

Gaiñera, bere emazte Austriako Anagaz euki eban artu emon txarragaz, printzearen itxaropenak aundiagotu egiten ziran.

1.626ko urtean Txebreseko dukesak Austriako Ana´ri bultzatuz, Txalaiseko kondeak, bere senar Luis erregea azpi-jokoz ilteko antolatu eban marroan(3), Ana be, sartuta egoan.

Eta egun orretatik senar-emazte oneik, bananduta bizi ziran lez, Absburgo edo Austriako Ana onek zelatari biurtuta, espainolakin asi zan ogeitamarreko guda orreitan, ezkutu edo ixilean, gudarako ta politikari buruz al eben argibide guztiak emoten eutsezan.

Eta Ana erregiña lan orreitan arrapau ebenean, ezkontzaren utziera edo banaketetako berbetan asi ziranean, Luisek berak, geratu ebazan antola orreik.

XIIIn Luis aldi onetan, egoera larri baten aurkezten zan Europako erri ezbardiñ aurrean, eta batez be, Alemaniako IIIn Fernando kaisar Sakratu, ta espainiako IVn Felipeen aurrean.

---

(I} Utsaltasunaren etsaia = enemigo de la vanidad. (2) XIIIn Luisen andre-etsaitasun orrek = la misoginia de Luis XIII. (3) Marro´an = plan, complot.

Eta 1.638ko urtean, 23 urte geroago jaioko zan "mirarizko umea".

1.638-1.715eko urte bitartean biziko zan Luis-Dieudonne´ko izenagaz bateatuta, eta XIVn Luis Eguzki edo Aundiaren izenakin esagutuko zan, XIIIn Luisen ondorengo au.

Baita geroago 1.640-1.70leko urte bitartean bizi zan Felipe bigarren semea, Orleanseko dukea izango zana eta Orleans´eko Etxe leiñua irasiko ebena.

## 1. 10. *XlIIn Luisen eriotza.*

1.643ko urtean Loraillaren 14an, askeneko seme Felipe jaio zanetik iru urte geroagora, bai eta bere aita Nafarroako IIIna ta Frantziko IVn Enrike il zan egunean, sortu jakon eriotza Saint Jermain Layeko jauregian XIIIn Luis Nafar-Frantziko erregeari.

33 urte errege lez eginda, Kron´eko edo este lodiaren gaixotasunagaz, berantzakoak asiko jakozenetik sei aste geroagora ilgo zan Luis, Nafar-Frantziko errege au.

Eta berak aginduta, Saint Deniseko Eleiz Nagusian illobiratu eben ezeren eleizkizunik egin bage, ez ebelako gura erritarrak zigortu diruarekin, alperreko gauza onekaz.

## 1. 11. *Gaztelako IIn Karlos "Lilluratua".*

1.661eko urtean Azaroaren 6an jaio zan Madrillen, Gaztelako IIn Karlos, lilluratutako errege au, Austriako Mariana eta IVn Feliperen bidetik, onen ondorengoa izanda.

Eta 1.675eko urtean erregetzaren aulkira igon eban, bere amaren errege ordezkotzan, arik eta errege izateko izan bear ebazan adiñak, euki ebazan arte.






***Gaztelako IIn Karlos Lilluratutako erregea, ispilluen gelan, Mirandako Karreñotar Juanek margoztuta. Bere armaría, ta bere izenpetzeakaz.***

Eta 1.700eko urtean Azaroaren 1ean Madrillen il, 1.665-1.700eko urte bitartean, Asturias, Leon, eta Gaztelako erregetza eroan ostean.

### *Oar txiki bat emen.*

Europako edozein errege-erregiñen gorputzetan agertu leikiezan gaixotasunak(1) ziran, Klineferlter gaixoaren gaitzantzu oneik, nai Absburgotar IIn Karlos onen makalezko gaixotasunagaz ikusten dogun lez, edo ta edozein beste senidekoetan.

Euki ebezan odol bardiñezko ezkontzak ziran errudunak, nebarrebaren artean aiñ ugari ziran ainbeste ñañokeri, epokeri ta txikerragoak izatez gaiñ, antxutasunezko ezainkeri(2) orreitan agertu zitezen.

Eta or amaitu zan Absburgotar leiñua, ondorengotasunezko arloetan eztabaida gogorrak sortu ebazanak.

Edestilari batzuk IIn Karlosegaitik esaten dabe, beragaz asi zala espainiako kaisertzaren gainbera.

Egia ez dana, len, naiko urte bizi zalako bere denboretarako, eta Frantziko XIVn Luisen aurka, bere kaisertza osorik agertzea lortuz gaiñ, bizitzeko bear ebezan merkatuzko mozkiñ onurak dirutan beratuta, gosea sustraitik atara ta bakez bizitzen alegindu zalako.

2.006ko urtean Ribot egilleak beragaitik esanda: “ez zala aiñ lilluratutako gizona, ez eta ain mandoakildako gizona edo maskala(3) be”.

## 1. 12. *1.665-1.675eko urte bitartean IIn Karlos, bere ama Austriako Marianaren errege ordegotzan.*

1.644ko urtean il zan Frantziko Isabel, IVn Felipegaz len ezkondutako emaztea, Baltasar Karlos semeagaz itzita, 1.646ko urtean il zana. Eta IVn Felipe ondorengo bage geratuta, bigarrenez ezkontzea erabagi eban. E

1.649ko urtean ezkondu zan barriro, Austriako Mariana bere lobagaz, Alemaniako IIIn Fernando Kaiserra ta bere emazte Austriako Ana Mariaren alaba izan zanagaz. Eta berau, Gaztelako IVn Feliperen arrebea.

Alaba seme batzuk euki zituzen ezkontza onegaz, danetatik Margarita Teresa, ta mutillen artean azkeneko seme izan zan IIn Karlos au.

1.665eko urtean Iraillaren 17ko egunean il zan IVn Felipe, bere bigarren ezkontzatik bostgarren semea izan zan IIn Karlosen aita. Bere azken naietan, Austriako Ana bere emaztea itxita, semeagaz errege ordezkoak egiazan, arik eta IIn Karlos, adiñetara eldu arte.

Errege ordegozko aolkularitz edo erakunde onetan Austriako Anak, sei aolkulariakaz bete ebazan, bere semeagaz egin bear zituzen errege ordezko ekintza orreik:

-Gaztelako aolkularitzaren lendakaria Sotomayor ta Guzmantar Garzia Aro, Kastrilloko kondea.

-Aragoiko aolkularitzaren bigarren Kanzillerra, Balladuratar Kristobal Krespi.

-Laterriko aolkularitzaren kide, Brakamonte ta Guzmantar Gaspar Peñarandako kondea.

---

(1) Klinefelter gaixoaren gaitz-zantzuak = Síndromes patológicos de klinerfelter = originadas por unión consaguinea. al deformarse el factor x-y del varón y el x de la mujer, en xxy del descendiente, propagándose esas deformaciones a la hipófisis o glandular hipofántica situada en la parte anterior del encéfalo, que es centro reproductor ormonal. para causar esas deformaciones enanistas corporales y mentales enfermizas, por asiduidad constante de uniones consaguineas. (2) Antzutazunezko ezainkerian = deformidad para procrear, Antzutasuna = esterilidad, impotencia, infecundidad. Ezainkeria = deformidad, cosa deforme. (3) Mandoak ildako gizona edo maskala = decadente.

-Espainiako aundikia izan zan Monkadatar Gillen Ramon, Aitonako markesa.

-Toledoko artx apezpiku Aragoiko Paskual, eta orokorrezko billakaria zan Moskoso ta Sandobaltar Baltasar kardinalak, osotzen eben errege ordezko ori, erregetzaren erlijiozko agintari nagusi lez.

Azken naiaren agiri au zabaldu zanerako, Moskoso ta Sandobaltar Baltasar kardinala, IVn Felipe baiño ordu gitzi ariñago il zan.

Erregiña bere bakardadean eta gortekoen begiak bere gaiñean eukazala, erabagiak artu bear izan ebazan, eta Moskoso kardinalaren lekua utzik geratu ez zedin, Aragoiko Paskual izendatu eban Toledoko artx-apezpiku lez, gero erregiñaren aitorle Nithard ta Eberardotar Juan, Josu Lagun kardinalak, erregearen ordezko lan orreik egiezan.

Mariana erregiñak, Bienako gortetik Madrillera, Nithard Eberardotar Juanegaz eginda, bion artean artu eben erabagi ori, politikan be berentzat bearrezkoa zalako, bere aitorlearen laguntza.

## 1. 13. *Nitard Eberardo kardinalaren baliatze edo erabilketa*(1)

Uste osoa euki eban Austriako Mariana erregiñ onek Nitard kardinal onekin, ainbatek, bere baliodun bakarra zala esan arte, gorteko aolkularitzan, ia agintaritzazko arlo geienak artuta eukazalako bere ardurapean.



***1.674ko urtean, Alonso del Arkok egineko Nithard Eberardotar Juan kardinalaren argazkia.***

Zetan ezanik ez, orokorrezko agintaritza orreik, aurkako eginkizun aundiak ekarriko eutsoezala, nai politikan eta baita erlijiozko arloetan Nitard kardinalari, ez zalako sartu bakarrik Laterriaren aolkularitzan.

Erregiñak, guzti ori Nitard´en alde len egiteko, Toledoko artx-apezpikua ta orokorrezko Billakaritzaren ordezko lanean egoana Aragoitar Paskual, baztertzea erabagi eban,

(1) Nitard Eberardo kardinala = Mariana erregiñaren aitorlea zan.

eukan erregearen ordezko lanari uko eginazota, bere artx apezpikuko lanetara bialduz. Erregearen azken nai orren aginduetan, Orokorrezko Billakaria egon bear zalako.

Mariana erregiñaren bigarren asmoa, Nitard legez erritartzea zan, Orokorrezko Billari edo Billakaritza orren agintaritza ori, ezin ebalako atzerritar baten ardurapean euki, gortezetako gaztelar autapide edo autesmenekuen bidetik lortu ebena.

Eta Marianaren irugarren ekitaldian, Josu Lagunen taldekoak, eurak emoten eban ziñ-eskeintzaren bidez, ez ebelako agintezko ardurarik artu, Aita Santuarengana jo eban, eta 1.666ko urtean Urtarrillaren 15ean VIIn Alejandro Aita Santuak Nitard´eri, ziñ-eskeintza orretatik askatuz, Orokorrezko Billakaria(1) izendatu eban, Josu lagun Nitard kardinala baimen orregaz, erregearen ordeko lanetan sartuta.

Gaztelako erregetzaren aundikiak, Nitard, atzerritar lez euki ebelako, ez eben onartu lenengoetatik Nitard´en izentasun ori.

Eta Josu Lagunen aurkakoak izan ziran Dominiku lekaideak zaurituz edo minduta lez agertuz, Josu Lagunak, euren errege autortzaren leentasunetik kendu ebazalako, eta Orokorrezko Billakaritzaren agintaritza aunditik be baztartu egin ebazalako, Nitard´ek, bere baliotasunaren maldaberazko denboratan, euki ebazan aurretiko orreik izan ziran naikoak, euki ebazan etsimenezko erizpenak(2) eukiteko.

Ata guzti, polítika arloetan Nitard´ek, ez eban euki bururatzen zan bezteko eragipenik.

Bere aurka geiago izan zirelako, berak euki eban atzerritar ta Josutar Lagun erlijiozko izatasunak, erregiñaren begikotasunagaz batera.

Nitard´ek artu ba eban aurkaritza aundi ori, geiago izan zan erregiñagaz artu emoneko bideak zarratu ebazalako.

Ez zana guztiz egia, Austriako Mariana erregiña onek, Austriatar Juan Jose, ta Gaztelako aundikiak itzalgaitz edo gibel-beldurrean euki ebazalako baizik.

Gauza guzti oneikaz errudun lez agertuta, eta Gaztelako gortean sortuko ziran giro ekaiztsuagaz, naikoa zan, Nitard bere lekutik bota egien.

## 1. 14. *Nitard kardinalaren eztabaidak Austriako Juan Joserekin, eta Nitard kanporatzea bere jaurkintzazko lekuetatik.*

1.665-1.668ko urte bitartean Austriako Juan Jose, IVn Felipeen sasi-semea eta IIn Karlosen sasi-anai onek, eukezan eragipeneko indar guztiakaz saiatu zan Gaztelako gortean, aunditasunezko leku bat berentzat lortzen, Portugal, Kataluña, Flandes eta Italiako borroketatik, indargabetuta edo nekean sartuta egoalako.

1.665eko urtearen Iraillan IVn Felipe il zanean, Austriako Juan Jose sasi seme onek 36urte euki ebazan, eta erregetzaren ondorengo zana, bere sasi anai IIn Karlosek lau urte, eta IVn Felipe erregeak bere azken naiaren 37ko idazkunean au esaten ebalako:

*Por cuanto tengo declarado por mi hijo a don Juan José de Austria, que le hube siendo casado, y le reconozco por tal, ruego y encargo a mi sucesor y a la Reina, mi muy cara y amada mujer, le amparen y favorezcan y se sirvan de él como de cosa mía, procurando acomodarle de hacienda, de manera que pueda vivir conforme a su calidad, si no se la hubiero dado yo antes de mi muerte.*

(1) Orokorrezko Billakaria = inquisidor general, que era la cúspide de la gran institución eclesiástica de la monarquía, (2) Etsimenezko erizpenak eukiteko = para tener esas desesperantes criticas, opiniones, o, juicios contra su persona.



***XVIIn gizaldean, Austríaco Juan Jose´ri, egindako margoa.***

Nitard´ek aginduta, Austriako Juan Jose au, ardura aundiko leku guztietatik kendu eben, eta baztartuko bat balitz senditzen zan lez, asarre, eskutitz au idatzi eutson Mariana erregiñari:

*[...] que no se dirá contra lo más sagrado de mi intención si viesen que Su Majestad me cerraba la puerta que Su Majestad que Dios haya [Felipe IV] me abrió para concurrir en los bancos de un Consejo, que es la puerta del toque de la confianza, y el aprecio de los más relevantes vasallos, ¿acaso lo he desmerecido después acá con mi proceder, o se ha visto sombra o asomo que pueda oscurecerlo? No señora, ni esto ha sido, ni puede Vuestra Majestad permitir que me haga un disfavor de este tamaño.*

Gauza guzti oneri, Nitard´en goraldia gaiñendu jakien gortekoai, eta aundiki guztien artean, naieza edo urduritasunezko egoera antzeko bat sortu zan.

Nitard´ek, barru ta kanpoko politika arloetan, etenbageko utsegite edo zoritxarrak artzen asi zan, adibidez Lisboako elkargoan sortu zan bidetik, Portugalek: bere aberrien askatasun osoa lortuta.

Etsaigo edo eziñ-ikusi asko be irabazi ebazan Nitard´ek, antzokien antzezketak debekatzen asi zanean.

Eta diruaren arloetan bere eziñak agertu ebazanean, Nitard kanporatu eben gortearen aolkularitzazko agindu guztietatik.

## 1.15. *Gaztelako IIn Karlosen erregetza.*

1.665eko urtean igon eben IIn Karlos erregetzaren aulkira, lau urte eukezala.

Teologuen eskutik asi eben bere azkuntza, eta makala izateagaitik, laster ilko zala susmatzen ebelako, jaurkintzarako ikasketak baztartu ebazan apurbat baiño geiago, urte egun aietan, Balenzuelagaz(1) euki ebazan borrokak, gorantza joanda.

1.677ko urtean eta amabi urte geroago, IVn Feliperen sasi-semea Austriatar Juan Jose aundikien laguntzagaz, Madrillen aurka joan zan, eta Gaztelako jaurkintzagaz jabetu zan.

(1) Balenzuela = 1.574-1.692ko urte bilartean bizi zan politikua eta Mariana erregiñaren begipekoa zana bere serbitzariko neskame bategaz ezkondu zalako, eta Austriatar Juan Jose´ren etsai aundiena, 1.676ko urtean Mariana erregiñak, bere leen ministru lez izendatukoa.

Balenzuela ta Enzisotar Fernando, Mariana erregiñaren leen ministru ta begipekoa zana atzerriratu eben, eta Mariana erregiñak, Gaztelako jaurkintza itzita, Toledoko gazteluan ezarri eban bere bizitza.

IVn Feliperen sasi-seme Austriako Jua Josek, erritarren laguntzagaz, onartua izan zan Gaztelarren jaurkintzarako, jaurlari lez.

Bere jaurkintza baiña, etsaiaren aurka egin bear izan ebazan jazarpenakaz illunduta geratu ondoren, lazgarritasunezko egoerea baten sartu zan espainiako erregetza, eta gauza batzuk emon bear izan ebazan.

1.679ko urtean Gaztelako erregetza, egoera txarrenean egon zanean, Nimean egin ziran bakezko itzarmen bidez, IIn Karlosek Franko konderria emon bear izan eutson Frantziari.

1.679ko urte onetan IIn Karlos erregeak, 18 urte bete ebazan, eta Frantziko XIVn Luis erregearen loba, Orleanseko María Luisagaz ezkondu zan.

Eta María Luisak lenengoetan seme alabarik ez ebalako agertzen, baita IIn Karlosen maitetasuna zalantzan ipini ba eben be, bera asi zan erromes, erliki sakratuaren babesa lortu gurean, alaba seme orreik agertu zitezen.

1.689ko urtean il zan Orleanseko María Luisa, IIn Karlos erregea, itxusgarri edo apalgarri(1) itzita.



***Orleanseko María Luisa, IIn Karlosen emaztea.***

## 1. 16. *IIn Karlosen aolkulariak, diruaren arloak goraldu edo obetu.*

IIn Karlosek, bere makaltasunean ta euken gaieztasunean jakinik, jaurkitzeko txarto ibiliko zala, ondo ikusi eban nortzuk ipini bear izan ebazan ardura aundiko zeregiñetan, eta len artu bear izan ebazan neurriak, diru arloetan artu bear izan eban lez, paper-gaitz edo geratu ezinezko inflazioari alegindu zan aurre egiten, sarrerazkoak geiago izan zitezen, irteeran sortzen ziranetik baiño.

(1) Apalgarri edo itxusgarri itzita = con su muerte, dejándole en un estado totalmente depresivo.

Balenzuela ta Enzisotar Fernando[1] zan leen arduratu ebana, erregetzaren altxortegiak bete egizan, berak denbora gitxi eginda lan orreitan ikusi ez, zelango erantzun onak euki ebazan, artutako neurriakin.

1.680-1.685 urte bitartean, De La Zerdatar Juan Franzisko Medinazeliko dukea arduratu zan, Balenzuelak ezarri ebazan neurriakaz, diru arloen egoerak zuzentzen.

De La Zerdak, diruaren gora beran euki ebazan eztabaidak erregiñagaz ta gorteko beste aundiekin, ugariak izan arren, jaramon egin barik eta bere ardurazko lanari uko edo itzi bear egin orduko, gobernua bere aldetik, diruaren ordainketarako diru-laburkeri aundienean egon zanean, merkataritzaren orokorrezko mozkiñaren dirutza, edestian ezagutu dan geieneko neurrian beratu eban bere balioan[2].

Eta eztabaida onen bidez De La Zerdatar Juan Franzizko Medinazeliko dukeak, yaregille edo, euki zituzen diru kontuen ardurazko lanak itzi bear izan ebazanean, artu ebazan neurriak, erritar altxortegirako txarrak izan arren, erritarrentzat oso onak izan ziran, eta bide orreitatik zabaldu ebazan bideak, erritar altxortegiak, diruakaz bir-bete zitezen.

1.685-1.69lko urte bitartean, ta Medinazelik itzi eban diruzko arduraren lan leku orí, Albarez de Toledo Portugal ta Pimenteltar Manuel Joakin Oropesako kondeak[3] artu eban diru kontuen ardurazko zuzenketak.

1.685eko urtean, Laterriaren aurre-kontu edo eralgi-kontuak beratu ebazan, eta erritar ta gudalarien irabazbideak kenduta, etsai asko agertu jakozan.

Alegiñ aundiak egin ebazan lan-toki guztietan izen buru andiko gizonak baztertuz, baliozko gizonak ipinten.

Bere agindupean sortu eban erregearen erri-altxorrerako, Orokorrezko Yagoleburuetxearen[4] ardura nagusienean, Belez´eko markesa ipini eban lendakari lez.

Bere burutakisunetan, diru-kontu baten utsetik asita, noraiño eldu leikezan diru ordaiketak ikusi edo jakin gura eban, udaletxearen zorrak barkatuz, ostera berrezkuratu zitezen, eta aundikerizko ordaiñak kenduta, erri zergak beratzeko.

1.686ko urtean Gaztelar erregetza Absburgotarren alkartasunagaz kidetu zan.

Eta 1.696ko urtean IIn Karlos erregeak eskatuta, Pimenteltar Joakin Oropesako kondeak itzi eban diru zuzenketa ori.

1.696ko urtean, ostera Gaztelako Aolkularitzaren lendakaria izan zan, eta Austriako alderdian kidetuz, erritar matxintasun talde batek beartu eban bere lantokitik alde egiten, atzerrira bialduta.

IIn Karlosen erregetzan, diruak neurri on guzti orrekin landuz, eta egiñ onak emoten dauazan itxaropen argiakaz, bere bir-aititetik etorten ziran eten bageko diruaren zorrezko porrotakaz amaituz, lasaitasunezko bakean ezarri ziran, urrengo erregeak be ezkertuko ebena.

IIn Karlosen betiko aurkaritzan, gorteko eleiztar, aundiki, eta baita bere bigarren emazte Neoburgoko Marianagaz aitu ezinari, alkartuko jakozan, Frantzezakaz euki ebazan gudako porrot aundiak.

(1) Balenzuela ta Enzisotar Femando = 1.636-1.692ko une bitartean bizi zana. (2) De La Z@erdak diru arloetan lortu ebana = Una de las mayores deflaciones logradas en la historia de las españas. (3) Albarez de Toledo Portugal ta Pimenteltar Manuel Joakin, Oropesako kondea, Alkaudeteko kondea, Deleitosako kondea, Jarandillako markesa eta ainbat izen buru geiago, ¿-l.707ko urte bitartean bizi zan Barzelonan ilda. (4) Diruaren Orokorrezko Yagoleburuetxea = creación de la Superintendencia financiera real.

Euskerazaintza

-1.684ko urtean Ratisbonako gudu-artearen ostean, Luxemburgo galduta.

-1.69lko urtean Bagilla baiño ariñago, Frantzezak Kataluñan sartu ziranean, Bagillako illean Albarez de Toledo-Portugal ta Pimenteltar Manuel Joakin, Oropesa ta Alkaudeteko kondea, bere lekutik kendu egin bear izan ebanean.

1.697ko urtean eta frantzezek Palatinado menperatu eben ostean, Riswikk´eko bake bidetik, garrantzi aundiko gauza bat sortuko zan espainitarren erregetza guztiz aldatuko ebena, bakezko ekintza onegaz frantzezak, aukeratuta geratu ziranean, espainolen erregetza eurak bideratu edo jaurkitzeko.

## 1. 17. *IIn Karlosek euki ebazan ondorengotasunezko arazoak.*

IIn Karlosek, naita bere bizitzaren azkeneko urtetan, erregetza yaurri edo zuzendu gurean ibili, bere gaieztasunak ez eutsoen itzi, eta erregetzaren jaurkintza bere bigarren emazte Neoburgoko Marianaren eskuetan geratu zan, Toledoko arx apezpiku Portokarrero ta Fernandeztar Luis kardinalaren aolkularitzapean.

Frantziko errege-ordariak(1) esanda: “IIn Karlosen gaixotasuna, gaixo bat bakarrik izan bearrean, orokorrezko akidura edo auldura(2) zala”.

Eta IIn Karlosek, ez ebalako euki bere ondorengotasunezko izan-gaitasunik, gortekoen artean, itzalezko azpikerietan asita, azkenez, espainiako laterriaren arazoa bakarrik izan bear izana, Europa osoaren diplomazizko arazoan biurtu zan.

1.699ko urtean, errege ondorengoa izateko, iztundu zan Babierako Jose Femando il zan.

Eta 1.700eko urtean Urrillaren 3an IIn Karlosek egin eban azken naian, Frantziko XIVn Luis eta bere arreba Austriako Maria Teresaren(3) billoba, Anjoutar Feliperen alde ezarri eban bere ondorengotasuna, Portokarrero kardinalak egiztu edo baieztu ebana.

Bere emazte Neoburgoko Marianak alderantziz, bere loba, Alemaniako kaisar I Leopoldoren seme Austriako Karlos artxidukea gura eban, Ingeles eta Olandarrak baiezten ebena.

Eta Lilluratutako IIn Karlos onen azken naian, batzuk sudurra sartu gurean ibilita, Borbontar Felipe onek, bera egoala Austriako Karlos artxidukea baiño aurretik IIn Karlosen ondorengotasunean esan eban.

## 1. 18. *Espainiako IIn Karlosen eriotza.*

1.700eko urtean Azaroaren lean, eta 38 urte euki ebazanean il zan Madrillen “lilluratuzko” IIn Karlos errege au.

Bere sendagillearen esanetan:

-“IIn Karlosen gorputzak, ez eukala odolezko tanta bat be”.

-“Bere biotzak osoko neurrian, ez ebala euki, piper-beltzaren garu bateko beste”.

-“Birikiak, guztiz ustelduta”.

-“Esteak, guztiz ustelduta”.

-“Barrabil bat bakarrik, eta bera iketza baiño baltzagoa”.

(1) Frantziko errege ordaria = embajador de Francia. (2) Orokorrezko akidura edo auldura zala = que hera un agotamiento físico general. (3) Austriako (edo Espainiako) Maria Teresa = IIn Karlosen arreba 1.638-1.683eko urte bitartean bizi zana eta Frantziko XIVn Luisen emaztea eta Anjoutar Vn Feliperen aitite amona ziranak.

-“Eta burua urez beterik”.

1.700eko urtean Azaroaren 6an, Bersallesen egoala eldu jakon IIn Karloseri eriotzea.

Eta 1.700eko urtean Azaroaren 16an, Frantziko errege XIVn Luisek, onartu eban IIn Karlosen azken naia.

## 1. 19. *31n Jauna, Bizkaiko Jauntzan.*

IIn. Karlos Lilluratua(1) esaten eutsonai, 1.661-1.700eko urte bitartean bizi zan.

1.665eko urtean Iraillaren 17ko egunean il zan IVn Felipe, lau urte eukazan IIn Karlosen aita. Bere azken naietan, Austriako Ana bere emaztea itzita, semeagaz errege ordezkoak egiazan, arik eta IIn Karlos adiñetara eldu arte.

Eta 1.675ean adiñeko eskubidetara eldu zanean, bere sasi anai Austriatar Juan Josegaz aolkulari lez, batera eroan eban espainiako errege ta Bizkai´tar jauntzazko artekaritza.

IIn Karlosek jakin ebalako, bera ez zala gai izango jaurkintzan, antolatu bear ebezan egitarauak aurrera eroateko, zurtasun aundiz, beren begipeko gizonen eskuetan itzi ebazan jaurkintzazko gauza orreik, lenengoetan gaztelatarren aundikeriak maldabera aundian ipinita, arik eta konpondu ebazan arte.

Bizkaian ez zan gitxiago gertatu, eztaibada asko euki genduzelako.

Eta ondorengorik ez ebalako euki, espainolaren jaurkintza, bere arrebaren Austriako Maria Teresa Frantziko XIVn Luisegaz ezkonduta egoan bir-seme Anjoutar Vn. Feliperen eskuetan itzi eban Gaztelako jaurkintza.

1.700eko Urrillaren 3an arratsaldeko ordubiterdi irurak bitartean il zan IIn Karlos, or amaituta Austriatar Absburgoko leiñua, eta Vn Borbontar Felipe onek leen ekarri ebena, ondorengo guda latzak(2) ziran, espainiako erregetza indarrez artzeko.

1.700eko urtean Azaroaren 19an artu eben Bizkaitarrak, Gaztelatik bialdutako IIn Karlosen eriotzazko eskutitz orí, eta Azaroaren 20an batzarkideak Bilbon batuta, IIn Karlosen Elizkuzunak, Abenduaren bost eta seiko egunetan ospatu zitezen agindu eben.

Eztaibadak egon ziralako baiña, Abenduaren 12 ta 13n egunetara atzeratu bear izan eben, 14garrengo egunean, Vn. Borbontar Feliperen ikurrak goralduta.

1.700eko Abenduaren 15ean bizkaitarrak orokorrezko batzarrean batuta, 12 nagusi edo zaldun aukeratu ebazan, Vn Feliperi Arabako Gazteizera urten eta, umaje edo ongi-etorria emoteko.

## 1. 20. *Frantziko XIVn Luis erregea, eta IIIna Nafarroako erregetzan.*

Nafarroako IIIna ta Frantziko XIVn Luis erregea, edo bere izenagaz deituta, Dieudonne ta Borbontar Luis Eguzki Errege edo Luis Aundia(3) deitu eutsoena.

Nafarroako IIIna eta Frantziko XIVn Luis au, XIIIn Luis eta bere emazte Austriako Anaren(4) semea izan zan, bide orretatik Nafar-Frantziko erregetzaren ondoregontasuna eukinda.

1.638ko urtean Iraillaren 5ean, Frantziko lurraldearen Layeko Saint Jermain´eneko jauregian jaio zan.

(1) Lilluratua = hechizado. (2) Espainiako ondorengotasunaren gudak = la guerra de sucesón española. (3) XlVn Luis “Eguzki” edo “Aundia” esaten eutsoenari = rey Sol, o, el Grande. (4) Austriako (edo Espainiako) Ana = Espainiako IVn Felipe erregearen alaba artean, nagusia izan zana, eta 1.638-1.683ko urte bitartean bizi zana.

Eta 1.715eko urtean Iraillaren lean, Frantziko lurraldean Bersalleseko jauregian il, ia 77 urte euki zituzela eta 72 errege lez.

1.643ko urtean Loraillaren 14´tik, bere eriotzerarte izan zan Nafarroa eta Frantziko errege, baita Andorrako printzekidea.

1.643-1.652ko urte bitartean, eta Katalanaren matxintasunean leikide kondea be izan zan XIIIn Luisen izenagaz.

Berak zabaldu eban frantzezaren eragipena Europa guztitik, iru guda nagusietan erkidego izanda:

-Olandako gudan.

-9 urteko borrokan.

-Eta Espainiako ondorengotasunaren gudan.

XlVn Luisek, Trebetasunaren arloetan egin eban babesa, bere politikazko arlo bat izan zan.







***1701eko urtean Nafarroako IIIna eta Franíziko XIVn Luis "Eguzki Erregeari" Hyacinthe Rigaud´ek egineko margoa, bere billoba Espainiako Vn Feliperentzat, naita margoztutako lauki luze au, Frantzian geratu. Eta XIVn Luisen armaría, ta bere zirriborro edo idazpea.***

Moliere ta Razine idazkariak, Lully soiñugille edo musikariak, edo Rigord margolariak goraldu eben bere zorion eta ospe aundia, baita etxegille ta zizelkari edo kopus langilleak.

Eta XIVn Luisek eroan eban trebetasunezko babes ori, Bau'tar Luis, Le Brun'tar Txarlesek eta Le Nótre'tar Andrek, aundikirotasunean egin eben Bersalleseko Jauretxe ederragaz adirazten da.

1.682ko urtean XlVn Luisek Bersalleseko etxe ortara aldatu ebanean bere gorte ta jaurkintza, Pariseko jauregiaren azpi Joko, ta osasungaitzetik urrundu zan, ortik aurrera bere gortekoak, obeagoko kontrolpean eukinda.

Eta Bersalles izan zan antzoki ederrena, erregearen sakratuzko irudien zabalketak, ospe, andigoi edo ta andi-mandikerien zabaltasunak egiteko.

XlVn Luis izan zan Frantziko erregetzaren edestian ausartuena, eta orokorrezko jaurpidetza bere irudiaren inguruan erdiratuz, agintaritza guztiagaz egin zana, ortik aurrera al osokerizko errege lez gogoratu leikena, eta bere esanetan "Ni naz Laterria (1) ausartzen zana esaten.

Baita bere eriotzean berak esan: "Ni banoa, Laterria baiña, beti egongoda or"(2), eta bere politikazko etsaiak esan eben lez, bere politika arloan eroaten eban al osokerizko jaurkintza adierazteko: "Laterriaren osasun ona, erregearen zorionean biurtzen zalá" ikusten zan lez.

## 1. 21. *XIVn Luisek, euki ebazan izen buruak.*

1.638ko urtean jaio zanean, "Frantziko Leen Semea" lez izendatu eban.

1.638-1.643ko urte bitartean Biennoiseko ondorengoa(3).

1.654ko urtean Bagillaren 7an Deims´eko Eleiz Nagusian, Frantziko errege koroatua.

## 1. 22. *XIVn Luisen aurtsaroa, eta koroatzea.*

1.638ko urtean Iraillaren 5ean Saint-Germain-en Layeko jauregian jaio zan XIVn Luis au, bere aita XIIIn Luis eta ama Austriako Anak, mirari bat lez artu ebena, ogeita iru urtean seme alaba barik egon ziralako.

Orregaitik bateatu eben Dieudonneko izenarekin, "Jaungikuak emondakoa" esan gura dauelako.



***XIVn Luis bere aurtzaroan Frantziko erregetzaren ondorengoa***

Baita "premier fils de France" izendatu eben "Frantziko leen semea" esangura dauana. Jendekuntz askoko etorkizuna euki eban XIVn Luis onek, bere aitite-amona Nafarroako IIIn ta Frantziko IVgarrenengo Enriketik etorkera eukinda, amama Mediziko Mariaren etorkizuna frantzez ta Italiarrak izan zirelako, eta amaren aldeko aiton amonak, espainiko Absburgotarrak izan zirelako Austriako Margarita eta IIIn Feliperen bidetik.

(1)Ni naz Laterria = *L´État, c'est moí* = Yo soy el Estado. (2) Ni banoa, baiña Laterria beti egongoda or = *Je m´envais, mais l'État demeurera toujours.* (3) Biennoiseko Ondorengoa = Delfín de Viennois.

Euskerazaintza

1.640ko urtean, XIIIn Luis eta bere emazte Austriako Anak, bigarren seme bat euki eben, I Feliperen izenagaz ezagutu zana, eta Orleanseko dukea izendatu ebena.

XIIIn Luis bere eriotzaren osterako, eta bere emazte Austriako Ana, espainola izan zan lez, ez eban euki sinismen edo uste aundirik beragaz, Frantzia jaurkitu edo zuzendu egien, ta aolkularitzazko errege ordezko talde bat antolatu eban, bere semearen ordez jaurkitzeko, arik eta semea adiñetara eldu arte, bide batez, Austriako Anaren eragipena be murriztuteko, bere semearen erregezko aurtzotasunean.

1.643ko urtean Loraillaren 14an, XIIIn Luis il zanean, eta bere seme XIVn Luis bost urte bakarrik eukezala erregetzara igon ebanean, Austriako Ana amak, bere senar XIIIn Luisen azken naia apurtu eban, ta erregeak sortu eban erregezko aolkularitza ori ezereztuta, Ana bera geratu zan erregearen ordezko bakar lez.

Austriako Anak, bere erregearen ordegotza laguntzan eroateko, eta frantzeza ez zalako, gortean iñork ikusi gura ez eban, Mazarino Italiar kardinalari deitu eutson, erregearen aurtzaro ori aurrera eroateko.

1.648ko urtean Frantzian, eta ogeitamar urteko guda amaituta, anai arteko guda asi zan, Frondako[1] izenagaz ezagutu zana.

Mazarino kardinalak erregearen al osokeri edo orokorrezko almenak indartzeko, bere aurreko Ritxelieu kardinalak erdiratu edo batzangotzeko politikak eroan ebazan, gorteko zaldun edo aundikien gaiñetik.

1.648ko urtean Mazarinok, Lege-biltzarrezko lanetan egon ziran Zaldun edo Aundiki eta baita izen aundiko eleiztarrak zergapetu gura ebezan.

Eta Lege Biltzarreko agintari orreik, ez eben bakarrik zerga orreik ezereztu, baita Mazarinok agertu ebazan diru kontuko agiriak be erretzeko agindu eben.

Mazarinok, Lege Biltzarreko agintari batzuk atxilotzeko agindua emon eban, Broussel aolkulari bezelakoak, eta Parisen jazarraldi edo mantxintasun gogor bat agertuz, erritar batzuk erregearen jauregian sartuta, erregeagaz egotea eskatu eben.

Erregearen lo gelara eroan ebazanean, eta XIVn Luis ikusi ebenean loak artu edo loaren itzurak egiten egoala, bakean joan ziran andik, ezerezeko eskaera egin barik.

Austriako Anak ikusita, zelako arrizkuan egon ziran eurak Parisen, bere semeak artu eta beren jauregikoakaz batera, iges egin eban Parisetik.

Eta andik denbora gitxi barru, Westfaliako Bakearen ostetik, Frantziko gudalozteari itzi eutsoen XIVn Luis eta gortekoari laguntzen.

1.649ko urtearen Urtarrillan matxinatutakoak inguratu eben Pariseko uria.

Eta Rueliko Bakeagaz amaitu ziran eraso-aldi orreik. Denbora baterako beintzat.

1.650ko urtean lenengo Lege-Biltzarreko Fronda amaitu zanean, printzearen Fronda asi zan.

Berton kidetuta egon ziralako erregearen senide: Orleanseko Gaston, bere alaba Orleanseko Ana Maria Luisa, Borbon Kondetar II Luis, Borbon Kontitar Armando, VIn Franzisko Rotxefoukauld´eko dukea, de La Tour d´Aubergnetar Frederik Maurize, bere anai de La Tour de Aubergne Boillontar Enrike, eta Rohan-Montbazontar Maria.

---

(1) Fronda = 1.648ko urtean Zaldun edo gorteko Andikiak egin eben matxintasun bi, erregearen batzangotasunezko indartzeari, eta geien Mazarino kardinalararen aurka, ipini eutsoezan zergagaitik, lenengoa 1.649ko urtean amaitu zana. Eta bigarrena printzeen borroka deitu zana, eta ezana amaitu 1.659ko urterarte Auñamendiko bakeak ospatu ziran arte.

Baita erregearen zuzentasunezko ondorengoak: Orleanseko IIn Enrike, ta Borbon Bendometar Franzisko egon ziran erregetzaren aurkako matxintasun orreitan, eleizkidunak be, euren ordezkoa eukinda, Paul de Gondi´tar Jean Franzois´egaz.

1.654ko urtean Bagillaren 7an eta printzezko borroka ori, gogorren egon zanean koroatu eben XIVn Luis Frantziko errege, Deims´eko Eleiz Nagusian.

1.659ko urterarte iraun eben printzezko matxintasun oneik, Auñamendiaren Bakeak sinatu arte, eta onen erruagaitik edestilariak esaten dabe, erregearen ama Austriako Anak, euki zituzen bitxiak zaldu bear izan ebazala, euki zituzen semeei jaten emoteko.

XIVn Luisek emendik aurrera, gibel-beldur aundiagaz elikatuko eban bere barnea, gorteko aundikien aurka.

Printzearen asarreagatik, aundikiakaz batera egin zan matxintasun au, eta XIVn Luisek printze oiek menpetu ebazanean, oneik onartu bear izan eben erregetzaren al osokerizko jaurpidetza.

## 1. 23. *Espainolakin guda amaitzea, eta XIVn Luisen jaurpidetza.*

Frantzezak, espainolakin borrokan egon zirala, Ingalaterrak bialdutako gudaloztearen laguntza artu eben frantzezak, Kromwel´tar Oliberrek bideratuta.

Eta 1.658ko urtean Dunaseko lurraldeetan Ingeles frantzezaren gudalozte orreik, espainol gudalozteak menperatu ebazan.

Borroka onen emaitza, Auñamendiaren egiune edo ziñatu zan elkargoagaz amaitu zan Auñamendiak muga lez itzita, espainolak euren aldetik, Beko Errien ta Rosellonen euki ebazan jabetasunetik, lurralde ta Uri batzuk frantzezari emonda.

Ongunde onek, frantzezaren alde ipini eban, Europako leentasunezkoak al izatea, eta XIVn Luis, espainiako IVn Felipe, ta Frantziko Isabelen alabea Absburgotar leiñukoa zan Austriako María Teresarekin ezkondu zanean, espainiako IVn Felipe ta bere emazte Isabel, XIVn Luisen osaba izeko izanda, XIVn Luis eta bere emazte Austriako Maria Teresa, alde bietatik anai-langusuak izanda ezkondu ziran.

1.660ko urtean Bagillaren 9an, Faisai edo Bas-Oillarraren ugartean ospatuko zan ezkontza au.

1.661eko urtean, XIIIn Luisek, 1.634ko urtean Le Roy´ri aginduta, Bersalleseko basaldean eizararen denboretan ibilteko egien Jauregui ederra, begirunez artuta, XIVn Luisek Le Bou´tar Luis etxegilleari, Bersalleseko Jauregui ederra aztea agindu eutson bere inguruan.

1.665eko urtearen Iraillan, XIVn Luisen osaba ta aitagiñarreba izan zan espainiako IVn Felipe il zanean, onen bigarren ezkontzako seme Karlos igongo eban gaztelatarren erregetzazko aulkira, IIn Karlosen izenarekin.

XIVn Luisek, ararte Beko Errialdeetan, Espainiako erregeak jaurpidetzen ebazan Brabanteko lurraldeak eskatu eutsozan IIn Karloseri, XIVn Luisen emazte Maria Teresa, IIn Karlosen ugaz-arreba nagusia zalako.

Eta XIVn Luisek eskaera ori aurrera eroateko, bere adierazpenean: "Brabanteko oiturak, ez ebela onartzen, lenengo ezkontza baten semeen aurka, aitaren bigarren ezkontzako semeak artu egiezan ondorio guztiak, lenengo ezkontzako semeen eskubideak, bigarren ezkontzako semearen aurretik egon zirala" esanda, babestu eban bere arrazoizko eskaera.

1.667ko urtean, eskaera orreik, lurralde orrein itzulkera eskatzen ebelako, borrokan asi ziran, Itzulpeneko Guda deitu zanagaz, XIVn Luis, borroka orren aurrean ibilita.

Eta batzangotuta egon ziran Bealdeko Zazpi errien Errepublikak, euren barnean euki zituzen arazoengaitik, XIVn Luisen onurentzako etorriko ziran ondo baiño obeto.

Beko Zazpi erri batuak orduan euki eben garrantzienetariko politikua De Will´ek, billur zan ia Oranjeko printzea IIIn Gillermok, Zazpi Lurralde Batuen agintaritzagaz jabetuten bazan.

De Witt´ek guzti au bere oldozketako azterkuntzatik au ataraten ebalako: Frantziarekin itsas-guda bat, al eroan eban gauza zala, baiña ez lurraldeko borrokarik, IIIn Guillermo aukeratzen zalako arazo orreitan sartzen, berari, eukan agintaritza osoa kenduz.

Eta De Witt ta IIIn Gillermoren arteko eztabaida orreikaz, batera, Ingeles ta Olandarrak eraso gogorrean ibilita, XIVn Luisek, ez eban arazorik euki, Flandes ta Kondado Frankoa menperatzen.

1.668ko urtean batzangotutako Zazpi Errialdeak Frantziko garaipen azkarragaitik txundituta, Ingalaterra eta Sueziagaz alkartu ziran, irukote indartsu bat lortuta.

Eta XlVn Luisek ikusita, borroka orreik aundiak zirala, Akisgraneko elkargoa siñatu eban, Frantzia, Flandesegaz geratuta eta Kondado Frankoa espainolari itzulita.

Irukote orren alkartasuna ez eben iraungo luzaro.

1.670eko urtean, Ingalaterrako IIn Karlos izkutuan, frantzezagaitik koipatuz, Dober´eko alkargoa siñatu eban, frantzezaren kide biurtuta.

Eta 1.672ko urtean Ingelesak eta Frantzezak alkar, guda agertu eutsoen batutako Zazpi Lurraldekoai.

Frantzezak eta Ingelesak, batutako Zazpi lurraldetan egin eben sarraldi azkarra ta gogorragaz, ia lurralde guztiagaz geratu ziran, Amsterdanegaz izan ezik, eta De Witt´en aurkako matxintasuna sortu zanakin, Oranjeko IIIn Guillermo aukeratu zan, agintaritza orregaz jabetzeko.

1.672ko urtean Oranjeko IIIn Guillermo, Espaina ta Alemaniako Kaisar Sakratuagaz alkartu zan.

Eta 1.674ko urte bi geroago IIIn Gillermok, Ingalaterrakin sinatu eban bakeagaz, Ingelesak beartu ebazan Beko Errialdetatik urtetan, Oranjeko IIIn Guillermo, Ingalaterrako IIn Karlosen loba au, IIn Mariagaz ezkonduta.

1.678ko urtean ata guzti, eta diplomazi arloetan, trebetasunezko izketaldi ugariak egon arren, gudan iraun eben frantzezaren garaipen aundiekin, alkarteko gudaloztearen aurka, eta nazio orreik nekatuta ainbeste borrokarekin, bake billa asita, Nimegako bakeagaz amaitu ziran eztabaida orreik.

Elkargo onetan, naita olandarrai kendutako lur guztiak ostera emonda, XIVn Luisek, uri geiago menperatu ebazan, Kondado Frankoa bere agindupean artuta, aste gitxiko eraso baten lortu ebana.

Nimegako egiunezko antolamendu onek Europan, frantzezaren eragipena aundiagotu eban, eta ata guzti, ez ziran XIVn Luisen gogoak bete.

1.679ko urtean XIVn Luisek, Ponponetar Arnauld Simon kendu eban atzerritar jaurkintzatik, erregeak uste ebalako lar sartuta egoala alkartearen kideekin.

E

XIVn Luisek bide batez, eta naita bere gudalozteak indartzen joan arren, epaiketazko bidetik ibili zan ia lurraldeen eskaera guztietan.

Orduko denboratan egiten ziran itun edo elkargoko bidetik idazkera orreik, bada ezbadakoak edo zalantzazkoak ziralako, XIVn Luisek lortu eban, ariñauko alkargoetan berari emon eutsoezan lurraldeak, eurak euki ebazan menpekotasunakaz eta eurei legez lotuta egon ziran lurraldeakaz, zentzuz siñatuta emotea.

Lurralde onen eraspenak(1) XIVn Luisen eskuetan euki eben zentzua, frantzezak euki ebazan lurraldearen mugak, aitorgarri edo babesgarriagoak egitea zan.

Eta Estrasburgoko uria, gudu-antzeko tokia zalako be, berentzat gura eban.

Westfaliako Bakean XIIIn Luiseri, ez eutsen emon gura Alsazian kokatuta egoan Estrasburgoko lurralde ori.

1.681eko urtean XIVn Luisek bereganatuko eban, legezko aitzakiak erabilita.

## 1. 24. *1.680ko amarkadan Europan, Frantziaren nagusitasuna.*



***XIVn Luisek egin eban Bersalleseko jauretxea.***

1.680ko urtearen amarkadan, Europako lurraldean ta XIVn Luisen aginpean, Frantziak artuko eban eragipenezko indarra, aundia izan zan.

XIVn Luisek diruaren egipiderako arduran ipini eban, 1.683ko urtea il egingo zan Kolbert´tar Jean Baptistek, arrigarrizko aldaketa egin eutson, Frantziko erregearen diru altxortasunari, erregetzazko diru sarrerak, irukoiztu ebazanean.

Frantziaren aurrerakuntza ori ikusita, Europako printze guztiak asi ziran antzeratzen euren jaurkintzazko arlo guztiak.

Frantzezak emendik aurrera, atzerritarrezko lurretan asiko ziran erri-irasten, erritzen edo ta kolonizaziozko lenetan, Amerika, Afrika, eta Asiako lurraldeetan.

Ortik aurrera diplomazizko arloetan, trebetasunezko itzarmenakin asiko ziran, Siam ta Persiako arduradunakaz.

1.682ko urtean adibidez, de La Salleko Kabelier´tar Rene Robert´ek, Frantzirentzako eskatuko eban Misisipi ibaiaren Ibarra, Luisianaren izena ipinita XIVn Luisen omenez.

Josu Lagunak be, euren eragipena eukinda, Txinaren Mantxuko gortean.

XlVn Luisek, beren Europako buruzagitasuna sendotzeko alegiñean, ***galikanismoa***(2) indartu eban, Frantzian, Aita Santuak euki eban eragipena murrizteko.

(1) Eraspenak = anexiones de tierras. (2) Oalikanismo, galikanona = Perteneciente a las Galias, perteneciente o relativo a la iglesia de Francia, y a su especial liturgia y disciplina. ***Galikado*** = dicese, del lenguaje en que se advierte la influencia de la lengua francesa.

XIVn Luisek bide batez, erriko apaiz-lekaideak eta zaldun edo aundikiak, izatezko eragipenetik euki ebezan almenak murriztu gura ebazan, eta Frondako[1] matxintasun edo jazarraldiekin ikasitakoakaz aurrera eginda, bere al osokeriaren nagusitasuna indartzeko uste eban, gorteko jaurkintzaren lan postuetan, errixume edo be maillako gizonak ipinita, lortuta eukela, bear ez ebazanean, eurak botateagaz eginda eukelako.

Eta euren gaiñean edo begipean bere kontrola eukiteko, Bersallesen batu ebazan geienak, baita bide batez euren lurraldeetako bakardadean, asmatzen ebazan jasargo edo ta matxintasunak ezereztuteko.

XIVn Luisek, apaiz ta aundikien eragipen orreik murrizteko, Ritxelieu ta Mazarinok, euren maltzurrerizko lan-jokuan ibili eben erabagizko ekintzakin iraungo eban.

Eta ekintza oneikaz erreztuko jakon XIVn Luiseri, Bersallesen batzangotzeko alegiñ ori, eleiztar eta zaldun edo aundikien norberkeriak bere inguruan eukinda, ondo biziz gaiñ, gogotu ebazalako, erregearen mezedeak lortzen, errezagoaren gozoki ori ipini eutsenean.

Ekintza onegaz XIVn Luisek, matxintasunak eta Fronda bezelako borrokakaz amaitu ebazala uste eban, eta alan sortu zan. Jazarrezko indar orreik ixiltasunezko bidetik indarra artzen joanda, 1.789ko urtean Frantziko iraultzagaz eta Napoleonen aldian agertuta.

1.682ko urtean Loraillaren 6an aldatu eban XIVn Luisek, bere gorte guztia, Bersalleseko jauretxera.

Arrazoi asko euki ebazan XIVn Luisek, Bersalleseko Jauretxea bere gorte edo Jaurlaritzan biurtzeko.

Batzuk esaten dabe, gorrotoan euki ebala París, eta ez da egia ori, Pariseko uria, beti joan zalako zabaltzen eta obetzen.

Bersallezeko Jauretxe eder orren zeregiñean eta, an ikusten eben edertasunagaz XIVn Luisek, beti ibili eban atzerritar erregeen ordezko eta erregeak zirrarazteko[2], bai ta batera, bere gorteko aundikiak bere inguruan lotuta, kontrolpean eukiteko.

## 1. 25. *Frantziko Lurraldearen batzangotasuna*[3]*, eta galikanismoa.*

1.681eko urtean XIVn Luisek ipini eban martxan ***dragonadas*** deitu ziran eritziak, erlijio guztikoak, katolikotasunera itzuli zitezen.

Eta agiri orrek, argi ta garbi esan arren, Ugonotearen erbezteratzea ez ebala aginduten, kaisar sakratu orretatik isilean, ia 200.000 iges egin eben Ingalaterra, Batzagotutako Lurraldeetara, eta Ipar-Ameriketara. Luisek euki eban gudal nagusi begikoenak be gaitzetsi[4] ebana, erabagi ori diru arloetan, ainbat kalte egin ebalako.

1.681eko urtearen Azillan XIVn Luisek, Frantziko eleiza bere kontrolpean eukiteko erri ta araupeko apaiz lekaideak batu ebazan Klerjeko[5] biltzarrean.

Eta 1.682ko urtearen Bagillan, bere amaieran, batzarkideak onartu eben apaiz frantzezak adieraztu ebena[6] biltzar orretan, Aita Santuak Luisen baimena bear izanda biltzar orreitara joateko, ariñauko batzarretara ez ebalako iñor bialdu.

Eginkizun onegaz, aundiagotu egin zan erregearen almena, eta gutxitu Aita Santuarena, ortik aurrera:

(1) Fronda = nombre de dos insurrecciones en contra del poder de la korona. La primera en el año 1.648, y la segunda en el año 1.649. (2) Zirrarazteko = emocionar, deslumhrar, impresionar. (3) Batzangotzagotzeko edo erritartzeko, naita emendik oraindiño urriñ egon arren. Convertir la tierra bajo sus dominios en nación. (4) Gaitzetsi ebana = odiar, reprobar, censurar. (5) Klerjeko biltzarrean = Assemblée du Clergé. (6) Apaiz Frantzezaren Adieraztea = Declaración del Clero Francés.

Aita Santuak, ezin ebazalako bialdu beren ordezkorik, Luisen baimenik bage.

Aita Santuaren ordezko orreik, Frantziko lurraldean sartzeko, Luisen baimena bear izan ebelako, Luisek bere kontrolpean ipinita ordezko auek ekarten ebezan zeregiñak.

Gotzaiak be, ez eben aukerarik euki Frantziko lurraldeak izteko, ez ba eben euki Luisen baimenik. Frantziko gortetik bialdutako ordezkariak, eleizak ezin eben eskomunikatu. Eta Frantziko lurraldetik iñork ez eban aukerarik euki Aita Santuarengana joateko, Luisen baimenik bage.

XIVn Luisek orregaitik, eleizako legeak sortarazi ta aldarrikatzeko almen osoa artu eban, eta ezereztu egiten ebazan, bere baimenik bage, Aita Santuak bialtzen ebazan aginduak. Aita Santuak, ez ebana ontzat artu.

## 1. 26. *Nanteseko legearen ezereztatzea, eta erlijioaren bateratzea.*

1.683ko urtean il zan Maria Teresa, XIVn Luis erregearen emaztea.



***Maintenon ´tar Madame, XIVn Luisen bigarren emaztea.***

Eta 1.660ko urtean ezkondu ziranetik Luisek, ez eutson Maria Teresari leialtasunik euki, maitale asko euki ebazalako, adibidez:

-Ballieretar Luisa.

-Rotxetxouart de Mortemart ta Athnaïseko Frankoise.

-Montespaneko Madame.

-Eta Fontanjeskotar Maria Anjelika.

Bere bigarren emazte Maitenontar Madameri, begirun geiagoan euki eban.

1.685eko urte azkenean ospakatuko zan ezkontz morganatiko(1) ori, XIVn Luis eta Maitenontar Madame artean.

Edestilari batzuk, Maintenontar Madame au len ukalaritasunetik katolikotasunera aldatutako emakumea zala esaten eben, eta ukalarien aurkako jarraiketan ibilita, bera izan zala XIVn Luiseri esan eutsona, Nanteseko legea kenduta, Ugonoteari(2), euki ebezan askatasunak kendu eutsozala.

---

(1) Ezkontz morganatikoa = Erregea, bera baiño mailla beragokoagaz ezkontzen danean sortzen da ezkontz morganatiko au, eta ez da Frantzezak sortu ebena, Alemaniatik etorria baizik, onen artean olan ezkotzen ziranean, eukiten ebazan seme-alabak, auek ez ebelako eukiten erregetzaren ondorengotasunik. Ezkontza au, ezker eskumakoa be deitzen zan, ezkontzerakoan esku ezkerrakaz ebatuta egiten zalako. (2) Ugonoteak = miembros de la iglesia protestante Reformada.

Euskerazaintza

Eta gaurko edestilariak, Europa guztiaren erabagia izanda, XIVn Luisen erabagia zala esan, beren eritziz Frantziaren aberritasuna lortzeko, katoliko edo ukalarizko erlijioagaz bat eginda izan bear zala, ados egoalako.

Ata guzti, Jaungoikuak ezarri euskuzan berezko legearen aurka, 325eko urtean Nizeako batzarrean ezin dan lortu erabagia artu zanetik, Europa ta Mundu osoa kaisar sakratuzko katolikotasunean aberkidetzeko galtzen joanda, sarri gogoratu egin bear zan ziñezkintza zan, eta 1.555eko urtean Aujsburgoko bakean ezarri zan ostera ***"Cuius regio, eius religio"*** erabagia, Europa guztia katolikotasunezko erlijioan aberritura ezarri bear zala gogoratzeko.

Idazt onen ariñautik, Ugonotearen aurka, etenbageko jarraikeri zital eta gogorretan ibilita egon ziran, Europa ta Munduko edesti guztian lez, eziñezko ziñezkintza orreik ezartzeko.

1.681eko urtetik asita, dragonadas´eko era edo bidetik ezarri ziran katolikotasunera aldatzeko agindu gogorrak.

Eta agindu orrek debekatzen ba eban, ugonoteak Frantzitik alde egien, ia 200.000 alde egin eben Ingalaterrara, Batutako Luraldeetara, Kaisar Sakratuaren lurraldera eta Ipar Ameriketara.

Eginkizun onek, Frantzia eta Frantziko erri-onaurkirako guztiz txarra izan zan, XIVn Luisek, bere Bauban gudal nagusia kaleratuta, legezko neurri orreik gaitzetsi´tu ebazalako.

1.683ko urtean, Frantziko kaisertzaren etsai aundiena izan zan Erroma Jermaniko Kaisar Sakratua, ezereztuta geratu zan, Otomanoen kaisertzagaitik austro-turkoen guda edo borroka nagusian, Otomanoen mimistru edo Bisir´ak, ia Biena artu arte.

Asken unetan baiño Sobieskitar IIIn Juan(1), Polako, Aleman ta Austriakoen gudalozte aundiagaz geratu ebazan Bienako borrokan, ia Austriako ego-ekialde ta Ungriako mendebal artean dauan Raba edo Raab´eko ibairaño bialduta.

Ekintza onek Sobieskitar IIIn Juaneri, Kristautasunezko Antzezlari Nagusien izenagaz izendatzea balio eutson Aita Santuaren aldetik.

Onen bitartean Frantziko XIVn Luisek, Ratisbonako gudaren etenagaz, Luxenburgoko lurraldeagaz batera, beste lurralde batzuekaz be geratu zan.

Eta Poloniako errege ta Jermanoen kaisertza Sakratuaren kaisar Sobieskitar IIIn Juanek, Otomanoen erasoa gelditu ondoren, ez zan arduratu geiago, Frantziko XIVn Luisek kendu eutsoezan lurraldeagaitik.

1.685eko urtean XIVn Luisen jaurkintza, bere goretsigarrienean egon zan.

1.685eko urtearen Epaillan zabaldu eban XIVn Luisek agiri bat, juduak botateko Frantziaren kolonizaziozko errietatik. Baita erlijio ezberdiñen debekua, katolikoena izan ezik.

1.685eko urtearen Urrillan, XIVn Luisek, Fontainebleau´ko agindua argitaratu eban, Nanteseko aginduaren ordez, bere ustez eta aitzakiz, ukalarien erlijioa Frantzian, ia aienatuta egoalako, eta orregaitik, ez ebalako bear iñungo legeen berezitasunik.

Luisek Katolikotasunezko erabagi onegaz agindu ebana, ukalarien edozein apaiz atrapatzeko izan zan, auek katolikotasunera ez ba ziran biurtzen, adibidez: erbezteratzeko aginduagaz; ukalarien erakunde ta eskolak debekatuz; ukalari sendien seme alabak, katolikotasunezko apaiz baten bidez bataiatzea; ta gurtzeko euki ebazan eleizak botateagaz.

---

(1) Poloniako errege ta Jermanoen Kaisertza Sakratuaren kaiserra Sibieskitar IIIn Juan = 1.624-1.696ko urte bitartean bizi zana. Eta errege lez, 1.674-1.696ko urte bitartean.

E

Agindu orrek, debekatu egiten ebazan beste erlijioren kaleratasuna, katolikuen erlijioarena izan ezik, baiña ez eben beartzen, beragan sinistea.

## 1. 27. *Aujsburgotarren Biltzar edo Alkartasuna. Aujsburgoko elkartasuna.*

Nanteseko aginaren ezereztuteak, ondore aundiak sortu ebazan diplomazian eta batez be politikazko zeregiñetan, ukalarien artean, frantzezaren aurkako zurmurru aundi bat sortzen joan zana.

1.686ko urtean eta Rin´eko lurraldeak babestekoen erabagiagaz, katoliko eta ukalarien zuzendari artean, Aujsburgotarren Alkartasuna sortu eben, Frantziari erasotzeko.

Alkartasun au, Jermano Kaisertzaren kaiserra eta Alemaniako Laterrien jaurlari batzuekin osotzen zan, batez be Palatinado, Babiera eta Brandeburgokoak. Baita Laterri Batutakoak, espainitar eta Suezia be batu ziran alkarte orreitan.

1.688ko urtean XIVn Luisek, Jermaniar Printzeak Ratisbonako gudaren etena ez ebelako lots edo begimnez artzen, eta bere koñata Orleanseko dukesa Txarlottetar Elizabetek egin ebazan Palatinadoko lurraldearen eskaerari be ez eutselako jaramonik egiten, bere gudalozteak bialdu ebazan.

Ata guzti, XIVn Luisek eraso erregaz, ez eban besterik gura Jermaniar printze orrei bildurra sartzea baiño besterik(1), eta guztiz ezereztu ez arren, lortu eban zati baten beintzak, makaltzea.

Frantziaren aurkako ekintza oneik, geiago alkartu ebazan Jermano-Kaisertzagaz Erri Batuetako Printze orreik.

XIVn Luisek ekintza onekaz, uste eban Ingalaterrako IIn Jacobo erregea bere katolikosunagaz, alderdi-bagean agertuko zala.

Ingalaterrako Matxintasun Ospagarriak baiña, IIn Jakoboren erregetzagaz amaitu eban, eta Ingalaterrako erregetzazko aulkian, bere alaba IIn Maria ipini eban, Oranjeko Printzea zan IIIn Gillermorekin zuzendu egien Ingalaterrako erregetza.

Eta XIVn Luis ta IIIn Gillermoren artean, Olandako gudaren ostean agertu jakien ikus-eziñagaitik, IIIn Gillermok, Beko zazpi Erri alde ta Erroma Jermanikoak euki eben Alkarteagaz batu zan, ortik aurrera, Alkarte Aundiaren izenagaz ezagutuko zana.

1.688-1.697ko urte bitartean egin ziran borroka onei, Bederatzi Urteko Borrokak deituko jakien, eta naita danak asko galduarren, frantzezak lortu ebezan garaipen geienak.

Germaniar kaisertzaren gudalozteak makal agertu ziran, batez be indar geienak, Otomano kaisertzaren aurka ibili ziralako.

Eta Jermanoen Kaisar gudalozteak geien, Otomano Kaisertzaren aurka ibili ziralako, Frantziak aukera oni esker, bereala lortu ebazan garaipen aundiak iparraldeko Flandesetik asita, Italiaren ekialdean egon zan Rineko ibarrerarte, espainiako lurraldeak ego aldean ebazala.

XIVn Luis, Ingalaterrako IIn Jakobori saiatu zan laguntzen Britaniako erregetza berrezkuratu egien. Estuardo onek baiña, ez eban euki aukerarik.

(1) XIVn Luisek ekintza orregaz, berari Ratisbonako guda-etenean emon eutsoezan lurraldeak bere eskuetan geratu zitezen.

Laguntza onek aukeratu ebena baiña, Ingalaterrako IIIn Gillermoren gudalozteak indar geiagokin sartzea zan, Europak euki eban guda nagusi onetan.

Ata guzti, eta ikusita Jermano kaisertzazko indarrak aundiak zirala, Frantzezak garaipen aundiak lortu ebazan:

-1.690eko urtean, Frantziko itsasontziak, Beatxy Head´eko itsas-gudan.

-1.691eko urtean eta XIVn Luis bera egon zala borroka au bideratzen, Frantziko gudalozteak Beljikako lurraldean Monseko uria menpetu ebanean.

-1.692ko urtean frantzezak, ordurarte Beljikako lurraldeetan, menpetu ezin zan Namur´eko gaztelua artu ebanean.

-1.692ko urtean, Olanda ta Ingalaterrako itsas gudalozteak, Frantziko gudalozteari irabazi eutsoen La Hoge´ko itsas borrokan.

-1.692ko urtean XIVn Luisen gudalozteak, Fleurus ta Steenkerkeko gudatan garaipendu ziralako.

-Eta Baita 1.693ko Uztaillaren 27an, Neerwinden´eko borrokan.

1.696ko urtean lau urte beranduago, bake une bat sinatu eban Saboyako dukeak frantzezakin alkartuz, eta ekintza orregaz Frantziko gudalozteak indartuta, Milan eta Bartzelona menperatu ebazan.

1.697ko urtean amaitu zan bederatzi urteko borroka, Ryswikk´en[1] egin zan egiuneagaz.

1.679ko gudakaz XIVn Luisek, Luxenburgo ta beste lurralde batzuk itzuli ebazan, bera Estrasburgogaz geratuz.

XIVn Luisek, artu eban de ***jure***[2], ararte de ***fakto***[3] euki eban Aiti´n jabetasuna, Ponditxerry[4] ta Akadia´ren[5] lurraldeak itzulita.

XIVn Luisek beste aldetik, IIn Maria eta Oranjeko IIIn Gillermo Ingalaterrako ta Irlandako erregeak lez artu bear ebazan ontzat, auek ziñez itz emonda, eurak sekula be, ez eutsoela lagunduko IIn Jacobori. XIVn Luisek, Palatinadogaitik egiten ebazan eskaerak berton itzita.

Espainitarrek, bederatzi urteko borrokatan ta Bealdeko Erriaren ariñauko borroketan galdu ebazan Kataluña ta beste lurraldeak berrezkuratu ebazan.

XIVn Luisek, Lorena be itzuli eutson bere jabetasunezko dukeari, lurralde orretatik frantzezak, aske ibilteko baldintzagaz.

Elkarte orretan egin ziran uzte edo biotz oneko utziera orreik, espainiako lurraldeetan frantzez aldeko sendimendua bat sortzeko egin zan, espainiako IIn Karlos erregeak, XIVn Luisen billoba zan Felipe Anjouko dukea, bere ondorengo lez izendatu egian, espainitarren errege izateko.

---

(1) Ryswkk = Ryswick, edo Rijswijk. Olandako Ego edo Erdiko lurraldetan dauan Uria, La Haya Uri nagusiaren inguruan erri txiki bat dana, Nieuwburj´eko gaztelu ondoan dauana eta 1.697ko urtean, Ingalaterra, Frantzia, Olanda, Alemania eta espainitarren artean, sinatu zan eikargoaren erria. (2) Latiñezko de jure, iure edo yure = latiñezko ius itzatik datorrena da, eta eskubidea esangura dauana. (3) Factom desus = el hecho en contraste con lo dicho o con lo pensado. Latiñezko factun itzatik datorrena = el hecho, en contraste con lo dicho o lo pensado. Desus = de negocio, provecho. De F. loc. Adv. Lat. De hecho, en oposición a de jure. (4) Ponditxerry = Pondichéry o Ponditcherry. Indiako Ego-Ekialdearen lurraldeetan, 1.674ko urtean Frantziko errege XIVn Luisek irasi, kolonizatu, edo erritu eben Uria. Koromandel´eko itsas-ertzean Frantziak euki ebazan beste jabetasunekaz: Pondichéry, Kanon, Karikal eta Mahé, 1.954ko urtean Indiari itzulu eutzenakaz, 1,964ko urtean, lurralde orren Uri nagusi lez irasi ebena. (5) Akadia =Acadia. Frantzesak, Kanadako lurraldeetan euki ebazan jabetasunak.

## 1. 28. *Espainitar artean, erregetzaren ondoretasunagaitik sortu zan guda.*

IIn Karlos Lilluratua oso gaiso egon zanean, sortu ziran ondorenbageko zalantza orreik.

Eta Ryswik´eko bakearen ostean, espainitarren erregezko ondorengotasunaren arazo orreikaz jabetu zan Europa osoa, garrantzi aundiko gauza lez.

Espainitarren ondare orreik aundiak izan ziralako, IIn Karlos, ez zan espainitarren erregea bakarrik, Napoles, Sizilia, Milan, espainitar Beko Erri aldeak, eta kolonizaziozko kaisar aundi batena baiño. Guztiz, ogeitabi jabetasun ezberdiñekoa zana, eta Europako erregeentzat altxor ori izan zan tentalari, danok orren atzean ibili zitezen.

Frantzia eta Austria izan ziran ondorengotasun orren leenak, senidetasun aundiak euki ebazalako.

Anjouko dukea, gero Vn Felipe izango zana alde batetik, IIIn Felipeen alaba, Austriako Anaren bigarren illobasoa(1) zan, eta espainiako IVn Felipeen alaba Austriako Maria Teresaren billoba. Vn Felipe onek euki eban arazo aundiena espainiako errege aulkian ezartzeko, Frantziko erregetzaren ondorengotasunari uko egin bear eutsola izanda.

Errege izateko baldintza orrek Maria Teresaren aldetik, indarbage geratu ziran, espainitarrak ez ebazalako egiune orren baldintzak bete.

Beste aldetik, I Leopoldo Jermaniako Kaisar Sakratuaren kaiserra eta bere irugarren emazte, Palatinadoko Leonor, IIIn Felipeen alaba txikerra izan zanak, aitite ta amamaren bidetik, euren billoba Austriako Karlos artxidukearentzat eskatzen eben espainiko errege aulki ori, gero, Alemaniako kaiserra izango zan IIIn Karlosen izenarekin.

Bietatik, lenengoa izan zan ondorengo maillan eskubide geiago euki ebazanak, IIIn Felipeen alaba neusienetatik etorten zalako.

Frantzia eta Austriako ondore bi onen gaitik, Europa osoa agertu zan dardarikatuta, espaniako erregetza Frantzia edo ta Jermaniako kaisar sakratuaren eskuetan jausi ezkero, Europako erregeen almeneko orekatasun guztiak, apurtzen ziralako.

Orregaitik, Ingalaterra ta Irlandako errege IIIn Gillermok, beste erregeen bat gura izan eben espainitarren erregetzarako, Babierako Jose Fernando aurkeztuta, Ungriako Jermain kaisar Sakratuaren kaiserra I Leopoldo ta bere emazte, IVn Felipe Espainiako erregeen alaba txikerra Espainiako Margarita Teresaren semea zana.

1.698ko urtean ta bederatzi urteko gudartean oraindiño egon zirala, Lenengo Elkarteen Banaketa deituko zanagaz La Ayan, Ingalaterra eta Frantziak sinatuko eben Jose Fernando espainitarren errege egiteko, Italiako lurraldearen jabetasunagaz batera. Ekintza orregaz, Alemaniaren elkartasun ori galerazi edo alderatuz, Beko Lurraldeak, Austria ta Frantziako erregeen artean banatzeko.

Espainitar erregearen leiñukoai, ez eutsoen galdetu eurak zer gura eben, eta guztiz aurka ipini ziran antolamendu orrekin, espainitar kaisertza aundi ori, ez ebelako zatitu gura.

Eta IIn Karlosen belarrietara eldu zanean surmur ori, onek, Jose Fernando aukeratu eban bere ondorengo bakar lez, dan guztia bere izenean ipinita.

Sei illabete beranduago agertuko zan benetako arazoa, Jose Fernando, baztanga edo nabarreriagaz(2) il zanean.

---

(1) Bigarren illobaso = bisnieto. (2) Baztanga edo nabarreriagaz il zanean = cuando murió afectado de viruela.

Espainiako gortekoak, ez eben gura espainitar kaisertza aundi ori banandu, jabetza osoa esku baten gura ebalako.

Erabagi orrek baiña, Frantzia edo ta Austritarren eskuetan izten eban espainiako erregetza.

Eta IIn Karlosek bere Aleman emazteagaitik zirikatuta, Austriako Karlos artxidukearen eskuetan itzi gura eban.

Frantziko XIVn Luis eta Ingalaterra ta Irlandako errege IIIn Gillermok jakin barik, IIn Karlosek zelako aukerea artuko eban, bigarren elkargo bat sinatuko eben, Alemaniako artxidukeari, espainia, Beko erriak ta kolonizatuko lurraldearen jabetasunagaz izten ebana, eta XIVn Luisen seme ondorengo Luiseri, Italiako lurraldeen jabe, geroago Lorena ta Saboyakin egingo ziran aldaketari begira.

1.700eko urtean eta IIn Karlos bere biziko azkenetan egoala, inoren ustekabean, bere azken naiak aldatu ebazan.

Ryswikk´eko elkarte bidez, espainolaren iritxia, frantziren alde geratzen zan, eta IIn Karlos bere ekintzazko bidetik jakin ebalako zelango guda indarra euki eben frantzezak, Frantzi aldera jokatu eban, espainitar kaisertza aundi ori batuta iraun egian.

Eta Espainiko erregearen ondorengotasun guzti ori, XIVn Luisen ondorengo seme nagusiaren, Anjouko duke Felipe seme txikerrenaren eskuetan itxi eban IIn Karlosek, XIVn Luisen aldetik, Frantziko erregetzari uko egiten ba eutsan.

Zalantza audiak sortu ziran erabagi onen bidez, XIVn Luis eta IIIn Gillermok euki ebazan leialtasunezko elkargoak aizearen naikeri izten ebazalako, eta XIVn Luisek, jakinda gudako arazoetatik aldendutzea gatx zala, IIn Karlosek egin eban eskeitzagaz geratu zan.

Eta orrela, 1.700eko urtean Azillaren 1ean Espainiako errege IIn Karlos il zanean, Anjouko duke Vn Felipe izendatu eben espainitarren errege.

XIVn Luisen aurkariak, zalantza askorekin onartu eben Vn Felipe, espainitarren erregea izan zedin.

Eta 1.701eko urtean bere erregetzazko sarreran Vn Felipe onek, kokoteraiño sartuko eban ankea, Ingelesen itsas-salerosketarako aurkakoa zan, espainolaren kolonietarako giza-baltzaren ezarleku baimena(1), frantzezari emon eutsoenean.

XIVn Luisek gaiñera, IIn Jacobo il zanean, Oranjeko IIIn Gillermoren erregetza ukatu eban bere erregezko eskubidean, onen seme Estuardotar Jacobo Frantzizko(2) onartuta, Ingalaterra ta Irlandako erregetzaren jabetzarako.

XIVn Luisek, Vn Feliperi bere leialtasuna baieztearren, bere gudalozteak bialdu ebazan, espainitarrak Bealdeko Errietan euki ebazan jabetasunetara, ararte, Olandarrak egon ziran Lurralde Batuetako gazteluak frantzez erasotatik babesten, kentzeko, eta bide batez XIVn Luisen billoba Vn Felipeen jabetasuna onartu egien, ango lurraldeko gazteluak indartuz.

XIVn Luisen ekintza onen ondorioz, Ingalaterra, Lurralde Batuak, Erromako Jermanitar Kaisar Sakratua, ta Jermanikotarren laterri geienakin elkarte aundi bat osotu eben. Babiera, Portugal eta Saboya, XIVn Luis eta bere billoba Vn Felipeen alde geratuta.

(1) Kolonietarako giza-baltzaren ezarlekua = Asiento de negros = Tratado de Asiento, por el cual España concedía a otro pais llamado ASENTISTA, el monopolio de la introducción de esclavos en América; en 1.601 se concedió a los portugueses, en 1.650 a los holandeses; y tras de algunas alternativas, a los franceses en la guerra de sucesión española, y a los ingleses a partir de 1.713. (2) Estuardotar Jacobo Franzizko = “Ondorengo Zarrena” esaten eutsoenai.

E

Espainitarren ondorengo guda onek, ia XIVn Luisen bizi askeneraiño iraungo eban. Frantzezak garaipen batzuk lortu ebezan, Biena ia arrapau arte.

1.704ko urtean Dagonillaren 13an baiña, Blenheimeko borrokan, Marlboroujh ta Saboyako Eujeniok, XIVn Luisen gudalozteak menperatu ondoren, ta baita XIVn Luis Ramillies ta Oudenarde borroketatik txarto urtenda, Frantzian sartu zan gosea edo sabel zorriekin, ta baita diru arloetan zorren ezin ordainduakaz, XIVn Luisek erasoen aukeretatik alde eginda, eusteko aukeretara aldatu zan.

Blenhein´eko borrokaren bidez Alkartekoak, Babiera menperatu eban ta Frantziagaz egon ziran Portugal eta Saboyakoak, elkartekoen aldera aldatu ziran.

1.709ko urte inguruan borroka oneik garestiak izanez gaiñ XIVn Luisentzat, eta euki ebazan gudalozteak be, guztiz nekatuta eukinda, Luisek, bakeagaitik arduratzen zan. Bakerako egin ebazan antolaketa guztiak baiña, alkartekoak asko eskatzen ebalako, ezerezean geratu ziran.

Eta gero ta argiago geratu zan, XIVn Luisek, ezin ebazala bere eragipeneko inguruan euki, espainol lurralde guztiak.

Argiago geratzen zan baiña, Almansa ta Billabiziosako borroka ostetik, Vn Felipe bere illobari, Elkartekoak ezin eutsola kendu espainitarren erregetza.

Boutxaineko menpekotasunagaz, frantzezaren egoera gaiztotu zan, Marlborough´tar John Txurtxill ingeles dukeari(1), Pariseraiñoko bideak zabalik itxita.

1.71 lko urtean baiña, ilda egoan I Leopoldo Alemaniaren Erroma Jermaniko kaiserra ta Ungriako erregearen semea I Jose il zanean, Alemaniako Karlos artxidukeari, Vn Karlosek euki eban kaisertza aundiaren beste izten eutson, Alemaniako kaisar sakratu ta Espainiako kaisertzaren ondorengotasunagaz.

Kaisertza ori, arazo aundiko biurtu leiken gauza izan zan Ingeles ta espainitarrentzat, Frantzez eragipenaren aurrean.

Eta goraberako zertzelada orreik, Frantzia eta Bretaña Aundiari beartu eutsoen, alde bakarreko antolak egitera, Utretxt´eko bakeagaz amaituz.

1.714ko urtean eta Baden´eko egiunekin elduko zan bakea Alemaniako kaisertzagaz, baldintza oneik sinatu ondoren:

-Vn Felipe, Espaniako ta Espainiak euki zituzen koloniakin, errege lez geratzea.

-Espainiak, Italia eta Beko Errietan menpetuta euki zituzen erri ta lurraldeak, Austria ta Saboyakoen artean bananduta geratzea.

-Jibraltar ta Menorkako ugartea, Ingeles eskuetara aldatzea.

-XIVn Luisek, Estuardotar Jakobo Franzizko Ingalaterrako erregetzaren "Betiko Ondorengo Zarrari" emoten eutson laguntza Ingelesaren erregetzagaz jabetzeko, aurrera begira, laguntzarik ez emoteko baldintzakaz ertsi edo itxi zan egiune au.

Eta Frantziak, Ameriketan euki zituzen koloni batzuk Ingelesari emo bear izan arren, gudan galdu ebazan Europako lurraldeak ostera itzuli eutsoezan beste lurralde batzukaz, Oranjeko printzerriagaz bezela.

(1) Marlborough´tar Jonh Txurtxill ingeles dukea ta gudal nagusia = Musbury´n 1.650 urtean jaioa, eta 1.722ko urtean Kraubourne´n il zana, eta Espaniaren ondorengotasunezko borrokatan, 1.704ko urtean Blenheineko borrokan; 1.706ko urtean Ramillies; 1.708ko urtean Oudenarde; eta 1.709ko urtean Malplaket´eko borrokatan, garaipen aundiak lortutako gizona zana. Frantzez gudariak, beti gogoratzen eben bere izena "Borrokara joan zan Manbruren abestia abestuten ebenean.

Eta orrela eldu zan XIVn Luis bere erregetzaren azkeneko egunetara, gainberan sartu zana, bai jaurpidetzazko artekaritzan, kolinien jaurpidetzan eta Europako nagusitasunean.

## 1. 29. *XIVn Luisek, zazpi amarkadaren erregetza amaituz, beren eriotzea.*

Gertakizun guzti onekaz, eta bere jaurkintzaren maldabereagaz eldu zan XIVn Luis bere eriotzara:

Frantzezak Europan euki eben nagusitasunezko eragipena, maldaberan egoala.

Frantzez kolonietan sortu zan azken gaizto edo utsegiteagaz.

Eta Frantzezaren zori txarragaz, erritarren artean sortu zan gose edo sabel-zorriekin. A ta guzti eta arlo guztietan porrot egin arren, garaipenduz edo eldu bear zan merkantil katoliko elburu guzti orreitara eltzea, berezko arrazoiaren aurka gatz zalako, XIVn Luisek edo Godeauko gotzaiñak deitu egiten eutson "Jainkoaren Ordezko" izenagaz, bere baitaren aginduz lematu eban beti, berentzat eta bai bere erritarrentzat artu bear ebazan erabagiekin.

### *XIVn Luisen eriotzea.*

1.715eko urtean Iraillaren lean, eta 72 urte erregearen lanetan ibili ostean, satar edo arat-ustelak jota(1), 77ko urte bete barik il zan Nafar-Frantziko XIVn Luis errege au. XIVn Luisen gorpua, bere irudiko illobian, Pariseko Saint Denis Eleiz Nagusian dago. E

## 1. 30. *XIVn Luisek euki ebazan alaba semeak.*

Bere lenengo emazte ta arreba-lenguziñ Austriako María Teresagaz, sei alaba seme euki zituzen:

-Frantziako Luis, 1.661-1.711 urte bitartean bizi zana eta Frantziko erregetzaren ondorengo izan zana(2).

-Frantziko Ana Isabel, 1.662ko urtean Azaroaren 18tik, 1.662ko urtean Abenduaren 30eko egunerarte bizi zana.

-Frantziko Maria Ana, 1.664ko urtean Azaroaren 16tik, 1.664ko urtean Abenduaren 26ko egunerarte bizi zana.

-Frantziko Maria Teresa, 1.667ko urtean Urtarrillaren 2an jaioa, eta 1.672ko urtean Epaillaren 1eraiño bizi zana.

-Frantziako Felipe Karlos Anjouko dukea, 1.668ko urtean Dagonillaren 5ean jaio, eta 1.671eko urtean Uztaillaren 10erarte bizi zana.

-Frantziako Luis Franzisko, 1.672ko urtean Bagillaren 14an jaioa, eta 1.672ko urtean Azaroaren 4ko egunerarte bizi zana.

### *Balliereko Luisagaz.*

Lau alaba seme euki zituzen, onetatik bi bakarrik bizi ziranak, Frantziko erregetzaren ondorengotasuna artzeko:

---

(1) Satar edo arat-uste!ak jota = gangrena. (2) Frantziko erregetzaren ondorengoa = Delfín edo Gran Delfín izenagaz ezagutu zana.

-De la Baume Le Blank´tar Karlos, 1.663ko urtetik 1.665eko urteraiño bizi zana.

-De la Baune Le Blank´tar Felipe, 1.666ko urtetik 1.667ko urteraiño bizi zana.

-Borbon´tar Maria Ana, *Blois´eko Mademoiselle,* Borbon-Konti´tar I Luis Armando, Konti´ko printzeagaz ezkonduta egon zana, eta 1.667ko urtean alaba lez legezkotu egin ebana. 1.666-1.739ko urte bitartean bizi zan.

-Borbon´tar Luis Bermandoiseko kondea, 1.669ko urtean legezkotu egin ebena, eta 1.667ko urtetik 1.683ko urterarte bizi zana.

## *Athenais de Rotxetxouart ta Mortemarfeko Frakoise, Montespaneko Madamegaz.*

Zazpi alaba-seme euki zituzen:

-Borbon´tar Luisa Frantziska, 1.669ko urtetik 1.672ko urteraiño bizi zana.

-Borbon´tar Luis Augusto Maineko dukea, 1.670ko urtetik 1.736ko urteraiño bizi zana.

-Borbo´tar Luis Zezar Bexingo kondea eta Saint-Jermain-des-Pres´eko abata, 1.672ko urtetik, 1.683ko urteraiño bizi zana.

-Borbon´tar Luisa Franziska, Nanteseko Mademoiselle, Borbon ta Konde´tar IIIn Luis Borbon´eko dukea eta Kodeko VIn printzeagaz ezkondu zana, 1.673ko urtetik, 1.743ko urteraiño bizi zana.

-Borbon´tar Luisa María Ana, Tours´eko Mademoiselle, 1.674ko urtetik, 1.681eko urte bitartean bizi zana.

-Franziska María, Blois´eko bigarren Mademoiselle, Orleanseko Felipe Txantreseko dukeagaz ezkondu zana, eta XIVn Luisen erio ostean, erregeen ordezko lanak beteko zituzenak.

-Luis Alejandro Toulouseko Kondea, 1.678ko urtetik, 1.737ko urteraño biziko zana.

## *Bin des Eillets´eko Klaudiagaz.*

-Maisonblantxe´tar Luisa, Keue´ko Baronesa legez onartu ez zana, eta Prez´tar Bernardorekin ezkonduta, 1.676ko urtetik. 1.718ko urteraiño bizi zana.

## *Skorailleseko María Anjelikagaz.*

Seme-alaba bi euki zituzen:

-Semea, 1.679ko urtean jaio ta denbora gitzi barru il zana.

-Eta alaba bat, jaiokeran il zana, bere amagaz batera.

## 1.31. *XIVn Luis erregearen ondorioa.*

XIVn Luisen erregetza Frantzi ta Europako edestian, aundiena lez margozten dabe edestilariak, eta ez dakit zergaitik.

Bere al-osokeriaren nagusikerizko agintaritzan azken baten, ez ebalako lortu ezer, erritarren eriotz ta sabel-zorrikeriaren kanpotik.

Eten bageko erregeen ondoriozko arazo, ta bai lur-jabetasunaren borrokakaz, ezin zenbatuko eriotz bere jendarte artean egiñez gaiñ, Europaren errigizarteak kaisar katolikotasunean aberritzeko, beste ainbeste eten bageko borrokaren eriotzakaz ibili ziran.

Aita Santuak aurkezten eban kaisarrezko domiñagaz, batzango orren nagusitasuna lortu ezinezko elburuen atzetik ibili baiño besterik, ez ebelako egin, Europako errege guztiak.

325eko urtean Nizeako eleiz batzarrean asmatu ta artu zan erabagia "Katolikotasunaren Batzangotasunean Aberrituta", izadi onen giza guztia bizi gindezan.

Norkeri aundi orren legezko elburuak beteteko, Goiko Jaungoiko Sort-arazleak ipini euskuzan legearen aurkakoak izanda, bete ezinezko Mamutzar baten antzera euki doguz edesti guztitik gure lepoetan.

Norkerizko lege orreik, Berezko legeen izatearen aurkakoak izanda, asmatutako guzur ameskerian jokatu bear izan dogu beti, ezer konpondu ezinik, mundu onen bizi legeak gure arduradunai, erantzun zeatz ta zuzenak eskatzen dautsezelako, askatasunezko demokrazi aundi batean, bizi gura badogu.

Adibidez: zorro bardin baten alegindu gara sartzen edesti gustian, Nizearen asmatutako norkerizko lege orreik, berezko bizitzan azturaz, lege eta ekanduzko bizi onaren arloetan lortu ziran aurrerakuntza guztiak, Aristotelesen askatasunezko demokraziaren eritziak bezela, eta danak dakigu, lerrautsa, poxpoillo biztutako bategaz zorro orreitan sartu eskero, eztanda egiten dauela.

Eta bide orretatik ibili diralako edesti osoan, Europako errege erregiñak, sekula ez eben erritarren bearkuntzak zuzendu, naikoa euki ebelako euren lur-jabetasunezko borrokaren gaiñetik, katolikotasunaren aberrikuntzazko batzangotasunagaz, erritarren lepoak beti, bete ezinezko nai edo guragarri orreikaz menperatuta.

XIVn Luis berak ipini eban Borbon bat errege lez peninsula edo erdiugarte onetarako, gero ainbat bider kendu ta ipini ziranak gaur arte, eta al-osokeriaren gogo orregaz, Nafar erreifiuaren izatezko eskubideak alboratu ebazan betiko.

Bere erregetza aundiena izan zala Europa onetan esaten dabe edestilariak.

Esango daustazue zetan baiña, gaur lez, berezko legetik kanpo ibili ba zan beti ?.

Norkeriz arrotuta dabiltzan gizon-emakumeen eritziak, beti izan dira berezko arrazoien aurka "guzurrezko aitzakiak", erritar ezberdiñ guztiak euren menpeko batzangoan eukinda, norkeriaren aundikerizko jaurkintza orreikaz euren sasi-jaunkerizko gurenaiak beteteko.

Ez dira konturatuten, jaioten garan guztiak, nor izateko jaioten garela, eta or ez dagoela ariñeketarik egitea, nor izatearen jabetasunezko ulermenetik, bizitz onetan jaioten danari, zor jakozenak ordaintzea baiño.

Eta jaioten garenok alderantziz, bakotzaren nortasunezko askatasunez bete ginduzan, bizitzak bakotzari ezkatzen dauskuezan ardurazko ordeak.

Gure ordaiñezko irudi lez, dirua be sartzen da ardurazko artu emon oneitan ordezko tresneri lez, eta olan izan bearko leuke beti.

Ez, beti ta gaurko egunean sortzen jakun lez, tresneri au esku bakarretan geratu ondoren "urrezko sasi-jainko tzekor lez gurtzeko", Ludi onetan batzuk, sasi-jainkotasunean bizi daitezen.

E

## 1. 32. *Borboitar Vn Felipe, espainitarrentzat aukeratuko erregea.*

Vn Felipe Anjouko duke au, Frantziko erregetzan ondorengoa izan zan Luis Aundia ta Babierako María Anaren semea zan.

Eta orren bidetik, XIVn Luis ta Austriako María Teresaren billoba, baita Espainiako IVn Felipeen eren-illoba(1).

Lenengo semearen semea ez zalako izan, urrun euki eban bere ondoretza Frantziko erregetzan Vn Felipe onek, bai espainitarren erregetzan be, senidetasun aundia euki arren.

Espainiako erregearen IVn Felipe eta Borbon´tar Isabelek lenengo ezkontzatik euki eben Maria Teresa alaba izan zan Vn Feliperen amama, eta bide orretatik IVn Felipe eta Austriako Marianaren bigarren ezkontzatik jaio zan Espainiako IIn Karlosen arreberdi edo ugaz-arraba, Espainiaren eskubideko erregetzari uko egin eutsona, Frantziko erregeagaz ezkontzearren(2).

XIVn Luis eta Europako beste erregeak, IIn Karlosen ondorebageko eriotzari begira, ariñautik euki eben aukeratuta Babierako Jose Femando izan zedin espainolaren errege.

1.698ko urtean Aya´ko egiunean sinatu zan aurretik, ba-eukien espainolaren erregetza zatituta, Jose Fernandori, erdiugarte onen jabetasunak, Beko Erri, Zerdeña eta Ameriketako lurraldeak itxita Gipuzkoa izan ezik, eta Frantziak, Gipuzkoa, Napoles eta Sizilia artuta berentzat, Austriarrak Milanesadogaz geratu zitezen.








***Borbon´tar Vn Felipe´ren giza-irudia 1.723ko urtean Jan Rank egineko margozkian, V´n Felipe´en armaría eta bere izenpetzezko zirriborroa***(3).

1.699ko urtean Jose Fernando il zanean, Espainiako lurraldearen antolaketa guzti orreik apurtu ziran, eta bigarren banaketako elkargoari zabaldu jakozan bideak, espainolak jakin barik edo euren izkutuan egin zana.

1.700eko urtean egin zan bigarren zatiketan, IIIn Felipe Espainiako erregeen eren-illoba Karlos artxidukea artzen eban errege lez, Beko Erri espainolak, Amerike-

(1) Eren-illoba = biznieto. (2) "A solis ortu usque ad occasum", ipinten ebana = eta IIn Feliperen esana lez = "nire lurrealdeetan ez da ostonduten eguzkirik" = Eguzkiaren urteeratik, Eguzkiaren sarkaldiraiño esan gure ebana. (3) Ezkontza onen anlzezlari Frantziko errege XIn Luis eta María Teresa, lenengo maillako lengusuak izan ziran.

tako lurraldeak eta erdiugarte onen jabetasun guztiak berari emonez, Napoles, Sizilia eta Toskanako lurrak Frantziko ondorengoari emonda, eta Lorenako dukea Leopoldo kaiserrak Milanesado artuz, ararte euki ebazan Lorena ta Bar´eko lurraldeak, Frantziko erregetzaren ondorengoarentzat izan zedin.

Banaketa orregaz Frantzia, Olanda ta Ingalaterra, pozik egon arren, Leopoldo Jermaniar kaiserra, espainolaren ondasun guztiak berentzat gure ebazalako ez zan egon ados, IIn Karlosek bere azken naian, artxidukearen izenean ipiniko ebazala ondasun guztiak usten ebalako.

Leopoldo kaiserra baiña, ez zan trebe ibili asmo orretan, IIn Karlosek, bere loba-illoba Vn Felipeen eskuetan itzi ebalako espainiako erregetza.

IIn Karlosek bere gogozko itxaropenean jakin ebalako, XIVn Luisen billoba batera izanda, onek ez eutsola itziko, espainitarren errgetza zatitu egien.

## 1. 33. *Vn Feliperen jaio ta eriotzea.*

1.683ko urtean Abenduaren 19an, Bersallesen jaio zan Vn Felipe au. Eta 1.746ko urtean Uztaillaren 9an Madrillen il.

## 1. 34. *Vn Felipek Espainako erregetzara igotea, eta Madrillera eltzea.*

1.700eko urtean Azaroaren lean il zan IIn Karlos, eta Azaroaren 6an Bersallesera elduta eriotz orren barria, Azaroaren 16an onartuko eban Anjouko Vn Felipek espainolaren erregetza.

1.700eko urtean Azaroaren l6an aurkeztuko eban XIVn Luisek espainolaren gortean bere baietza, bere lengusu-anai ta loba IIn Karlosen erabagiak onartu ondoren.

XIVn Luisek orren ostean, amazazpi urte ebazanean Vn Felipe bere illoba aurkeztu eban espainolaren gortean.

Europako errege guztiak onartu ebana, espainitarren erregetzarentzarako erabagi orreik, Austria etxekoarenak izan ezik.

1.700eko urtetik, 1.746ko urteraiño izan zan Vn Felipe, espainiako errege.

1.724ko urtean Urtarrillaren 6tik, 1.724ko urtean Iraillaren 5erarte izan ezik, bere seme I Luisen eskuetan itzi ebalako erregetzatzaren jaurkintza, arik eta 1.724ko urtean Dagonillako 31n, I Luis il zan arte.

Austria leiñuko IIn Karlos bere aitite-osabaren eskutik artuko eban bere ondorengotasun au Vn Felipe onek, eta Espainiaren lenengo Borboi leiñuaren errege biurtuko zan, 45 urte ta 3 eguneko erregetza zuzenduz.

1.700eko urtean Abenduaren 4an itzi eban Bersalles Vn Felipek.

Eta 1.701eko urtean Urtarrillaren 22an, Irunetik sartuko zan erdiugarte onetara.

1.701eko urtean Otsaillaren 18an egingo eban Vn Felipek bere garaipenezko sarrera Madrillen.

## 1.35. *Vn Feliperen erregetza.*

Frantzia, Espainia ta Europako beste erregetzaren artekoetako gibel-beldurra gorantza joan zan, iñork ez ebelako jakin, Borboitar onek, noraiñoko eskumena eukiko eban.

Gaiñera, ainbeste gauza oker edo errakuntza eukinda lenengo illabeteetan.

1.701eko urtean Otsaillaren lean Pariseko Lege-Biltzarrak, Vn Felipe erregearen eskubideko eskutitz guztiak gorde ebazan, bere Frantziko erregetzaren eskubideak zainduz.

1.70leko urtearen Otsaillan XIVn Luisek, espainolaren erregetzazko ordegotzak eskatu ostean, bere gudalozteak bialdu ebazan espainolak euki zituzen Beko Errien lurraldeetara, aurre egiteko ango gudalozteakin batera, 1.698ko urtean espainolakaz bi aldeko alkargoan sinatuz, berton muga lez kokatu ziran Zazpi Lurraldeko Erri-Batueri.

1.701eko urtearen Epaillan XIVn Luisek, Bersalleseko elkargo edo ongundean, alkartasun bat lortu eban Babierako autatzalleekin.

1.701eko urtearen Loraillan, Austriako gudalozteak sartu ziran Italiako lurraldeetan, gudako adirazterik egin bage, espainolaren lurraldeakaz jabetzeko.

1.701eko urtearen Uztaillan, Vn Felipe ez eban onartzen Austriako erregeak, eta gudalozte bat bialdu eban Italian espainolak euki ebazan lurraldeetara.

1.701eko urtean Uztaillaren 9an, euki eben gudalozte biak Modenako lurraldearen eta Karpiko zelaietetan lenengo borrokea.

1.701eko urtean Iraillaren 7an, Ingalaterra, Zazpi Lurralde Bateratuak, eta Austriak, Ayako ongundean alkartasunezko agiri bat sinatu eben.

1.701eko urtearen Iraillan Ingalaterrako IIn Jacobo il zanean, XIVn Luisek, IIn Jakoboren seme Estuardotar Jacobo onartuko eban Ingalaterra ta Eskoziako errege lez, Ingalaterrako IIIn Gillermok euki eban asarrearen aurka.

Eta Europako errege geienak onartu ba eben Vn Feliperen erregetza, Leopoldo Alemaniako kaiserrak ez eban onartu, bere ustean, Austriako Karlos artxidukea bere bigarren semeak, eskubide geiagoak euki ebazalako espainolaren erregetzara igoteko.

Denbora gitxi barruan XIVn Luisek, bere bigarren billoba Vn Feliperen eskubideak onartuko ebazan Frantziko erregetzarentzat, naita euki zituzen aukerak oso gitxikoak izan, XIVn Luisen leen ondorengoko semea osasuntsu egoalako, eta onen seme ta Feliperen anai sarrenak be, ezkondu ta errege izateko adiñetan egon ziralako.

Gauzak olan zirela, Europako errege guztiak, bildur aundiak euki ebezan etorkizunari begira, arrizku aundiak euki ebazalako Frantzia ta Espainiako erregetzak alkartzen ba ziran, Bersallesetik Borbotarrek bideratzeko.

1.701eko urtearen Iraillan La Ayako egiunean eta aukera oneri begira, Ingalaterra, Eskozia, eta Lurralde Batuak asi ziran antolatzen IIIn Gillermoen agindupean, Austriako Absburgoakaz batera, Frantzia ta Espainiari aurka egiteko.

1.70leko urtearen Iraillan XIVn Luisek, agertzeko egon ziran denbora txarretarako bere antolaketak egiten, eta Vn Felipeen anai Borgoñako dukea ezkonduta egoalako Saboyako Luisa Grabielaren aiztagaz, lortu eban espainolaren errege Vn Felipe, Saboyako Luisa Grabielagaz ezkontzea, Saboy´tarrakaz alkarte bat lortu gura ebalako, Italiako lurraldeetan errez sartzeko.

1.701eko urtean Azaroaren 2an ezkondu zan Vn Felipe, bere legusiña Saboyatar María Luisa Grabielagaz.

Eta 1.702ko urtearen Loraillan azkenez, alkartutako Ingalaterra, Eskozia, eta Lurralde Batuak Aubsburgotarrekin, guda aurkeztu eutsoen Frantzia eta espainolari, asiera emonda emen, 1.701-1.714ko Espainiako Erregetzaren Ondorengotasunezko borroketari.

## 1.36. ***1.701-1.714ko urte bitartean, Espaitar Ondorengo Guda.***

Espainolaren ondorengotasunezko guda au, Europako erregetza guztien guda izan arren, anai arteko guda be izan zan, Gaztela ta Nafartarrak Vn Felipegaz egon ba ziran, Aragoiko erregetzan geienak, Austriako errege-gai´eri laguntzen eutsoelako.

1.704ko urtean Vn Felipe eta Jermaniar kaisertzaren Karlos artxidukearen artean ondorengo borroka zala ta, Karlosen alde egon ziran Ingeles gudalozteak, Jibraltarren sartu ziran.

1.707ko urtean, espainitarren lurraldeetako gudak, Feliperen alde erabagi ziran, onek Almansako borrokaren ostean, Aragoi ta Baletziaren lurraldeak, bere kontrolpean ezarrita.

1.713ko urtean Karlos artxidukea, Alemaniako kaiserra izendatu eben.

Eta Europako errege guztiak, Absburgotarrak artu eben indarra aundia izan zalako, dardar edo beldurkor, gudalozteak atzeratu ebazan, eta sinatu zan Utretxt´eko alkargoan espainolak, Europan euki zituzen ondasunak galduz, Uri nagusi ta itsas-osteko lurrakaz geratu ba ziran, Gibraltarreko lur muturra eta Menorkako ugartea galdu ebazan, Ingelesen agindupera joan ziralako.

Ata guzti, Europako errege guztiak onartu eban Vn Felipe, espainitarren errege lez, Alemaniko kaisar Karlos artxidukea izan ezik, berentzat gura ebalako espainolaren erregetza.

## 1.37. ***Vn Felipek, espainitarrentzat eroan eban jaurri bidea.***

Vn Felipe onek, eten bageko ekitaldian euki zituzen gaitzaldiak, arazo ta buruko miñ aundiak emon arren, ministro onak aukeratuz, jakin eban bere jaurpidea bideratzen: bere leenengo frantzez jaurkintzatik Alberonitar Julio aukeratuta, eta Ripperdako baroiaren galbidetik alboratuz, jakin ebalako espainolaren artean aukeratzen bear ebazan ministruak, geien Patino tar Jose, agiri-jakintzan edo diplomaziazko arloetan bere trebetasunezko zurtasunagaitik, bai ta jaurbide barruan egin ebazan antolaketagaitik be nabaritu zalako.

Vn Felipek, ekarri ebazan frantzezak, Madrilleko gortearen goi ardurazko lekuetan ezarri ziran, espainolaren politikari, beste bide barri bat emon gurean.

Ministru oneik, laterrien idazkaritzatik eta idazkaritzazko lan-geletatik egiten eben lana, geroko ministruak egin eben antzera, ta Austriatar eleiztarren aolkularitzak baztertuz, auek, euren aginduzko arrokeri bidez maltzurtzen edo ta usteltzen joan ziralako, Gaztelako Aolkularitzazkoak izan ezik, gero ta gorago joan zan euken ardurazko lanetan.

Orregaitik, Vn Feliperi agertzen jakozan etsaiak, baztartuta geratzen ziran aundikien bidetik agertzen jakozelako geien.

Lortu eban bere erregetza luzean Vn Felipek, diru arloaren jaurbideak, Itxas-ontzidia, ta berriztu egin bear ebazan gudalozteak apur bat zuzentzea, baita Ameriketatik egiten ebazan arrapaketak, edo ta lapurretazko menpekotasunetik ekarten ebazanak babestea, Ingeles Itxas-ontzidien aurka egiñez.

Bere "Planta Barriaren Aginduagaz" garrantzi aundienetariko gauza lortu ebena baiña, jaurpidean batutea zan, Aragoiko Foru Lege guztiak alboratuta, Madrilletik jaurkitzeko.

Ekintza orregaz, gaurko Laterrien antzeko batzango bat lortu eban, berezko errigizarteak euki ebazan Foru Legeak, Agindu Barri orregaz, ezereztu egin ebazalako.

E

1.707ko urtean Nueba Planta edo Agindu Barriaren agiri orreik, Balentzia ta Aragoientzat agindu eban.

1.715eko urtean, Mallorkarentzat.

1.716ko urtean Kataluñarentzat.

Eta Aragoiko erregetzaren politikan, lege-bide, ta jaurkitzaren arduratarako, Gaztelarren oiturazko araudiak ezarri ebazan, Austriatar ondorengoai laguntzearren.

Euskalerría, Nafarroa ta Aran ibarreko lurraldeak euki ebazan jaurkintzazko iraspenekin eutsi eutsoen bakarrik euren Foru Legeari, Espainolaren Ondoregotasunezko Gudan, Vn Feliperi emon eutsoen laguntasunagaitik.



NUEVA PLANTA
DE LA
REAL AUDIENCIA
DEL
PRINCIPADO
DE
CATALUÑA,
ESTABLECIDA
POR SU MAGESTAD,
CON DECRETO DE DIEZ Y SEIS
de Enero de mil setecientos y diez y seis.

En Barcelona: Por JOSEPH TEXIDÓ, Impressor del Rey N. Sr.
Se hallarà en su casa, en la calle de Santo Domingo.

***Kataluñaren printzerrirako, Vn Felipek atara eban Agiri Barriaren agindua*(1).**

Eta bearkuntza orregaz Vn Felipek, lurraldeetan banandu ostean Espainia edo erdiugarte onen lur-barruak, lurralde bakotzaren jaurkintza Madrilleko jaurkintzagaz lotuta egonez gaiñ, gudal nagusi Kapitaiñ baten agindupean ipini ebazan.

Baita Frantziko jaurkintza eredu lez onartuta, lurralde bakotzari, bere zain-etxekoakin edo zaingoaren ardurean(2) ipini, ortik aurrera arduradunak edo buruzpidedunak sortuta.

Madrilleko erdira nai orren jaurkintza aurrera eroateko, Laterrien Idazkaritza edo gaur diran ministru-etxe edo bulego antzekoak ezarri ziran lurralde bakotzean, etxe orrein lan arduretarako, Vn Felipe berak aukeratzen ebazan arduradunak ipinita.

Jaurkintzazko batzango orren bidez, katolikotasunezko erregetzaren aolkularitzazko bulegoak kendu ziranen antzera, Aragoi, Italia ta Flandeseko lurralde bakotzarenak be kendu ziran.

---

(1) Vn Felipek ataratako, Agiri Barriaren Agindua = leyes de Nueva Planta, decretados por Felipe V en pos de una centralización de los antiguos reinos de Aragón. (2) Zain-etxe = Intendencia. Zaingoaren ardura = cargo de intendente.

Euskalerri, Nafarroa, Indias, fede-zaindi edo inkisizioarenak ta gaur arte etorri diran aginduzko edo Gudal Nagusien Kapitaiñarenak(1) geratu ziran bakarrik, agindu guzti orreik Gaztelako Aolkularien iraspenean batzangotuz.

Gaztelako gorteak be antolatu ziran, Aragoiko laterrien jaurpideko ardura guztiak bertan sartuaz batzangotzeko.

Ata guzti, ariñauko gizaldiaren antzera joan zan Gaztelako gortearen maldabera, bere betiko kanpo ederren itxuran agertu naian, edo Asturiaseko Printze ondorengoen azalezko jai-arauen ekintzakaz makaltzen joan zalako.

Vn Felipek, Espainiako diru legeen arloko ekonomi ta finanzlari edo ondasunlarian egoan ondagarriari aurre egin eutson, zerga barriak ipinita erri-altxorrak orekatzeko.

Diru arloetan, gobernuaren eskubidea be zirikatu eban nekazaritzari lagunduz, errege lantegiak irasita.

Bere erregetzaren askeneko denboratan, diru arloaren erri-altxorra goraldu egin eban, errien aberaski edo buruzpidea obeagotuz.

Vn Felipek, bere aitite XIVn Luisen eredu edo jarraibideari ebatuta, jendekuntz edo jakin bideak artu ebazan gogoz antze-lan eta jendekuntzazko arloetan, erregetzaren aunditasuna erakusteko.

San Ildelfonso eguras-erregeen jauretxea egitea agindu eban, bere aitite XIVn Luisen Bersalleko jauretxea egin eban antzera, eizan joaten zanean bertora joanda, euki ebazan goiberazko aldeetatik urten edo garbitzeko.

Baita Italiar eragipen aundia be euki eban Vn Feleipeen erregetzak, bere emazte Farnesiotar Isabelek euki eban nortasun sendoaren bidetik.



***Vn Felipek aginduta, San Idelfonso´ren errege jauretxea.***
***Bera eizan joaten zanean, eguras-etxe lez eukiten ebana.***

Vn Felipek, eguras-etxe au edertuteko, ainbat Sueziako Kristinaren erromatar tailu-irudi edo irudigintak ekarri ebazan.

Eta ezergaitik be ez ebana ikusi gura, Madrilleko gaztelua erre zanean, bere beste ametsezko asmoa, Madrilleko erregeen-jauretxea egitea zan, Aranjuezeko jauretxean be, barriztazun aundiak eginda.

---

(1) Gudal nagusiaren Kapitaiñarenak = gure gaurko egunerarte azken geratu daña.

Berak irasi ebazan Espainol Erregeen Ikastetxea eta Edestiaren Errege Ikastetxearen erakundeak, frantzezaren eredu antzera.

Eta erregen ondorengotasunean be, frantzezaren eredua ezarri gura eban.

Orrela, 1.713ko urtean Loraillaren l0ean espainolaren erregezko ondorengotasunean, Salikako legea sartu gurean, ariñautik ibiliz eta gortekoen aurkaritzagaz porrot eginda, beste lege bat atara eban andrazkoak erregetzaren aulkira igoteko.

Legezko baldintza onek, Andrak debekatzen ebazan erregetzazko aulkira igoten, mutillezko neba, osaba edo ta lengusuak egoten ba ziran, ekintza orregaz, atzerritar leiñuak debekatuz, espainitarren erregetzako aulkian ezarri zitezen.

Gero VIIn Fernandogaz, ondorezko gudak edo karlistadak deituteko gudak ekarriko ebazanak.



***Jatibako Almudiñen, Vn Feliperen margozkia buruz bera, 1.707ko urtean erria, erretzea agindu ebalako***

Bere bearrezko gudalozteari be, antolak egin bear eutsozan lez, Frantzezaren ereduari begira, terzioak kendu ebazan, gudaloztearen antolakuntza, gudari taldeetan, batalloi talde, euneko taldeetan ta bosteuneko taldetan geratu zitezen.

Gudaloztearen gudariak, soiñeko bardiñean jantzi ebazan, su-izkilluari marrauza(1), puntzeta edo aiztoa ipini, ta kañoidun taldeak obeagotuta.

1.717ko urtean Vn Felipek asi ebazan itsas-ontziaren berrezkuntzak ontzitegi barriak eurentzat eginda, eukezan intzixka-taldeak antolamendu barrieran sartuz, espainol itsas ontzidiak, antola barrietan ezartzeko.

Vn Felipe onen ekintza au, bere semeak be eroan ebazan aurrerantza, eta gizaldi onen amaierarte, espainolaren itsas-ontzidia izango zan indartsuena.

Aipatzea bearrezkoa emen, Vn Felipek al osokeriaren almena euki arren, sekula ez ebela bere jaurpidetza zuzendu neurri orreitan.

Umeetatik euki ebazan gaitzazko ekitaldi ugari, ainbeste goibera aundiak sortu eutsozan bere izaerazko bizitzari, ardurazko lanetan galerazi edo debekatu egiten eutsona(2).

(1) Su-izkilluari, marrauza, puntzeta edo aiztoa ipinita = poner bayoneta a los fusiles. (2) Bere emazte Farnesiotar Isabelek = Iren, gizon erdi, edo sikiratuko Farinelliren abestiakaz osatu gura ebena.

Orregaitik Vn Felipeen jaurpidetza eroan eben, bere gorteko batzuk, Ursinos´eko printzea ta leenengo ministruak bezela, baita bere bigarren emazte Farnesiotar Isabelek.

## 1. 38. *Vn Felipek egin ebazan aldaketak politikan eta banakuntzazho arloetan.*

Vn Felipek, erri ta diruaren ardurazko banaketak, laterriaren zuzenezko bidetik jaurritzen ebazan, arduradunen lantegiak irasita lan orretarako.

Banaketazko ardurak aurrerantzean, errege eta lan orretarako sortzen ziran errigizonak beteko eben.

Jakiteko, banaketazko ardura guzti orreik eroan bear izan eben bizibideko erri-gizonak zelako jakintza euki eben, lantegi orrein ezar lekuetan ipinteko, lan-sail(1) on bat aurkeztuta, ikertu egiten ebazan euren trebetasun ta eukiten eban ezauntzan, betiko oitura-txar edo ekanduzko ustelkeritik aldentzeko.

Eta ardura aundiko lan orreitarako artu ziran erabagi onen ondorioz esker, ekanduzko arloetan agertu ziran emaitzak, Europan egun orreitan egon ziran goi maillako trebetasun eta aurrekuntzan agertu ziran.

Baita, aurrerakuntzazko erabagi on orreik zaintzeko, goi maillako ardunadunai epe laburrezko zarritasunean kontuak aurkeztu egiezan eskatuz, osatzen ziran ardura aundi orreik, jaurkintzazko kontuak garbitasunez iraun zedin.

Vn Felipeen gortekoak trebetasun orreri esker, legeak, bereala onartu eta betetako erabagia artu eben.

Eta Gaztelutar Zespedes edestilariak emen esaten dau:

“XVI, XVII, eta XVIIIko gizaldietan, Madrilletik bialtzen ziran aginduak, onartzen zirala kolonizatuko lurraldeetan, baiña sekula ez zirala beteten”.

Eta Gaztelutar Zespedes onek, bildur edo ta aginduzko elburu orrengaitik esan ebazanak zuzentzeko: “Mendeko esan orreik onartuz, kolonizatutakoak beartuta egon zirala goiko maillakuari bereala adi-erazten, zeatz, azkar eta esanetara betetan ebazala agindu orreik”.

## 1. 39. *Oar txiki bat emen.*

Gaztelutar Zespedes edestilari onek, kaisertzazko agindupean egonez gaiñ, ez da oraindiñokarren konturatu:

“Espainitar erregeak euren aginduetan edo jaurpidetzan, katolikoen aberkuntzazko batzangoan al osokerituta bizi gura izan arren, berak koloniaren izenagaz deitzen dabezan berezko errigizarte orreik Euskalerri, Kataluña, ta Galizikoak bezela, euren demokrazizko Foru-Legepean bizi zirala”, eta erregeak euren artekaritzan, Foru-Lege orren menpekoak zirala.

Gauza bat:

“Izadi onek daukazan berezko lege guztien aurka eta eurak menpetuta, norkerizko merkantil katolikotasunean aberritzeko, menpetasuneko al-osokeriaren batzangotasunezko lege orreik ezarri gurea dala”.

(1) Lan-sail on bat aurkeztuta = presentándoles una tarea de trabajo

E

Bestea:

"Jaungoikuaren berezko legearen aurka, al izatea".

Eta Euskalerri, Kataluña ta Galizia berezko erri onen eskubideak argitzeko, gero Bizkaiko 32n eta 33n Jauntzaren ostean adieraziko dodaz, euskal "Foru Baimena"-ren legea, sakontasunean argituz, "KONDAÑO" edo bere izenagaz deituta, Zabala ta Ozamiz Tremoia´tar Aingeruren idaz lan berezi batetik artuta.

## *Vn Felipeen edesti au berrezkuratuta.*

Eta azkenez, gongotzaingoaren eta gotzaiaren al-osokerizko almenak murriztu ziran, eleizaren almena murriztuta. Itxuraz beintzat.

## 1. 40. *Vn Felipek, diru arloetan egin ebazan aldaketak.*

Diruaren arloetako ekintzak bizkortu eta neurtu ziran batez be.

Orrez gaiñ, itsasoko beste aldean kolonizatuta egon ziran lurraldearen salerozketak berrezkuratu bear ziran Frantzez eta Ingelesaren eskuetatik, eta mugauste edo esku azpiz egiten ziran mozkiñaren artu emonak murriztu, fiskalgo edo salaritzazko arauak garbi iraun egien.

Zergak geiagotzeko, itsas-ertzeko ta lurraldearen muga-zergategiak ezarri ziran, barru ta atzerriko zergak eskuratzeko, Euskalerriaren mugaldeetari ainbeste eraso eginda, atzerritarrezko diru neurri orreik, gure mugaldeetaraiño ekarteko.

Vn Felipek, baieztu ebazan merkantillezko neurriak, eta debekatu atzerrietatik etorten ziran ari-gaiak, edo ta atzerrirako bialtzen ziran gari edo ta bezte mozkin garauak.

Baita, Bealdeko Erri, edo ta Ingelesaren merkantil eran, kolonietako salerosketak bizkortu gurean, naita ondore onak euki ez arren.

Gaiñera, Utretx´eko egiunean sinatu ziran baldintzatan, itsasontziko balizaren ezar lekua(1), giza-baltzaren salerozketetarako baimena emoten ebazanak, erreztasun geiago emoten eutselako Ingeles ontziari espainolari baiño. Auek, Kadizeko itsas-ontzidiaren saltzaille-bakarrezko araupean egon ziralako.

## 1. 41. *Vn Felipek, ikaskintza arloetan egin ebazan aldakuntzak.*

Ikasketaren arloak, laterriaren agindupean ipini ziran, leen maillako ikasketak erlijiozko fraile edo lekaidearen arduratan ezartzea bear izanda, jakitunezko irakasleri dagokion, ez zalako egon ikaslerik.

Goi mallako ikasketak bezela, Ikastetxe Nagusiak izendatuz, sakon era barritu edo aldatu ziran, laterriaren menpe edo ardurapean ezarrita, Meagintzaren Ikastetxeak bezela, onen buruz ikasteko sariak ipinita.

Goi maillako Jakintzaren Ikastetxeakaz amaituta, ikasketaren arlo au.

---

(1) Kolonietarako giza-baltzaren ezarlekua = Asiento de negros = Tratado de Asiento, por el cual España concedía a otro pais llamado ASENTISTA, el monopolio de la introducción de esclavos en América; en 1.601 se concedió a los portugueses, en 1.650 a los holandeses; y tras de algunas alternativas, a los franceses en la guerra de sucesión española, y a los ingleses a partir de 1.713.

## 1. 42. ***1.715-1.724ko urte bitartean Vn Felipek, atzerrirako ibili ebazan politikak.***

Farnesio´tar Isabel eta Alberonitar Giulio(1) leen ministrua, izan ziran leen aitzindariak, atzerritasunezko antzerki zabal onetan.

Vn Felipeen aitite, Frantziko XIVn Luis il zanean, Vn Felipek, Orleanseko dukeagaz euki eban etsai aindien eskuetara jausi zan Frantziren erregetzazko ordegotza, Vn Feliperi, Bersallesen esku artzeko bide guztiak ebagi eutsezanak.

Arazo orregaz, atzerrirako politikaren aldaketazko bearkuntzan agertu zan, barruan sortu jakon antzera.



***Farnesio´tar Isabelen margozkia Madrilleko Prado erakustokian dagoena.***

Emen aipatu leike, Rastatt eta Utretx´eko egiunaren atzerakotasunetik agertu zala atzerritarrezko politika au, Vn Felipek Italiako lurraldeak berrezkuratu gura ebazalako, Farnesio´tar Isabelen semeak kokatzeko, espainiaren aldeko edo erreiñu jarrailleak lez.

1.717ko urtean espainolaren gudalozteak, Zerdeña menperatu eban.

1.718ko urtean, Sizilian sartu ziran, eta orregaitik sinatu eben Ingalaterra, Frantzia, Olanda eta Austrikoak, Lauen Alkartasuna, espainitarren aurka borrokatzeko.

Eta Pesaroko Lur-muturrean Laukote orren Ingeles itsas-ontzidi batek, espainolaren ontzidia menperatuta, bakezko baldintza lez, Alberonitar Giulioren utziera eskatu eban, bera izan zalako arazo onen sortzaillea.

## 1. 43. ***1.724ko urtean Vn Felipek, bere erregetzazko utziera, bere leen seme I Luisen arduratan, eta Vn Felipek ostera, erregetzaren berrezkuratzea.***

1.724ko urtean Urtarrillaren l0ean Vn Felipek, agiri bat izenpetu eban, zelan bere 17 urteko seme I Luisen eskuetan izten ebala espainiko erregetza.

(1) Alberoni´tar Giulio kardinala = 1.664k0 urtean, Italiano lurraldean, Parmako urian jaioa, etal.752-ko urtean Erromako urian ilda. 1.715-1.719ko urte bitartean Vn Feliperen leen ministrua izan zan, Famesio´tar Isabelegaz berak ezkonduta, 1.719ren askeneko urte onetan bere ministruaren arduratik kenduta, Erroman zokoratu zana.

E

I Luis, Vn Feleiperen seme au, Orleanseko Luisa Isabelekin egon zan ezkonduta, Igo Luisek baiño urte bi gitxiago eukinda.



***I Luisen margozkia***

1.724ko urtean Urtarrillaren 15ean artu ebazan erregetzazko agiri orreik 1 Luisek, 16n egunean argitaratuz,

Eztabaida asko sortu ebazan gorteko aundikien artean, Vn Felipek aurkeztu ebazan arrazoiak bere erregetzaren utziera au egiteko, Frantziko errege XV Luisen eriotzea egun orreitan sortuta, euren ustean, Vn Felipek, Frantziko errege izateko zala oldozten ebalako.

Naita Vn Felipek, egin eban erregetzazko utziera orí, urduko denboratan buruan euki ebazan goiberaldi aundiagaitik zan.

Vn Felipe bere emazte Isabelegaz, San Ildelfonsoko eguras-etxera aldatu ziran, naita Isabel erregiña belarri bategaz, Madrilleko gortean sortzen zanagaz adi egon.

I Luis, Vn Felipe seme orrek, zortzi illabeteetan bakarrik jaurritu eban espaintarren erregetza, Dagonillaren 31ko egunean, baztanga edo nabarreri gaitzaldiagaz(1) il zalako.

I Luis ilda, Vn Felipek erregetzaren utziera egin ebalako, espainitarren erregetza beste Ilko seme Fernandori egokitzen jakon erregetza ori, baiña Isabel Vn Felipeen emaztea bizkor ibili zan eta ezereztu egin eban izan-gaitasun(2) ori.

Vn Felipek, aurre izan bear eutsoen gorteko aundikieri, auek, Fernandoren aldekoak izanez gaiñ, bere erregetzaren utziera orreitan, ez zalako atzerakoaren izakizunik egon, esaten ebalako.

Vn Felipek eskatuz, Josu Lagunen lekaidetxean egin eben teologoen batzar nagusi bat arazo au konpontzeko, eta berak erregetzaren utzieragaz artu eban erabagiakin, arrazoia beren aurka agertzen zalako, berari, bere seme Fernandoren errege ordezkoak bakarrik egitea izten eutson.

Gaiñera, Vn Felipeen aitorle Aita Bermudezek esan eban, “Pekatu Astuna zala”, ostera artzea, Jaungoikuaren izenean itzi eban erregetza ori.

Eta Vn Felipek bere buruaren zori gaitzezko goiberaldi orreik bakez eroateko, asarratuta erantzun eban “ez errege ordezko lez, ez errege lez, ez ezeren zentzu lez, kitto”.

(1) Baztanga edo nabarreri = enfermedad de viruela. (2) Izan gaitasun ori = esa posibilidad.

Euskerazaintza

Teologoak Vn Felipeen aurka artu eben erabagia bere erregetza ezereztuteko, Isabelek, erregeen emazteak, Gaztelako Aolkularitzaren arauko aundikiak ertsatu edo premiatu ebazan, Vn Felipe ostera erregea zediñ.

Eta 1.724ko urtean Iraillaren 7an, Vn Felipeen seme I Luis il zan baiño aste bat beranduago, Gaztelako gorteak eztabaida orreik erabagitzeko batuta, Vn Felipe egin eben errege, bere seme Fernando Asturiaseko printze lez, ondorengoa izendatuz.

***I Luis lenengo, eta geroago VIn Femandok, euren Vn Feilipe aita il zan ostean erabiliko eban Santiago apostoluaren izena, espainiako patroi edo zaindari lez, eta espainolak beti danik esaten eben "Santiago y Cierra España "ri, indarra emoteko.***

## 1. 44. ***1.725-1.746ko urte bitartean, Vn Felipek eroan eban atzerritarrezko politika.***

1.725eko urtean Vn Felipek, Jermaniako kaisar sakratuaren Austriako VIn Karlosekin izenpetu ebazan bakezko laguntzak, eta urrengo urtean asi zan Ingalaterraren aurkako borroka.

Egiune onen bitartez VIn Karlosek, espainitar erregetzaren ondorengo eztabaida bidetik, espainitarren erregetza bere ardurapean artzeko euki ebazan tentaldiak, itzi edo alboratu bear izan ebazan, eta Vn Felipek bardiñ, Beko Erri ta Italiako kaisertzaren menpekoakaz.

Egiune onetan egon ziran, Saboyako Eugenio, Ludobikotar Felipe, eta Gundabarotar Tomas, VIn Karlosen aldean kokatu ziran, ta Ripperdatar Juan Gillermo, Vn Felipeen aldetik.

Zein geiagoko leiaketa au, Utretx´eko egiune edo elkargoan, Ingalaterrak geiengo edo artu eban nagusitasunagaitik asi zan, itsas borroka oneikaz.

1.728ko urtean, Europako erregetzak Annoberreko elkartasunetik batera egonda, urdurik edo ta kezkatsu egon ziran, espainol ta Austriako alkargoagaitik, eta salatzaille agertu ziran, Pardoko egiunean izenpetuta, Utretxeko alkargoan izenpetu zana onartzeko.

Frantziak, Europa osoarako ibili eban politikagaitik, eta baita Utretxeko egiuneagaitik espainitarrak euki eben maitasun edo ta gorrotozko sendimendu bi orreik naastuz, auek Italiako lurrak berrekuratu gure ebazan, Farnesiotar Isabelen semeak, espainol erregearen orde lez ipinteko lurralde orreitan.

1.732ko urtean espainitarrek, eginkizun orren ardurea, gero espainitarren errege izango zan IIIn Karlosen eskuetan itzi eben, onek urte onetako lenengo ekitaldian, Plasenzia, Parma eta Toskanatik asita.

1.733ko urtean senitasunaren lenengo egiunean sinatu zanaren bidetik, Frantziko erregeen senidetasunezko alkartasun billa, Patiñok atzerritar politikariak, beste zentzun bat emon eutson atzerritar politikari, Poloniako erregetzaren ondorengo guda artean zala.

1.734ko urtean, gero espainitarren errege izango zan IIIn Karlosek, Napoles menperatu ondoren, bera egin eben errege, Plasenzia, Parma eta Toskanako konderriak Austriatarrai emon bear izanda, naita Felipe erregearen semeak ostera berrezkuratu Plasenzia ta Parma, Toskana izan ezik.

1.734ko urtetik asita, Frantzia ta Espainiaren artean, senideskoak deitu ziran iru alkargo edo egiune sinatuko ziran iru urte ezbediñetan, baita artean, beste Europako borrokatan alkar ibilita. Lenengo biak Vn Feliperen bizitzan egin ziran.

E

1.734ko urtean lenengoa Bienako egiunearen bitartez, Poloniako ondorengoaren gudan.

1.738ko urtean, beste Bienako egiunaren alkargoaz amaitu zan. Alkarte onetan Karlos printzeak, Napoles eta Sizilia artuta.

Eta Gibraltarreko muturra ta Menorkako ugartea Ingelesaren kontrolpean iraun arren, espainitarren itsasontzidiak indartu ziran Atlant-itsasoaren kontrola eroanda, baita lur arteko itsasoaren mendebalatik be.

1.739ko urtean "Baliza gizaren ezarleku" borroka(1) lez esagutu zana sortu zan, ta ainbat itsas-borroka eragin eban.

1.742ko urtean Uztaillaren 18an San Ildefonsoko eguras-etxean ospatu zan egiunean, alde batetik Dinamarkako VIn Kristianen izenean Den´eko baroi Federico Luis, ta bestetik, Vn Felipe izenean Kossiotar Kanpilloko Josek izenpetu ebazan itsasoko merkataritzaren arloan. Lagun lez sinatu ebena, eurentzat ortik aurrera legeztuta geratuz, euren salerosteko artu emonak.

1.743ko urtean Frantzia ta espainitarren artean, luzaro iraungo eban senidetasunezko bigarren alkartze ori, Austriatarren ondorengotasunezko guda zan bitartez.

1.743ko urtean Kossiotar Kanpilloko Jose espainitarren ministru barriak, Frantzezakaz, Austriatarren ondorengo guda artean zala, Sendiaren bigarrenengo egiunera eroango ebazan arazo orreik.

1.745eko urtean Loraillaren lean Austriako ondorengo gudan, Aranjuesen egin zan egiunean, Kortako Sebastian(2) Vn Felipeen izenean; Frantziko XVn Luisen izenean, Luis Gido Gerapin Baureal; Napoleseko errege VIIn Karlosen aldetik, Rejio ta Grabinatar Esteban; eta Jenobako errepublikaren aldetik Grimalditar Jeronimok guda-alkartea sinatu eben, Austria eta Zerdeñak, Jenobari egiten eutsoezan erasoaren aurka.

1.748ko urtean Akisgraneko egiuneagaz eta Vn Felipe il ostetik amaitu zan bigarren senidetasunezko alkartasun au, Felipe printzeak, Parma, Plasenzia ta Guastallako lurraldeak berentzat artuta.

1.753ko urtean apurtuta geratu ziran 1.742ko urtean Uztaillaren 18an San Ildefonsoko eguras-etxean sinatu ziran baldintzak, merkataritzaren arloetan agertu ziran arazoak lagun lez konpontzeko.

## 1. 45. *Vn Felipeen leen ezkontza, eta euki zituzen alaba semeak.*

1.701eko urtean Azaroaren 2an ezkondu zan Vn Felipe, bere legusiñ Saboyatar Maria Luisa Grabielagaz.

Eta 1.714ko urtean Otsaillaren 14an, bere Saboyatar Maria Luisa Grabielagaz il zan arte bizi ondoren, lau alaba seme euki zituzen:

-1.707ko urtean Dagonillaren 25ean jaio zan I Luis, 1.724ko urtearen Urtarrillan 14tik, 1.724ko urtean Dagonillaren 31n il arte espainitarren errege izan zana, eta Orleanseko Luisa Isabelekin ezkonduta, ez eben euki seme alabarik.

(I) Ezarlekuko borroka = guerra del Asiento = Kolonietarako giza-baltzarcn ezarlekua = Asicnío de negros = Tratado de Asiento, por el cual Esparta concedía a otro pais llamado ASENTISTA, el monopolio de la introducción de esclavos en America; en 1.601 se concedió a los portugueses, en 1.650 a los holandeses; tras de algunas alternativas, a los franceses en la guerra de sucesión española, y a los ingleses a partir de 1.713, cuando se puso fin a la guerra de sucesión española. (2) Kortako Sebastián = Sebastián de la Cuadra.

-1.709ko urtean Uztaillaren 2an jaio zan Felipe, eta 1.709ko urtean Uztaillaren 29an il.

-1.712ko urtean Bagillaren 7an jaio zan Felipe Pedro Gabriel, eta 1.719ko urtearen Abenduko 28an il.

-1.713ko urtean Iraillaren 23an jaio zan Fernando, eta 1.746ko urtean Uztaillaren 9an espainitarren erregetzara igonda VIn Fernando izenarekin, 1.759ko urtean Dagonillaren l0earte errege izanda ilko zan. Braganzako Barbaragaz ezkonduta, ez eban euki seme alabarik.

## 1. 46. *Vn Felipeen bigarren ezkontza bidetik, euki zituzen alaba semeak.*

1.714ko urtean Abenduaren 24an ezkondu zan bigarrenez Vn Felipe, Farnesiotar Isabelegaz, eta zazpi alaba seme euki zituzen:

-1.716ko urtean Urtarrillaren 20an jaioko zan Karlos, eta 1.759ko urtean Dagonillaren l0etik, 1.788ko urtean Abenduaren 14an il zan arte, espainitarren errege izango zana IIIn Karlosen izenarekin. Eta Sajoniako Maria Amaliagaz ezkonduta, 13 alaba seme euki ebazan.

-1.717ko urtean Epaillaren 21ean jaio, eta 1.717ko urtean Jorraillaren 21ean il zan Frantzizko.

-1.718ko urtean Epaillaren 31n jaio zan Borbontar Maria Biktoria, 1.750eko urtearen Uztaillako 3ltik, 1.777ko urtean Otsaillaren 24 urte arteko bitartean, Portugaleko errege I Josekin ezkonduta, lau alaba seme euki ebazan. 1.781eko urtean Urtarrillaren 15ean il zan.

-1.720ko urtean Epaillaren 15ean jaio zan Parma, Plasenzia, eta Guastallako dukea, I Felipe, bera izan zan Borbon-Parmaren leiñua sortu ebena, eta Frantziako Luisa Isabelegaz ezkonduta iru alaba seme euki ebazan. 1.765eko urtean Uztaillaren 18an il zan bera.

-1.726ko urtean Bagillaren lln jaio zan Maria Teresa Rafaela, 1.745ko urtean Otsaillaren 23an Frantziko erregetzaren XVn Luis ondorengoagaz ezkonduta, seme bat euki eban. 1.746ko urtean Uztaillaren 22an il zan.

-1.727ko urtean Uztaillaren 25ean jaio zan Luis Antonio Jaime, zortzi urtegaz Skalako Santza Maria Dellako kardinala, 1735ko urtean Toledoko artx-apezpiku eta espainitarren gotzai-burutza euki eban, ta 1.754ko urtean eleizako izen-buru orreik alboratuz, 1.761eko urtean Txintxoneko XIII kondea egin zan, bere eriotzerarte, eta Ballabriga ta Rozastar Maria Teresagaz, bera baiño errege mailla berakoagaz edo ezkontza morganatikoan ezkondu zan, iru seme alaba eukinda, erregetzaren ondorioagaz ez ebena zer ikusitik edo baztertuak izan zirenak.

-l.729ko urtean Azaroaren 17an Maria Antonieta Fernanda, eta 1.773ko urtean Otsaillaren 20an, Zerdeñako IIIn Víctor Amadeo erregeagaz ezkonduta 12 alaba seme euki ebazan. 1.785eko urtean Iraillaren 19an il zan.

## 1. 47. *Vn Felipeen eriotzea.*

1.746ko urtean Uztaillaren 9an Vn Felipek, ariñauko urtetik, euki eban ondoezak sakontzen asi ta begiraldia galduz, gorpu ta aurpegiz anditu ta euken astuntasun aundiagaz, ankak oker zituzela agertzen zan bere sendi aurrean, Jean Rank eta Baan Loo'k margoztu eben gorteko argazkian Madrillen Pardoko erakus tokian agertzen diran lez, burmuiñearen odol-bideetan, odolaren danbada gogor batek zain bat apurtuta il zan.

E

Eta bere eriotzaren aste oso bat bete barik oraindiño egonaz, bere seme VIn Fernando erregeak, ama ordea Farnesio´tar Isabel Erretiroko jauretxetik atara ta, Osunako dukesaren Jauregui-etxera bialdu eban, bere seme Luis ta Maria Biktoria alabeagaz batera, ia amabost urteetan bera ta bere anaiarrebak Asturiaseko printzeak izanda edo izateagaitik, zigortuta lez euki ebazalako.



***Vn Felipe bere bigarren emazte Farnesio ‘tar Isabelekin, euki zituzen alaba Semeakaz.***

1.747ko urrengo urtean VIn Fernandok, Farnesiotar Isabel bere ama-ordea, Madrillen egon zan lekutik atara ta San Ildelfonsoren egurast-etxera bialdu eban.

Eta erregiñak erabagi orren aurka, bere asmoa agertu ebenean erregeari itandu eutson, ia zer egin eban berak txarto, oker orreik zuzentzeko.

Erregearen erantzunean: bere erreiñurako artzen ebazan erabagiak, ez ebela bear inoren galdeketarik, arik eta erabagi orreik bete ta onartu orduko.

Vn Felipek bere azken naian agertu eban erabagiagaz, Segobiako San Ildefonsoren erregezko egurast-jauretxean dauan Irukoitz-Deunaren lekaretxean illobiratu eben.

## 1. 48. *Bere nortasuna adierazteko, esan onegaz argituko dogu.*

Esan au, orduan beragaitik agertzen ziran txingote edo zirrimarretatik(1) artutako onegaz adieraziko dogu, adibidez: Txingote margo onek, Frantziaren ordezko Arkourt´eko dukea eta Portokarrero kardinalak, Vn Felipe oiñ-eskuka ibilten doiela eta soka bat samatik lotuta bideratuz, bere goiko buruan esanda: “Ibili ume ibili, kardinalak aginduten dau eta”.

## 1. 49. *32n Jauna Bizkaiko Jauntzan.*

1.700eko Abenduaren 15ean izendatu eben 15 urteko Borbontar Vn Felipe au, Bizkaiko jaun lez.

Eta espainian, Aragoi, Kataluña eta Italiakoakaz sortu ziran ondorengo gudakaz, Bizkaitarrak espainolakin euki gendun elkargo bidez, ainbat laguntza emon bear izan gendun nai diruz, itsasontzi ta guda-mutillakaz.

Euskerazaintza

1.709ko urtean Luyandoko "Malato" zugaitza desagertuta egoan, eta Fueroko 5n legeak bere lgo idazpuruan esaten dauan lez, Bizkaitarrak, euren eskubideak zainduta, ez ebala andik aurrera urtetan, ariñago guda-soldatarik ez bazan ordaintzen. Ostera marratu zan, arriz ondo landuko gurutze bat eginda "A zala Malato Zugaitzaren lekua" esaten eban idaz buruagaz.

1.713an Otsaillaren 27an San Bernardotar Jose eta Fr. Jose del Santisimo Sacramento karmeldarrak artu eben Larreako San Juan Bautista Eleizaren ardura.

Eta urte orreitan Zornotzako karmeldarren(1) sortzaillea il zan lez, Mudarratar andre Teresak, Larrako Eleizari bizkartuta, lekaretxea egitea agindu eban, lenengo lau karmeldar bizi zitezen.

1.714ko urtean Otsaillaren 14an il zan Vn. Felipeen emazte Saboyatar Andre Mª Luisa.

1.714ko urtean Otsaillaren 20an idatziko eutson Vn. Felipek eskutitz ori Bizkaiko Batzarrari, barri ori emoteko.

Bizkaitarrak 1.714ko urtean Jorraillaren 2lean batzartuta, Loraillaren 13 eta 14n egunetarako agindu eben ospatu zitezen elizkizunak, eta auek amaituta, Bizkaiaren erri guztiko arduradunak batzartu(2) ziran, Ballezillo de los Yantares ta Martiniegako Iribilduen jauna, Balladolizen, kantzillergoko entzule ta aolkularitzaren Alferez Nagusia zanari de la Mata ta Linarestar Fernando zuzendari(3) barriari jabetasuna emoteko.

Vn. Felipe, Frantziako gortetik etorrita, goitik berako batzangomende eritzikoa zan, eta Fueroak ez ebazalako ontzat artzen, ainbat arazo aurkeztu euskun, mugaren gora-beran.

Geiago, espainiaren ondorengo guda bidetik, "Nueva Planta"ren legea erabagita, Aragoi ta Katalunyaren Foruak ezereztu ondoren, Bizkaitarrak jakin eban laster agertuko zala onantza, eta alan sortu zan, mugak Gaztelako lurraldetik, Bizkaiko itsasoraiño aldatu gura ebazanean, portuaren merkataritzazko zerga-ordaiñak, gure erriarentzat bearrezkoak ziranak eurak artzeko.

1.718ko urtean Iraillaren l0ean, Bizkaitarrentzat unetxo orreitan Foru Baimen legea(4) eroanda be, naikoa ez zalako izan, orren ondorioz, Bermeo ta Algortako Bizkaitarrak sua emon eutsen mugak zaintzeko ipini ebezan itsasontziei.

1.718ko urtean Urriaren 4an Begoña Udalekukoak batzartu ziran, eta matxinatzen asita, Bilbora ezpata, makilla, eta borrokatzeko aurkitzen ebezan edozein gauzakaz jatzi ziran.

Uribe ta Busturiako errepubliketatik asko alkartu ziran borrokalariekaz, eta gauza asko apurtu ebezan Uri nagusi ta Bilboko aundikien jauretxetan.

Azko il ziran, Bermioko Udalaren balkoitik Ezkoitz´tar Martin ardura andiko gizona bota ebenetik aurrera.

Portugaleten mugaren zaintzarako egoan itsasontzi kabarrari sua emonda, Otxandion, Rokaberdeko markesa ta bere laguna il da, baita batez be, Señorioko batzarrean arduradun nagusi izan zan Aranatar Enrike il ebenean.

Vn. Felipek ezereztu eban agindu ori, eta mugak ostera joan ziran euren lekuetara.

Baiña, matxinatuaren buru ibili ziranei gaur lez, ez Auzi bideak zabaldu barik, amabost Bizkaitar ta Gipuzkoako Deba ibaiaren ertzean Eskoriatzako bat atxilotuta.

---

(1) Karmeldarrak, 1.150 urte inguruan, Palestina´ko (monte Carmelo) eremutar edo bakar-zale artean sortu ziran, eta 1.237ko urtean Mauritarren bultzakada bidez Europara aldatuta, lekaide biurtu ziran. (2) Arduradunak = procuradores. (3) Zuzendari = corregidor. (4) Foru baimen legea = Pase Foral.

Eta 1.719ko urtean Urtarrillaren 18an ilketara zigortu ondoren, Bilboko espetxean il ebazanak.

Gero euren gorpuari buruak moztuz, Bilboko Enparantza Barrira ekarri ebezan buru orreik, Bilbaoko leku ezberdiñetan ipinteko urkabetutako(1) "BURU" orreik, erritarrak ikusi egiezan.

Bizkaitarrak, XVIIIn gizaldi guztian ibili bear izan eben erregeagaz auziketetan, gure Foru-Legearen oreka zaintzeko.

## 1. 50. *33n Jauna Bizkaiko Jauntzan.*

1.724ko urtean Urtarrillaren 10ean Vn. Felipek, euken erregetzaren ardurea itxi eban bere seme I Luisen ardurapean.

1.724ko urtean Urtarrillaren 28an I Luis egin eben errege, eta eskutitz bat bialdu eben Bizkaitar batzarrera, zelan izendatu ebela espainitarren errege esanez.

1.724ko urtean Otsaillaren 22an Irakurri zan eskutitz ori Gernikako Batzarrean, eta orduan egoan diru zai(2) edo arduradun nagusiak(3) esan ebazan berbakaz: ***"Nobles Vizkaynos, oid, oid, oid, Vizcaya, Vizkaya, Vizkaya por el Señor Don Luis I de este nombre, Señor de Vizkaya y Rey de las espanias"*** berba orreik bi bider esanda Bizkaiko ikurra altzauta euki eben bitartean, Bizkaitar arduradunen erantzuna: ***"Viva, viva, viva los más felices y dilatados años, y reyne prósperamente el Señor Don Luis primero del nombre Señor de Vizkaya y Rey de las espanias, nuestro Señor".***

Kañoien estandak eginda Bizkaiko itsas bazter guztietan.

1.724ko urtean Dagonillaren 31n il zan I Luis, ille orren 19an artu eban baztanga edo nabarren(4) gaixotasunagaz.

1.724ko urtean Iraillaren 17an Vn. Felipek Bizkaitar Batzarrari bialdu eutson eskutitza, eta Urrillaren 5ean batzartuta, ille orren 17 ta 18garren egunetarako agindu ziran ospatzeko elizkizunak.

Eta 1.724ko urtean Azaroaren 25ean Vn. Feliperen semea VIn. Fernando izendatu eben espainitarren errege, 12 urte euki ebazala, Vn. Felipe aitaren ardurapean, gero Vn Felipe bera izendatuta espainitarren errege ostera, arik eta burmuiñearen odol-bideetan, odolaren danbada gogor batek zain bat apurtuta il zan arte.

## 1. 51. *Frantziko eta Nafarroako erregetzan, XVn Luis erregea.*





***XVn Luis, Frantzia ta Nafarroako erregea eta beren armaría***

(1) Urkabetutako = decapitados y muertos en el patíbulo o degolladero. (2) Diru-zain = sindiko. (3) Arduradun = procurador. (4) Baztanga edo nabarren gaixotasunagaz = enfermedad de la viruela.

1.710eko urtean Otsaillaren 15ean Bersalleseko jauretxean jaio zan Frantzia ta Nafar errege XVn Luis au, XIVn Luis Eguzki Erregea bere birraititen erregetzan, Ondo Maitatua esaten eutsoenai.

Borgoñako Luis dukearen ta Saboyako Maria Adelaidaren bigarren semea zan.

Bere aitite Luis, XIVn Luis erregearen seme nagusia izanda eta Frantziko erregetzaren ondoretza eukinda, beren izen buru Anjouko dukea eta Frantziko ***Fils´en*** izenak artuko ebazan jaiotzatik.

Eta 1.774ko urtean Loraillaren l0ean Bersalleseko Jauregui-etxe ortan il.

1.715-1.774ko urte bitartean izan zan Frantzia ta Nafarroako errege, baita Andorrako printzearen alkartekoa Anjouko dukearen izenagaz.

XVn Luis onek bost urte euki ebazanean, XIVn Luis bere birraititeen ondorengotik artu eban Frantzia eta Nafarroako erregetza, bere gazte denboran Frantziko jaurkintza, errege ordegoen eskuetan itzita.

Adiñetara eldu zanean, bere irakasle izan zan Fleury kardinalaren eskuetan itzi eban erregetza bi orren jaurkintza.

Eta bere birraitite XIVn Luisen alderantziz, ez eban euki erritarrakaz zuzentasunezko artu emonik, bere ministruakin sarri alkartuz, euren aurkako politika eroanda, diplomatiku ta salatarizko sare aundi bat sortu eban, ministroak ta erritarrak bere kontrolpean ezartzeko, emendik aurrera bideak zabalduz, 1.789ko urtean Frantzian egin zan matxintasunezko iraulketa aundi ori sortu zediñ.

Maitatuaren izenagaz bizi zan XVn Luis bere erregetzaren asieran, bere izaera kontuan arruta baiña, azkar aldatu ziran beren aurka, On Maitatuaren ez izena ipinita.

Urteak aurrera doizela, eta erabagiak artzeko euki eban makaltasuna, bai bere maitaleen ospe edo arrandiagaz, laster maldaberatu zan berak euken erri-ospea, bera il zanean Parisen ospakunde batzuk eginda, bere eriotzaren eleizkisunak ixilean egin bear izanda, ez zitezen sortu XIVn Luisekin sortu ziren isekak.

XVn Luisek bere erregetzan, garaipen aundiak lortu ebazan gudalezko borrokakin, Lorenako dukaterria ta Korzega beraganatu egin eban orduan. Kolonizaziozko kaisertzan baiña, lurralde aundiak galdu ebazan Ingalaterraren aurka.

## 1.52. ***Orleanseko dukearen erregeen ordegotza.***

1.715eko urtean eta Dagonillaren azken egunetan XIVn Luis, eriotz larrian egoan zatar edo ustelduraren gaitzaldiagaz.

1.715eko urtean Dagonillaren 26an bere bost urteko eren-illobari deituta, berba auek esan eutsozan:

Seme, errege aundia izango zara.

Ezaitez antzeratu nire gogokoak izan diran etxekuntza eta gudakin.

Baketsu bizi zaitez alderantziz, zure auzoekin.

Jaungoikuari itzuli Berea dana.

Ezkerrak emon Jaungoikuari, eta on artu ardurapetu dautsozan eginkizunekin.

Alegindu zaitez zure eskuko edo azpikuak Jaungoikua goretsi egien.

Aolku onaren atzean ibili beti.

Eta nire erritarrakaz ez dotena jakin zuzentzen zoriontzuak izan zediñ, guztiz atsekabetu egiten nauana, alegindu zaitez zu euren zoriontasunagaz nire utsunak zuzenduz.

1.715eko urtean Iraillaren lean il zan XIVn Luis Eguzki erregea, ta XVn Luis egin eben errege, Orleanstar IIn Felipeen errege ordegotzan, arik ta XVn Luisek adiñetara eldu arte.

Errege ordezkoaren erakunde au, 14 bazkidekin osotzen zan. Eta Orleanseko IIn Felipe erakunde orren lendakaria izan arren, erabagi guztiak, batzarkideen autarki geienak batzen ebazanak irabazten eban.

Eta erakunde orren osotasuna Maine, Toulouse, ta XIVn Luisek bere jaurkintzazko lanetan euki ebazan beste kideekin betetan zan lez, Orleanseko IIn Felipeen eritziak, ia iñoiz ez ziran onartzen.

Batzarkide orren borondatea, Maine, Toulouse, ta Maintenon´en(1) aldera kokatu zan, eta beste aldetik Orleanseko dukea IIn Feliperekin.

Orleanseko IIn Felipen aldea, antziñako zaldun edo ezpatazko aundiki askoren laguntza artu eban(2), Robe´ko aundikien(3) aurka edo erregearen jaurkintzazko lanen zerbitzutik asken agertutako aundikiak ziranen aurka.

XIVn Luisek beti baztartu egiten ebazan aizto edo ezpataren aundiki oneik jaurkintzazko lanetatik, erri-xearen zaldun edo aundikien mesede, auek gero robe´ko aundikien artean sartzen ziranak, eurekin kontrol geiago eukiteko.

Aldaketa aundi bat sortu daiten itxaropenean egon ziran zaldun eta ezpataren aundikiak jaurketazko arloaren politikan, asarratuta egon ziralako erregetzaren sasiko seme Maine eta Toulous´ekin, erregeen ondorengo legearen kanpoko edo lotsagarritasunezkoak ziralako, oiturazko ondoretasunetik.

Laster artu eben Orleanseko IIn Felipek, XVn Luisen errege ordezkotza, eta bere lenengo erabagi lez, Bersalles jauretxeko gortea, Paris erdian kokatuta egon zan Royal jauretxe txikerrera aldatu eban errege ordegotz ori, XVn Luis printzea, bere kontrolpean eukiteko.

Eta Orleanseko duke orrek ardura aundiak euki arren bere erregeen ordegotza orregaz, ez ebazan itzi, gortean eurak gozatzeko egiten ebazan jaialdiak, errege ordegotza ori, galbide andi baten biurtuta.

Orregaitik bere gaztetasunean XVn Luisek, ez eban bakarrik galbide ori bizi, lardazki edo eriotzezko ikaraz be bizi zalako.

1.719ko urtean bere izeko Berry´ko dukesea Orleanseko IIn Felipeen lagun aundia zanak, iskanbilla edo gau-festa orreitan ibilten zan, eta asekeria edo tripa-festa orregaz atrapetan ebazan mozkor ta eukiten ebazan izkutuzko aurduntasun bitartez il zan.

Eta XVn Luisek senitasun geiena galdu ebalako berak urte bi euki ebazanean, nortasun ixil-zale, lotzor edo beldurkor antzeko bat euki eban, izaera orren bitartez goibeltasun, tristuran eta umorezko kasketaldi on ta txar gogorrak eukinda.

XVn Luisek euki eban laguntasun aundiena orduko denboran, espainitarren errege Vn Felipeen alaba Borbontar Mariana Biktoria izan zan, umetatik Frantzira eroan ebena Luis errege umeagaz ezkontzeko itxaropenean.

(1) Mme. Maintenon = Francoise d´Aubigné, Maintenonen Markesa emakume eder au, Niort´eko espetxean jaio zan eta 1.635-1.719ko urte bitartean bizi ondoren berak irasi eban Saint´-Zir´eko lekaidetxean il. Agrippa d´Aubigné olerkariaren billoba zan. = XlVn Luis ezkonduta egon zan espainitar Maria Teresakin alargun geratuta, Skarron olerkarien alargun egoan Mme. Maintenonegaz ezkondu zan ixilean. Eragipen aundia euki ebena XIVn Luisekin jaurkintza arloetan eta batez be, katolikotasunaren arloan, bera erlijio ortara aldatu zanetik. (2) Noblesse d´épée = nobleza de espadas. (3) Robe´ko aundikiak = Noblesse de Robe, edo Euskeraz, aritzaren-aundikiak.

Eta erregetza biak ezkontza orren atzean ibili arren, gazteak izanda ume bi orreik aiñ arin ezkontzeko, Frantzezak arrizkuan geratu ziran, XVn Luis ilten bazan, beste errege ondorengorik ez zalako geratzen.

Eta urrengo ondorengotasun orregaz bildur, Orleanseko leiñukoak Frantziko erregetzagaz jabetzeko almendun agertzen ziralako, Frantziko erregearen ordezko erakundeak, beartu edo premiatu ebazan Mariana Biktoriaren espainitar gurasoak, umea Frantzira itzuli egien.

XVn Luis, 14 urte euki zituzenetik asi zan gazteen artean naastuten, gertaldi ezberdiñak eukinda eurekin.

Maurize Leber akademikuak erregeari egin eutson bizi-kondairan, erregeak euki eben omoseksukoitasunagaitik berba egiten dau: "mutil gazteengaitik euki eban erakarpena, bere umetasunetik ekarten ebala" esanda.

## 1. 53. *André Erkule Fleury kardinala*(1).



***Andre Erkule Fleury kardinala***

XlVn Luisen azken nai bidetik Orleanseko IIn Felipek Borboneko dukea il zanean, Andre Erkule Fleury kardinala izendatu eban XVn Luisen irakasle lez, 1.726ko urterarte egonda beragaz.

Fleury kardinal onek, diru kontuak orekatu, Jansenismoaren irakaskintza ezereztu, eta salerosketak geitu ebazan.

Ez zan guda laguna, eta Ingelesak guda arloetan bakezkoak aurkezten ziran lez, Frantzia ta Ingalaterraren artean ez zan egon borrokarik 1.740ko urterarte.

Poloniako ondorengotasunaren borrokan be sartuta egoan espainitarrakaz batera, eta garaille urten arren, ez eben euki zeregiñik Polakoen ondorengotasunagaz, naita Lorenako dukadoa eta Napoleseko erregetzagaz geratu arren.

Ori izan zan XVn Luisentzat atzerritarrezko garaipen aundiena, ta bere zoriontasunezko aldi onena kardinal zarraren aolkupean.

(1) André Erkule Fleury Kardinala = 1.653-1.743ko urte bitartean bizi zana. 1.715eko urtetik Frantziko XVn Luisen irakasle ta errege ordezko erakundearen kide, 1.717ko urtean Frantziko Akademikua, 1.726ko urtean Frantziko leen ministrua, jansenismo aedo Jansenio´tar Kornelioren irakaskintza ezereztu ta diruaren kontuak orekatu ebazanak, naita 1.740ko urtean Austriatarrakaz agertu jako guda, ezin alderagiñ.

Zoritxarrez, Austriaren ondorengozko gudan sartuta Prusiari laguntzearren, Absburgotar onen Erroma Jermaniko kaisertza betirako ezereztutearren, Austriaren ondorengotasunezko borrokan sartzeak, kalte aundiak egin eutsoezan Frantzezari, denbora luzeetan ez ebena aiztuko.

A ta guzti, Fleury kardinal zaar onek, beti euki eban kontrolatuta XVn Luis au: bere gazte denboran emoneko ikasketakaz eta sakratutasunezko arloagaitik sartzen eutson lots-bildurragaz, bere etorkizuna gogortu edo finkatzeko alegiñean.

Fleury kardinal onek, beti egon zan zur, XVn Luisek sortzen ebazan gaizkibide edo erorbideai.

Eta keskatsu, bere izena Frantziko erregetzan gizon aldun edo indartsuena agertzearren, XVn Luisegaz alegindu zan, Mariana bere emaztetik urruntzea, onek indar geigirik artu ez egian jaurkintzazko zeregiñetan.

Zaindu be egin eutson erregeari, bere ogetik aldatzen ziran maitaleak, eurak kontrolpean eukiteko, eta olango maitale baten bat, aipu edo ospe apurbat lortu ezkero, adi egoten zan Fleury kardinala, XVn Luis andik urrundu egian, geienetan nezka barriak berari aurkeztuta.

Fleury kardinalak, bera il arte euki eban XVn Luis kontrolatuta, kontu aundiak eukinda erregearen ogean sartzen ziran emakumeakaz, berak beti barriak aurkeztuta, emakume baten bat, eragipen aundirik ez egian lortu XVn Luisekin.

XVn Luisek, 1.743ko urtean Fleury kardinala il zanetik bakarrik euki eban askatasun geiago bere jaurkintzan, nai andra kontuen ugaritasunean baten batek eragipen aundia lortu erregearen jaurkintzagaz, Ponpadur eta Du Barriko markesak artu eben bezala.

## 1. 54. *María Leszkzynska, Polaka erregiña.*

XVn Luisek 22 urte eukezanean il zan Fleury kardinala, eta jaurkintza beren eskuetan artu ebanean, Frantziaren gorteko jaurlariak gogoratu ziran, ordua zala erregearen ezkontza antolatzeko.

Europa guztitik asi ziran aukeratzen, Frantziko erregiña izango zana, Errusiako I Isabel artean zala, eta asarratu egin zana bera baztartu egin ebelako, azken baten Poloniako Maria Leszkzynska, Poloniako erregetzatik bota eben I Estanislao Leszkzynski erregearen alabea zana aukeratu ebanean Frantziko erregiña lez.

Maria onek, errege leiñuetatik etorri arren, ez eban euki dirurik, baiña naiko elduta egoan, Frantziko erregetzari ondorengo bat ekarteko.



***María Leszkzynska, Poloniatik Frantzira etorritako erregiña***

Euskerazaintza

1.725eko urtean Iraillaren 5ean ezkondu ziran Reims´eko Eleiz Nagusian, ta Maria onek lenengoetan erregeagaz on baiño obeto egon, baita erregea beragaz be ain barnekidetuta egon arren, ainbeste aurduntasun eta beste ainbeste aurregiteagaz, erregiñaren ederrezko irudia moztuten joan zan, amar urtetan, amar alaba seme emon ondoren, ortik aurrera erregea urrunduten asita Mariarengandik, erregearen ogea, maitale askori zabalduta.

Maria bere aurgintzaz gaiñ, erlijioa euki eban maite, eta ain bat mesede egiten ebazan erritarren artean Parisen ospe aundia artu arte.

A ta guzti ortik aurrera erregeak, galtzen joan zan Mariagaz batera erregetzaren ardurak ordezkatzeko euki eben zaletasuna, ta erregearen maitaleak bera baiño zaletasun aundiagoa artzen ebalako erregearen aldetik, ume naikoak ekarri ebazala mundu onetara ta, bere seme alaba ta erlijiozko gauzakaz arduratu zan ortik aurrera, erregeagandik urrunduta.

## 1. 55. *Madame Ponpadour markesa ta duke andrea.*

1.743ko urtean il zan Fleury kardinala, eta orduan agertu zan erregea bere erregezko ardurak beteten, naita ardura onen beteteak, egitik urrun egon arren.

1.745ko urtean ainbeste jaialdi artean XVn Luisek, bere seme bat ezkontzen zala ta dantzaldi bat ospatu eban, eta dantzaldi orreitan erregeak, jauntxo bategaz ezkonduta egoan Jeanne Antoinette Poisson andre ederra ezagututa, XVn Luisek Bersalleseko jauretxera eroan eban bizitzera.

1.745ko urtean Iraillaren 14an XVn Luisek Jeanne-Antoinette andra ori, senarrengandik legez bananduta, gortean aurkeztu eban agintari danez, Ponpadourreko Markesa izendatuta.

Duke-andrea be izendatu eban Luisek, eskubidea emonda erregiñaren ondoan ezartzeko, Ponpadourreko Markesa orrek sekula ez eban erabili eskubide ori, erregiñagaitik begirun aundia euki ebalako.



***Ponpadourreko Markesa ta Duke Andrea.***

1.753ko urtetik aurrera nai ta Ponpadurreko markesa ori erregearen ogera joan ez arren, gortean beti artu eben bera leen begikoa lez izan bazan.

Eta berak zaletu eban XVn Luis neska gazteakaz ibili zediñ, euren oar gitxi edo jakiña, aztura gitxikoak edo jendekuntz gitxikoak izateagaitik, berari gerizperik ez egiotzen egin.

Denboraldi onetan, Europa guztian erti edo trebetasunezko lanak gorantza joan ziran, rokoko aztura edo oikuntzazko jaidura aundia euki arte.

Bersallesen, Jauregui-txiker bat Petit Trianon deitu zanagaz, trebetasunezko lan orreik gorantza joan ziran, Frantzia apaintasun eta andiki oitura orretan, Europaren erdi gune lez biurtuta.

Atzerritarrezko politikan baiña, euki ebezan zoritxarrak ugari edo ta ezinbestekoak biurtu jakien.

Austriatarren ondorengotasunezko gudak, asi ziran bezela lez amaituz, frantzezari ez eutzen ziurtasunezko gauzarik ekarri, erraltxor-zergazko arloan baiezbadazko zentzuz agertzea baiño.

Frantziaren barneko diru-urri, lanaren-eza edo ta gobernuaren utsaldi orreik, sakondu egin ziran, gorteko agintariak erlijiozko arloetan XVn Luisen aurka agertuta, Luisek, Josu Lagunai eta Aita Santuaren Unigenituseko buldak bezala, ongarritu egiten ebazalako.

XVn Luisen ospea erritarren artean, erri-narda edo errigorrototsuan biurtu zan, gudaren ilketak ekarri eutsezan gose ta izurriteak aundiak izan ziralako.

Frantzian aundiagotu egingo zana, Ponpadurreko markesa orren aolkutik, urrengo zazpi urteko gudara eroan ebazanean.

Pariseko erritarrak izkirimiriz andre ori laidotzeko, baita bere izen ta irudiak gaizki erazteko, gordinkeriak esan eta ormetatik zantarkerizko irudiak margoztuteko batzen ziran.

Eta artu ziran diplomazizko neurriak ez eben balio ezetarako be, artzen ebazan ipurdiko edo ondamen aurrean.

Frantziko itsasontzidiak ezereztu edo urperatu ebazan itsas zabaletan, XVn Luis bera ta beren ministruak griña gabean kokatuta, kolonizatuta eukezan lurraldeagaitik.

Ezin bestekoa zan Frantziak eukezan koloniak galtzea, frantzezak galtzapen aundiak euki ebezalako Europako gudal-tokietatik, Annonberren egin eben garaipenezko sarrera be, ardurabagean artuta.

Frantziak borroka bidetik 200.000 gudari il euki ebazan, eta itsasontzidi barik geratuz, Europan euki eban goi-maillazko almenean azken lekuan kokatu ziran, berakada aundi bat sortuta erraltxor-zerga arloetan, ia eun urtetan ez zana orekazko neurrian sartuko.

## 1.56. *XVn Luisek euki ebazan alaba semeak.*

1.725eko urtean Iraillaren 4an, Poloniako Leszkzynska´tar Maria´gaz ezkondu zan, eta amaika alaba seme euki ebazan. Zortzi neska eta iru mutil, orretatik iru baiño besterik ez ziranak elduko adiñetara.

-Frantziko Luisa Isabel, ondorengo alabea, 1.727-1.759ko urte bitartean bizi zana, eta Parmako I Felipegaz ezkondu zana.

-Frantziko Ana Enriketa, bigarren ondorengoa, eta Luisa Isabelen bikotza izanda 1.727-1.752ko urte bitartean bizi zana. Ez zan ezkondu.

-Frantziko Maria Luisa, irugarren ondorengoa, 1.728-1.733ko urte bitartean bizi zana.

-Frantziako Luis, 1.729ko urtetik 1.765ko urte bitartean biziko zana, eta erregetzarako leen ondorengotu ostean ezkonduta, XVIn Luis, XVIIIn Luis eta Xn Karlos, Frantziak eukingo ebazan urrengo iru erregeen aita izango zan.

-Frantziako Felipe Anjouko dukea, 1.730ko urtetik 1.733ko urte bitartean biziko zana.

-Frantziako Maria Adelaida, laugarren neskea, 1.732ko urtetik 1.800eko urteraiño bizi zana. Ez zan ezkondu.

-Frantziako Biktoria, bostgarren neskea, 1.733ko urtetik 1.799ko urteraiño bizi zana. Sekula ez zan ezkondu.

-Frantziko Sofía, seigarren neskea, 1.734ko urtetik 1.782ko urteraiño bizi zana. Au be sekula ez zan ezkondu.

-1.735eko urtean mutil bat, ilda jaio zana.

-Frantziko Teresa Felizita, zazpigarren neskea, 1.736ko urtetik 1.744ko urteraiño bizi zana.

-Frantziko Luisa Maria, zortzigarren neskea, 1.737ko urtetik 1.787ko urteraiño bizi zana. Sekula ez zan ezkondu ta lekaime sartuz, Iparralderantza joan zan gortetik urrunduta.

**Mailly-Nesle´tar Pauline Felizitigaz.**

-Bitimille´tar Karlos Manuel, 1.741eko urtetik 1.814ko urterarte bizi zana, Erdi-Luis deitzen eutsona.

**O´Murpy´tar María Louisekin.**

-Saint Antoineko Agata Luisa, 1.754ko urtetik 1.774ko urteraiño bizi zana Txarzeko markesa lez.

-Eta Le Normant de Flagak, 1.768ko urtetik- ?.

**Txalus´tar Françua´rekin.**

-Felipe Luis Narbonne ta Larako dukea, 1.750ko urtetik 1.834ko urteraiño bizi zana.

-Eta Luis Maria Narbonneko kondea, 1.755eko urtetik 1.813ko urteraiño bizi zana.

**Eta Boisselet´tar Maria Teresarekin.**

-Kadet de Gassikourt Txarles Luis, 1769ko urtetik 1.821eko urteraiño bizi zana kaisertzaren zaldun lez.

1.774ko urtean Loraillaren 10ean Bersalleseko Jauregui-etxe ortan il zan, ta bere billoba XVIn Luis igongo eban Frantziako erregearen aulkira.

## 1. 57. *VIn Fernando Espainiako erregetzan.*

-1.713ko urtean Iraillaren 23an Madrillen jaio zan, Vn Felipe eta bere lenengo emazte Saboya´tar Maria Luisa Grabiela´ren irugarren seme au.

1.729ko urtean, Badajoseko San Juan Bautistaren Eleiz Nagusian ezkondu zan Braganza´tar Barbaragaz, espainiako erregiña izan zana 1.758ko urtean il zan arte.

1.746ko urtetik, 1.759ko urterarte izan zan Espainiako errege VIn Fernando au.

Eta 1.759ko urtean Dagonillaren 10ean Odon´eko Billabiziosan il.

## 1.58. *VIn Fernando Asturiaseko printzea.*

1.713ko urtean Iraillaren 23an jaio zanean, anai bi euki ebazan erregetzaren ondorengo lez, Luis eta Felipe Pedro 1.707 eta l.712ko urtetan jaioak.



***Espainiako VIn Fernando erregea, bere armarria ta bere idazpeko zirriborroa.***

1.718ko urtean il zan Felipe Pedro, Femando bigarren lekuan geratuta erregetzaren ondorengotasunean, Luisek Fernando baiño sei urte geiago euki ebazalako.

Fernandoren aurtzaroa, umezurtzen aurtzaroa izan zan, ama bera jaio ta bost illabetera il zalako, eta bere aita Vn Felipek, andik zazpi illabetetara ostera ezkondu zanean Parmako Farnesio´tar Isabelekin, onek emendik aurrera bere seme alabagandik geiago arduratu zalako Fernandokin baiño, bere semea Italiako erregea izan zediñ.

Ortik aurrera VIn Fernando onek, eskutitzaren bitartez bakarrik eukiten ebazan bere artu emonak aitagaz eta bere ama ordearekin.

1.721eko urtean, gizonak baiño besterik sartu ezin leikien gela berezi bat ipini eutsoen Fernandori berentzat bakarrik, bere osasuna ta erregetzarako euki bear izan ebezan ikasketak beteteko, Salazar kondea arduratuta eginkizun orretarako.

Eta 1.724ko urtean Urtarrillaren l0ean sortu ziranakaz, Fernando ia errege egin eben, berak amaika urte bakarrik euki ebazanean.

1.724ko urtean Urtarrillaren l0en Vn Felipek agiri bat sinatu eban, amazazpi urte euki zituzen Luisen eskuetan izten ebala espainitarren erregetza, amabos urteko Orleanseko Luisa Isabelekin ezkonduta egoana.

I Luis orrek baiña zortzi illabete jaurkituta, Dagonillaren 31n il zan nabarreri edo baztangarekin gaisotuta.

Ondorengo lez Fernando egin bear izan eben errege, Farnesiotar Isabel Vn Felipeen emaztea azkar ibilita baiña, lortu eban Vn Felipe ostera errege izan zediñ.

1.724ko urtean Iraillaren 7an Luis il zanetik aste bat beranduago, Vn Felipe egin eben errege ostera, eta Iraillaren 25ean Gaztelako gorteak batzartuz, Femando Asturiaseko printzea.

1.724ko urtetik, ta 1.728ko urtean Braganzatar Barbaragaz ezkonduta, 1.746ko urterarte izan ziran Asturiaseko printzeak, 1.733ko urtetik eta Farnesiotar Isabelen aginduz bere kon-

trolpean eukiteko, gorteko banazean bizi ziran, euren kanpoko ikusketak be murriztuta eukinez(1).

1.746ko urtean Uztaillaren 9an, buruko zan bat apurtuta il zan Vn Felipe au, eta aste bat bete orduko VIn Fernandok, Farnesiotar Isabel ama ordea, Madrilleko On Bakartasunezko Jauregui etxetik urteteko eta Osunako dukesaren etxera bialdu eban bere seme alaba Luis eta Maria Biktoriagaz.

1.747ko urtean VIn Fernandok, ostera atara eban bere ama orde ori Madrilletik, bere bizitza San Ildefonso egurasteko jauretzean ezarrita.

Farnesio´tar Isabelek eskutitz bat bialdu eutson minduta VIn Fernandori: "Berak jakin gura eukela, zeozertan uts egin badau, berari esatea, ostera zuzentzeko".

VIn Fernandok beste eskutitz bategaz erantzunda: "Nire erregetzatan erabagitzen dodazanak, ez dabe iñoren aolkurik onartzen, menpekotu ta egin edo bete barik".

## 1. 59. ***VIn Fernandoren erregetza.***

1.746ko urtean VIn Fernando espainitarren erregetza artu ebanean, Austriatarren ondorengo guda amaitzen egoan.

1.748ko urtean Akisgraneko bakeagaz amaitu zan guda ori, espainitarrentzat ez ebena ezeren onaurkirik euki.

Lenengo egin ebena, Farnesiotar Isabel jaurkintzazko eragipenetik kendu, bere Italiar jaurlariakaz batera.

Eta VIn Fernandok bakez ezarrita, kanporako bakezko ta alderdibageko politika bateri bultza eutson, espainitarren jaurkintzan, barrikuntza batzuk egiteko.

Berrikuntza onen aintzindariak, frantzez zale Ensenadako Markesa, ta Karbajal ta Lankaster´tar Jose Ingalaterraren zale izan ziran.

1.749ko urtean Dagonillaren 30ean VIn Fernandok, kittanuen jarraikada agindu eban, espainitarren erregetzan guztiz aienatu zitezen, "Sarekada Aundia"ren izena artu ebana.

1.751ko Uztaillaren 2an VIn Fernandok, masoiak edo ta masoikeria debekatu eban.

1.754ko urtean amaitu zan aintzindaririen borroka au Karbajal il zanean, eta Ensenadako markesa jaurkintzatik urten ebanean, erregetzaren gizon indartsu lez Wall´-tar Ricardo geratu zan.

## 1. 60. ***Ensenadako Markesaren egitarauak(2).***

VIn Fernando onen erregetzan eroan ziran egitarauetatik, Ensenadako Markes onek eroan ebazanak izan ziran garrantzitzuenak, Erri-Altxor, Indias ta Itsasoko ardurean egoala.

Batez be, laterriaren ardurea sartu ebalako eginkizun orretan, euren espaini zar ori barritzeko.

Atzerritarren aurrean orretarako, indarkerizko itxuraz agertzea egokitzen jakon, Frantzia ta Ingalaterrak kide lez artu egien, alegiñ orrek ez ebena zer ikusirik euki, Jibraltarreko muturren utzierazko gora beran.

Ensenadako markes onen egitarauetan aurkezten doguna:

(1) Gero Vln Fernando errege izanda, Famesiotar Isabelek bere ama-ordeak itanduko eutson, "aber zer egin eutson berak, bera gortetik botateko". (2) Ensenadako Markesaren Egitarauak = los proyectos del Marqués de la Ensenada.

-1.749ko urtean aurkeztu ebana, betiko zergaren ordez, zerga bakar baten bakarrik antolatuta, danoentzat kalastrotuz bakotzaren jabetasunezko ondasunak.

-Gorteak eta gudalozteen ordezkoak artzen ebazan diruak laterrien bidetik be aurkeztu eban, moztu edo txikituteko. Zaldun edo aundikiak aurkeztu eutson aurkaritzagaz, ezereztu zana.

-1.752ko urtean, Errege-Diru bialtzekoa sortu, diru-etxe bat irasita, erri-diru ta bakotzen diruak atzerrira erreztasunez bialtzeko.

Eginkizun orregaz, atzerrirako eta atzerrian egiten ziran diru guztien artu emonak Erregearen-Diru-etxe orren ardurapean geratzen ziralako, Laterriren onerako.

IIIn Karlosek irasi eban San Karlos Diru-Etxearen, aurreko lez artu leike Errege-Dirua Bialtzeko etxe au.

Ameriketako diru kontuak be bizkortu ebazan, Indiaseko saltzaille bakarrak euki eben oro-biltzegaz amaitu gurean, salerosteko ordezkaritzetan sortzen ziran zuzengabekeriekaz amaitzeko.

Eta orretarako, itsasontzidien indarrezko kontrolak kenduta, iker lanetan egon ziran itsasontzien laguntza artu eban.

Era barri au, itsasontzidien indarrezko babesa kenduta, itsasontzi baimendu batengaitik aldatu zan, askatasun guztiagaz ibili zediñ Ameriketako salerosketetan.

Eta ekintza onegaz diru sarrerak geiagotuz, ta amarruko edo iruzurra gitxiagotu arren, aurkari asko aurkitu ebazan, euren kontura ibili ziran sakerosketarien artean.

-A ta guzti zama-ontzien[1] antolaketa barrian sartu bear zan. Eta orretarako itsasontzidi aundi ta indartsu bat eukitea bearrezkoa zan, Frantzia ta Ingalaterrak begirunez artu egien.

Ensenadako markesak orretarako, itsasontzidien diru-kontuak geiagotu ebazan, Kadiz, Ferrol, Kartajena eta La Abanako ontzitegien almenak aundiagotuz, XVIIIn gizalde au, asiera lez onartu leikena, espainitarren itsasontzidiko indarrean.

1.752eko urte onetan Erregeen San Fernando Eder Lanaren Jakitun-Batzarra irasi zan.

Eta kittanu guztien atxiloketa be aginduta, gizonak, emakumeen gandik banadu ebazan, ontzi-lantegi ta meaztegietan beartuta lan egien, eta emakumeak lantegietan. 14 urte berako neska mutillak, apaiz lekaidezko ikastetxeetan sartuz.

1.753ko urtean Eleizagaz bakeztu edo bateratzeko, eleiz-itun bat egin zan, Vn Felipetik artu emonak txarto etorten ziralako, Aita Santuak Karlos artxidukea onartu ebanean espainitar erregetzarako.

Ordutik etorri ziran oker eleizagaz euki ebazan artu emonak, erregekerizko zaletasunen bidetik Eleiz-itun au eginda, XIVn Benediktok orokorrezko zaindari-eskubideak artu ebazan, erregearentzat diru kontuan, balio aundiak euki ebazanak, baita apaiz-lekaide-lekaime guztiak kontrolpean eukiteko.

## 1. 61. ***Karbajalek eroan eban atzerrizko politikea.***

Karbajalek, espainitarrak, austriatarren ondorengotasunezko gudan eta zazpi urteko gudatan, borrokarako euki eban indarra sendotu eban.

Eta euki eben garrantzienatariko arazoa Portugalekin, Sakramento koloniagaitik izan zan, Ingelesaren izkutuko salgaiei mezede egiten eutsielako zidar edo urre-zurizko ibaitik.

1.750eko urtean Karbajal onek, lortu eban Portugalek uko egiotzela koloni orreri eta bere urre-zurizko ibaitik aske ibilte ori.

Espainitarrak ordez, Brasilleko mugan lurralde bi emon bearrean geratuta.

(1) Zama-ontzi = barco o buque de carga.

Bata Amazonazeko lurraldeetan, eta bestea Amazonazeko ego aldean, ogeitaamarreko guaranien giza taldeetatik, zazpi euki ebazanak Josu Lagunak euren ardurapean.

Eta orretarako espainol agintariak Josu Lagun auek bota egin bear ebazan lez, borrokan asita, amaika urteetako gudak euki ebazan, espainitarren gorteko artu emonak arrizku-aldi edo sakon baten sartuta.

Ensenadako markesa, Josu Lagunen aldekoa zana eta Josu Lagunen artekoa be izan zan erregearen aitorlari Rabagor´tar aita, kendu ebazan euren lan lekuetatik, Portugalegaz euki ebazan itzarmen edo egiuneai kalte egiten eutsoelako.

## 1.62. *1.758ko Dagonillaren 1.759ko Dagonillara, errege bageko urtea.*

1.758ko urtearen Udabarrian Braganza´tar Barbara erregiña arnas nekekoa zan lez, Aranju-ezeko jauretxera eroan eban, arnasa obeto artukoen itxaropenean.

Eta lenengoetan obeto joan zala gogoan izan edo oldoztu arren, egia, miñak eta itomenak ostera agertu jakozela zan, arratzaldez eta gauetan sukarra asko igonda.

1.758ko Dagonillaren 25ean, mintzo edo abotsa galdu eban, eta egun bi egonda bere askeneneko arnasetan, Dagonillaren 27an ilda, bere gorpua, berak irasi eban Erregezko Saleztarren lekaimetxera eroan eben, eleiz lurpeko illobian gordetako.

Erregiña ilda, VIn Fernando erregea ia zoratuta, Aranjuezeko jauregitik urten eban Billabiziosaren Odon´eko gaztelura joateko, bere erdi anai Luisegaz, an obetu edo erregiñaren gogorapenetik urteteko itxaropenagaz.

VIn Femando ez zan juan erregiñaren eleizkizunetara, eta Odon´eko gaztelutik bere atsegiñezko eizan urten egingo ebalakoan, ezer egiñez gain, andik amar egun barru, berak euken gaisotasunean agertu zan.

Ito edo ilteko billur aundia euki eban erregeak, eta beren zeregiñak ta bere gogokoa zan eiza be alboan izten doiezala, bere emaztea il zanetik illabete beranduago sinatu eban beren azken agiria.

1.758ko Urrillaren asieran, zutik egin eban berba bere Wall ministruagaz, eta ortik aurrera berbeteari itzita, janaria be izten joan zan, ia indar gabetu arte.

Kasketaldi edo zorakeria be agertu jakon, eta oge bateko gela txiki baten sartuta, an egin ebazan bere asken illabeteak.

Erasotzaille be agertu zan azkeneko illabete onetan, eta danari aginke egin gurean agertzen zala idatzi eutson bere anai orde Luisek Farnesiotar Isabel amari, ortik aurrera eta bera geldi edo bakezteko, lo-belarrak(1) emonda.

Bere burua ilteko be, ainbat bider ibili zan, bere osagilleai pozoia, edo bera zaintzen egon ziran errege gudariei izkillua eskatuta beren burua ilteko.

1.759ko urtean Dagonillaren l0ean il zan VIn Fernando, eta bere gorpua Errege Saleztarren lakaimetxera eroan eben, bere emazteagaz egin eben antzera eginda, gero IIIn Karlosek 1.765eko urtean amaituko eben Jaun-IIIarrira eroateko bera ta bere emaztearen gorputzak.

Eta alaba-semerik ez ebalako euki, Vn Felipe eta bere emazte Farnesio´tar Isabelen seme ta bere anai erdi IIIn Karlos igongo eban espainitarren errege aulkira 1.761eko urtetik 1.788ko urterarte.

(1) Lo-belarrak = Opio o hiervas opiáceas.

## 1. 63. *34n Jauna Bizkaiko jauntzan.*

1.746ko urtean Uztaillaren 9an sormin edo odol-kolpe(1) bategaz il zan Vn. Felipe, eta bere emazte Saboyatar Mª Luisa Gabrielagaz euki eben bigarren seme VI Fernando izendatu eben Espainiako errege.

1.746ko urtean Uztaillaren 15ean Bizkaitarrak batzartuta egon ziranean artu eben Gaztelako gortetik bialdutako albiste ori, ta eleizkizunak Uztaillaren 18an betetzeko geratu ziran.

1.746ko urtean Uztaillaren 17an izendatu eben VI Fernando Bizkaiko Jaun lez.

1.747ko urtean, VI Fernando Bizkaitar saltzailleagaitik zirikituta, Gernikako Batzar Nagusiagaz egon ziran artu-emon onak zalantzan ipini ba ziran, Bizkaitarrak, betiko leialtasunean aleginduta, Foru-Baimena edo Pasaiaren zaintzea lortu eben.

1.75 leko urtean VIn. Fernandok "Buen Retiro"tik, Bizkaitar batzarrera bialdu eben eskutitzan baieztu ebazan Bizkaiko Foruak.

1.759ko urtean Dagonillaren 10ean, VIn. Fernando gaixotasunezko illabete batzuen alditik il zan, eta ondorengorik ez ebalako euki, Vn. Felipe bere aitak, Farnesiotar Isabelegaz bigarrenez ezkonduta euki eben seme Karlos, orduan Napoleseko erregea zana, IIIn. Karlosen izenarekin egin eben Espainiako errege.

1.759ko urtean Dagonillaren 26an, Famesiotar Isabelek bialdu eutsoezan albiste orreik Bizkaitar Batzarrari. Eta 27an beste eskutitz bat, IIIn. Karlos, Bizkaitar Jaun lez izendatu egian.

Bizkaiko Batzar Nagusiak, 1.759ko urtean Urrillaren 2 ta 3ko egunak aukeratu ebazan eleizkizunak ospatzeko, eta 4garrenean izendatu eben IIIn Karlos Bizkaiko Jaun lez.



## 1. 64. *IIIn Karlos, Napoles eta Siziliako erregea.*

1.716ko urtean Urtarrillaren 20ko egunean Madrillen jaio zan IIIn Karlos au.

Eta 1.788ko urtean Abenduaren 14ko egunean Madrillen il.

Politikoa edo Madrilleko alkate onenaren izenakaz deitzen eutsoen.

Vn Felipe aitak euki ebazan mutilletatik irugarren semea zan(2), eta lenengoa Farnesiotar Isabel amagaz bere bigarren ezkontza bidetik, bere anai erdiak izanda leen ezkontzako I Luis eta VIn Femando, euren aita Vn Felipeen leen ondorengoak izan zirenak, eta onek biok ez ebelako ondorengorik euki, IIIn Karlosek igon eban espainitarren erregetzara.








***IIIn Karlos, IIIn Karlos lekaidegoen jantziakin, bere armarria eta idaz-zirriborroa.***

(1) Sormin- edo odol-kolpe = apopletiko, apoplejía. (2) Sebastian de Jesus lekaideak, IIIn Karloseri txiki zala, errege izando zala asmatu eutson, eta IIIn Karlos il baiño 7urte ariñago asi eban bere doatsutako eginkizunekin, 1.771eko urtean Sebillako kardinal artx-apezpiku Solis´tar Franzizkori bialdu eutson eskutitzarekin.

1.731ko urtean eta bere ama Farnesiotar Isabelen bidetik artu ebazan Plasenzia ta Parmako dukaterriak I Karlosen izenakin.

1.731-1.735ko urte bitartean VIIn Karlosen izenakin, Napoleseko erregetza.

1.733-1.738ko urte bitartean Vn Felipek Polonian egoan ondorengo guda bidez, Napoles eta Siziliako erregetzak berrezkuratu ebazalako, Karloseri emon eutsozan orren erregetasunezko ardurak VIIn Karlosen izenarekin.

1.734-1.759ko urte bitartean, Napoles eta Siziliako errege VIIn Karlosen izenarekin.

Eta 1.759-1.788ko urte bitartean espainitarren errege, bera il zan arte, IIIn Karlosen izenagaz.

1.738ko urtean Loraillaren 9an, Sajonia ta Lituaniako dukea eta Poloniako errege II Federiko Augustoren alaba amalau urte euki ebala, Sajoniako María Amalia Walburga´gaz ezkondu zan ordez.

Eta 1.738ko urtean Ekaiñaren 9an Napolezen eliza bidez.

1.738ko urtean Uztaillaren 3an, bere ezkontza zala ta, San Jenaro Ospatsuaren Erregeen Zaldundia irasi eban, bera izanda erakunde orren leen buru nagusia(1).

Napoleseko gortea sartu eban leen, euki bear izan eban itxurazko zentzunean.

Bersallesek euki eban eragipenezko itxuran ezarri gura eban, Napoleseko erregearen ordezko jauregia, eta obetu gura ebazan erriko etxeak, lander edo txiro etxeakaz egin eban antzera, baita beste Jauregi etxeak toki ezberdiñetan irasi, Kasertako errege auregiagaz egin eban bezala, eres-antzerkirako San Karlos ikustegi edo antzokia be eginda.

Asko ikasi eban Bi Siziliaren erregetza bidetik, gero espainitarren erregetza eroateko.

Baroiak eta eleiztarrak %tik, ia 50eko lurraldearen kopurua eroaten eban, eta lenengoen almenetan, lurren eskubide osoa(2). Alosokerizko neurri orreikaz euren menpekoai, Auzi-Etxeko bideak ebagiten eutsoezelako.

IIIn Karlosek, baroiak eta eleiztarrak euki eben almen orreik moztu gurean ibili zan, eta lortu eban zati baten beintzat, diruen aldetik alderantziz, eurak geratuta lengo lez.

1.740ko urtean Salas´eko dukeak, ostera zabaldu eutsoezan ateak, len Vn Karlosek bota ebazan judutarrai, auek ostera bizkortu egiezan diruaren arloak.

Eleiztar eta erritarrak baiña, aurka agertu ziran neurri orrekin, eta Salas dukea ardura orretatik kenduta, baiezko erabagi ori ezereztu zan.

Spinelli artx-apezpikuak inkisizioaren azterketa edo fede-zaindia sartu gura eban, bide orretatik gauzak zuzentzeko, erria aurka agertuta, neurri ori be ezerezean geratu zan.

IIIn Karlosek neurriko bide orretatik, bidedun edo eskubidedun Tanuzzitar Bernardo markesa(3) be aurkitu eban, leen zuzenbideko ministrua izendatuta eta atzerritar ministrua gero, IIIn Karlos espainitarren erregetzara etorri bear izan ebanean, bera errege-ordegoaren aolkularitzazko erakundean geratuz.

IIIn Karlos izan zan, K.o. 79ko urtean Dagonillaren 24an Besubio sumendia eztanda egin ebanean eta Ponpeya, Herkulano, Oplontis ta Stabiako uriak arri-gesal ta errautsapean geratu ziranak, garbitzeko agindu ebanak.

Eta 1.752ko urtean, Ego aldetik agindu ebanean bideak egiezan(4), zelan agertu zan sasitza soiñ gaiñeko lez estalpetuaren azpian egon zan Paestun, garrantzi aundiko erria, bere Greziako denboraren orma zarrakaz, bai ta Greziatar iru eleiz dorikoak be, ondoan Erromatar anfiteatrua dagüela(5).

---

(1) Buru Nagusia = gran maestre. (2) Lurraren eskubide osoa = porque eran como propietarios de la tierra. (3) Bidedun edo Eskubidedunezko Tanuzzi´tar Bernardo markesa = El Marqués Bernardo Tanucci, jurista. 1.698-1.783ko urte bitartean bizi zana. Inkisizioaren azterketa edo Fede Zaintza (Santo Oficio) kendu ebana, eta lekaidetxeak murriztu ebanak. 1.777ko urtean kendu eben orren arduratik. (4) (Grezia Aindiaren denborako Paestun = Salerrnoko itsas-golkoaren ondoan Italiako Kanpanian dagoena. (5) Bide orren azpian dago anfiteatro orren zati bat.

Orren agertukoaren ikerketak, Gazzolatar Felize ta Sabatinitar Frantzezkori agindu eutsoezan.

1.759ko urtean Dagonillaren l0ean il zan bere anai erdi edo ugaz-anai VIn Fernando, eta onek ez ebalako euki ondorengorik, espainitarren erregetza jaurkitzen etorri bear izan eban, Napoles eta Siziliako erregetzak bere irugarren semeari itzi ostean.

## 1. 65. *IIIn Karlos espainitarren errege.*

I Luis eta VIn Fernando ondorengo barik il ziranean, Vn Felipeen irugarren seme ta lenengoa Farnesiotar Isabelekin ezkonduta euki eban IIIn Karlosen eskuetara jausi zan espainitarren erregetza, erregezko zeregiñetan jakituna izan zana, Napoles eta Siziliako erregetzak jaurkitu ebazanetik.

1.759ko urtean Abenduaren 9an eldu zan Madrillera IIIn Karlos au.

## 1. 66. *IIIn Karlosek, atzerrirako eroan eban politikea.*

1.756-1.763ko urte bitartean zazpi urteko gudan etorten zan borrokari ebatu bear eutson IIIn Karlosek.

Eta 1.761-1.763ko guda bitartekoa egokitu jakon IIIn Karloseri, Ingelesakaz egon ziran gora berakoagaitik.

Frantziak, Kebek´eko kolonia galdu ebanean, eta Ingelesak Ondurasen sartu ziranean arduratu bear izan eban IIIn Karlos, Ingelesak Ameriketatik egiten ebazan zabalkundeak geratzeko.

1.761eko urtean Frantziako Borboiakaz sinatu eban irugarren senidetasunezko alkarteagaz, sartu zan IIIn Karlos zazpi urteko ondorengo borroka orreitan.

IIIn Karlosek baiña, ez eban kontuan artu, zelako aukeran egon ziran Frantziko guda indarrak, eta Ingelesaren 53ko guda-ontzidi 14.000 milla gudariekin, Abanako ugartea artu eben, espaintar gudariak jarduera gitxi edo saio-aldi gitxigaz egon ziralako, eta Pardotar Juan Abanako gazteluaren arduraduna, ez zalako egon orduko arazoaren neurrian.

Denbora gitxi barru ta Indiatik etorten zan guda-ontzidi ingeles talde batek, Manila artu eban. Ingelesak ez eben euki almenik Filipinaseko ugarteak menperatzeko, berton Andatar Simonek antolatuta euki ebazan gudari-xaldo edo sasi-gudulariai esker.

1.763ko urtean amaitu zan guda ori, Pariseko bakearen bitartez, espainitarrak Florida ta Mexiko golkoan euki ebazan ugarte batzuk emon bear izanda, eta Ingelesak alderantziz Abana, Manila, ta baita frantzezaren Luisiana be espainitarrai itzulita.

Eta Ingelesakaz batera jokatzen eban Portugalek, Sakramentoko kolonia berrezkuratu eban.

1.767ko urtean IIIn Karlosek, Josu Lagunak atzerriratzeko agiria sinatu eban.

## 1. 67. *Ameriketako Laterri batuak, espainitarrengandik askatzeko egin eban guda, 1.776-1.783ko urte bitartean.*

Espainitarrak arkal joan ziran frantzezarekin, eta Ingalaterrako IIIn Jorjeri amairu koloni matxinatu jakozenean, Frantzia ta Espainiari agertu jakien aukerea Ingelesen aurka joateko, bertoko kolono edo erritar barrieri lagunduta.

1.776ko urtean Uztaillaren 4ko askatasun aldarriketatik, matxinatu orreik, espainitarren bidetik artzen eban laguntza azpi jokoan.

1.779ko urtean apurtu egin ziran euki zituzen arreman apurrak, ta espainitarrak Gibraltar erasotu arren, berton itzi bear izan eben, Menorkako ugartea berrezkuratu arren.

Luisianako jaurlaria Galbeztar Bernardok, Florida berrezkuratu eban, ta Ingelesak euren bakardadean, ez eban beste aukerarik, bakeak sinatu baiño.

Pariseko egiuneak amaitu eban guda orregaz, espainitarrak Menorka, Florida eta Onduraseko itsas-ertzagaz geratuz, Gibraltar ingelesari itzita.

Ekintza onegaz espainitarrak, Ameriketako Laterri Batuen askatasunaren bideak zabaldu ebazan.

Baita XIXn gizaldian aurreti onen jarraibideakaz, askatasunaren ateak alde batetik bestera zabalduta, espainitarpean egon ziran beste kolonizatuarentzat.

## 1. 68. ***Errusia eta Prusia.***

XVIIIn gizaldi onetan, Rusia eta Prusiako Laterri indartsu bi oneik be sartu ziran Europaren nor-geiagoko joko onetan, Errusiako IIn Katalina eta Prusiano IIn Federiko erregiñ errege jaun-txar onen bidez.

Erregiñ-errege bi oneik, arritasun andia sortu eben espainitarren artean, Errusia Itsas Baketsurarte(1) elduta egon zalako eta Lurrarteko-Itsasoan(2) sartuko ziranen bildur aundia euki ebalako, Errusia eta Ingelesaren artean, egiunen bat edo alkartasunezko alegiñ bat egingo ote eban.

Ez zan sortu alango alkartasunik, eta gaiñera Errusitarrak aurka agertu jakien Ingelesari, auek itsasoko gudak kontroletako euki eban asmamenean.

## 1.69. ***Lurrarteko Itsasoa.***

IIIn Karlosek Napoles eta Siziliako errege zanean, Turkoakaz sinatu eban salerosteko elkargo bat, berak, euskarri(3) bat zala uste ebalako, Ingeles, Errusi, ta Austriatarren aurka.

Egiune bat be alboratu eban, berak uste ebalako erritarrak ez ebela onartuko, eta Otomanoen kaisertzazko Oranen eskua artu eban, batetik, Lurrarteko Itsasoa, berberisko itsas lapurretatik garbitzeko, eta beste aldetik, diru laguntzak artzeko.

1.775eko urtean, O´Reilly´tar gudal nagusiaren aginduan, Arjelera bialdu ebazan bere gudalozteak. Ondamendi andi baten amaitu zana.

Eta 1.783 ta 1.784ko eraso bi onen ostean.

1.786ko urtean espainitarren eta Arjelitarren arteko egiunea sinatu zan.

## 1. 70. ***Itsas-Nausi edo Baketzuan gertatutakoak.***

IIIn Karlosek, baimendu ebazan Peruko errege ordegotza eta Espainia barriaren errege ordegotzari Itsas-Nausi edo Baketsuaren arlo ezberdiñetan espainitarren agintaritza zabaldu egien.

Eta orko bidetik, alegiñ batzuk egin ziran Oregoneko itsasbazterra eta Alaska, Espaini-Barriaren errege ordegotzapean geratu zitezen, Ezeta tar Bruno, Bodega, Kuadra ta Aroko Lopezek egin ebazan gudaldi edo irten-aldiakaz Alaska ta Kanadara.

---

(1) Itsas-Baketsu edo Nausirarte = Océano Pacifico. (2) Lurrarteko Itsasoa = Mar Mediterráneo. (3) Euskarri = asidero, base, cimiento, freno, sujetador.

E

Bien bitartean, Itsas-Baketsu edo Itsas-Aundiaren Ego aldean(1), Peruko Junient eta Amat´tar Manuelen errege ordegotzak, gudaldi edo urtenaldi bi agindu ebazan.

1.770eko urtean lenengoa, Aedo ta Gonzaleztar Aedok, Paskuako ugartea aurkituta, IIIn Karlosen izenean ipini ebana.

Eta 1.772an bigarrena, Bonetxeatar Domingok Tuamotu´ko ugartedi ta Soziedazeko ugarteetara egin ebena, berton espainitarren agintaritza ipinteko.

Taiti(2) ugartearen auzunen agintari geienak onartuta espainitar erregetzaren agintaritza, ta menpekotza.

1.775eko urtean a ta guzti, laster itxiko eben Polinesiako menpetasun ori, Madrilleko gortekoak ez ebelako laguntzen, eta geien, erlijiozko arloetan euki ebazan arazoagaitik.

## 1. 71. *Espainitarren barrurako politikea. Ta eroan eben agindukeri edo nausikerizko jakintsutasuna(3).*

IIIn Karlosek, espainitarren barne politika berritzeko, bere al-osokerizko indarra gura eban ibili, eskoladunezko egitarau bategaz(4).

Eta orduko denboran, naiko aldaketak egin ebazan ikaskuntza(5) orren bidetik, Aranda, Jobellanos, Floridablanka, Kanpomanes, Wall, eta Grimaldirekin, bere jaurkintzarako euki ebazan lagunkide onekin, lurgintza edo nekazaritzaren arloak obetzeko, erri diruaren altxorrak orekatzeko, Itxas-ontzidiak egokitu, gudu-ikastetxeak zaldun ta oiñezko gudarientzat sortu, eta eder lanari aurrerakuntza aundiak emoteko.

## 1.72. *Eskilatxeren berrikuntzak edo aldaketak.*

IIIn Karlosek, Eskilatxe markesa ipini eban Erri-diruen arduradun lez.

Eskilatxe`tar Leopoldo de Gregorio Italiar(6) markes onek, erregetzaren menpe ipini ebazan Iberiako Erdiugarte onetan egon ziren Jauntzak ezeren begirunen bage, eleiztarren arloak be bere kontrolpean ipini eta gudalozte ta Itsasontzidiak berriz antolatuz.

Espainitarren erriko diru altxorraren ministrua lez zazpi urteko gudaldi ortan, berak gura ebazan baiño diru geiago bear izan eban, batez be gura ebazan berritasunak edo aldaketak egiteko, eta gudarako bearkuntza orreik orekatzeko dirua bear izan eban lez, erriko ekintza zergapetu eban, erabide barriak asmatuz, espainitar aberrien errefela edo zozketa(7) sortu eban bezela.

Ekintza orregaz batera, aleak edo laboreen salerosteko merkataritzaren arloa askatu eban, erriak bizitzeko bear izan ebazan oiñarrizko janariaren ordaiña, neurri barik igonda, arrakero edo arrapailuak dana edo geiena batzen ebazanak gero salerosleai saltzeko ta askeneko urtetan egon ziran uzta-biltze txarrari esker.

---

(1) Itsas-Aundiaren ego aldea = Denbora orretan, "Mar del Sur" deitzen eutsieanai. (2) Taiti = Tahiti. (3) Agindukeri edo nausikerizko jakintsutasuna = despotismo ilustrado. (4) Eskoladunezko egitaraua = despotismo ilustrado. (5) Ikaskuntza orren bidetik = en la linea de esa ilustración. (6) Esquilatxe, Leopoldo de Gregorio markesa = Mesinan jaioa eta 1,785ko urtean Benezian il. Erri-xumetasuneko maillatik asi zan, salerosteko denda baten kondularitik. IIIn Karlosek, Erriko diru altxorraren ministru lez ipini ebana, gero gudaren ministrua, eta parkamen ta zuzen-zaiñ askenez. (7) Espainitar aberrien errefela edo zozketa = lotería nacional española. IIIn Karlosek askenez atzerriratu eban Eskilatxe, gerago espainitar eta Beneziako errege ordari izendatuta (embajador).

Kanpomanesek lagundu eutson neurri oneik artzen, erru guztia baiña, Sizilia´tar Eskilatzeri bota eutsoezan.

1.766ko urtearen Epaillan, Eskilatxeren biurri aldi edo matxinada sortu zan, Eskilatxek Madrilleko erritarrak, beartu ebazalako aldatzen eroaten eben soiñ-gaiñeko luzea, labur bategaitik, eta kapel zabala, iru txurrillo(1) eukezan kapelagaitik.

Erritarren asarrea gora Joan zan, erriko kale ta ormatan, ugari ibilten ziralako, aundiki edo jakitunak beintzat, ipinitako paskin edo isekarizko paperak.

Eleiztar eta andikiak erabili eben azpi-joko onen ekintza au, atzerritarrezko ministruak egiten ebazan aldaketak erasotzen eben artezean, eta madrilleko matxintasun orretan sortu zan larritasunezko goi malla, Erregezko Jauregiaren Balonako Zaintzailleakaz aurkitu ziranean sortu zan. Auek lendik eta 1.764ko urtean ain zuzen, erregearen alaba Maria Luisa Austriako kaiserra izando zanakin ezkondu zanean, erritarrak erasotu egin ebezalako.

Errege Jauregiaren Balon Zaindari ta erritarren topo orretan, alde bietako illak egon ziran, eta IIIn Karlos erregeak, era askotako aolkuak artu ondoren, Jijedo ta Rebillatar(2) kondeari matxintasun ori geratzeko, tirokatu egiezala erritarrak agindu eutson. Onek baiña, lenago itzi egingo ebala bere ardura ministrari bezela, erritarrak tirokatu baiño len esanda.

Madrilleko Uritik, Kuenka, Zaragoza, Koruña, Obiedo, Santander, Bilbo, Kartajena ta Kadizeraiño zabaldu zan matxintasun ori beste ainbesteen artean.

Madrilltarren errenkurak, erregezko gorte ta agintarien aurka izaten ba ziran, lurraldeko errigizartearen atsekabetasunak erri agintarien aurka izaten ziran, ekintza orrek bakarrik argituazota, jaurkintzazko arloetan egon ziran galdukeri, lasaikeri, eta ustelkeriak. Matxinatzen ziranak, bizigarrizko edo janarien balioak beratzea, bizigarrizko janariak batzen ebazan erakundeak(3) kentzea, jantziaren arloan agindu ebazan neurriak kentzea, atzerritar ministruak kanporatzea, bertokoekin aldatzeko, eta orokorrezko parkamena ezkatzen eban.

IIIn Karlosek orduan Eskilatxe atzerritu eban, eta bere lekuan Arandako kondea ipini eban.

Bide batez, neurriak artuta Sizilia edo atzerritik labore edo aleak ekarteko, eta erri udaleko jaurkintzak sortu, autarki bidez aukeratuko gizonak jaurri egien.

## 1. 73. *IIIn Karlosek, erlijio arloan eroan eban politikea.*

Atzerritar ministruak kanporatuta, IIIn Karlosek, Kanpomanes ta Rodrigeztar Pedro, Arandako kondea, eta Floridablankako kondea ipini ebazan jaurkintza orren buru.

Kanpomanes, Gaztelako Aolkularitzaren fiskalgo edo salaritzaren(4) arduradun izendatu ebenean, bere alegiñ guztiagaz agirian itzi gura ebena, Josu Lagunak zirala, Eskilatxeren matxintasunezko errudunak.

Eta billakuntzarako uts-egite edo buru ipinita, auek izan ziran salaketaren baldintzak:

-Josu Lagunak euki zituzen aberastasunak.

-Izentasunaren arloetan euki eben kontrola, eta eroaten eben erlijiozko politikea.

-Aita Santuari emoten eutsoen euskarritasuna edo laguntza.

-Ensenadako markesari euki eutsoen leialtasuna.

-Paraguaikoakin euki zituzen arazoetan, euren artu emona.

(1) Iru Txurrilloko kapela = sombrero de tres picos. (2) Jijedo ta Rebilla kondea = el conde Revilla Gigedo. (3) Bizigarriak batzen ebazan erakundaek, kentzea = supresión de las juntas de abastos. (4) Gaztelako Aolkularitzaren fiskalgo edo salaritzaren arduraduna = fiscal general del consejo de Castilla.

-Eta Paraguaieko matxintasunezko iskanbil aietan Josu Lagunak euki eben esku sartzea.

Gaztelako aundiki, eta ainbat erlijiozko taldeak agertu jakien aurka Josu Lagunai.

1.767ko urtean Otsaillaren 27an, orregaitik atzerritu ebazan Josu Lagunak, espainiko lurraldeetatik, euki ebazan jabetzak eta ondasun guztiak legez kenduta.

## 1. 74. *IIIn Karlosen berrikuntzak.*

1.765eko urtean, azi, bi edo garaoaren salerosketa askatu eban.

1.768ko urtean gudalozteak antolatu ziran arau barriekin, XXn gizarterano iraun egien, eta Kolonietako salerosketak bizkortu ziran, Filipinaseko elkarteak sortuta.

Josu Lagunen atzerriratuagaz, irakaskintza gura eben barriztu, mailla aundiko azterketa ta jakin bideko ikaskizunetan.

1.770ko urtean IIIn Karlosek, erregetzaren zaindaritzapean ipini ebazan goi maillako Ikastetxe Nagusiak, Madrillen San Isidroren ikasketak sortuta, erdi maillaren neurrirako, ereduzko ikastetxe bezela, eta baita XXn gizaldiraiño etorri diran, langitzarako arlo guztien ikasketak(1).

Josu Lagunak euki ebazan jabetzak, ikastetxe barri, eta goi maillako ikasketaren egoitza lez ibili ziran. Eta Josu Lagunak erabilten eben dirua, bearrezko arloetan bizi ziranai laguntzeko, txiro etxe edo beartsutegien etxeak eta gaxo-etxeak eraikiteko ibili ziran. IIIn Karlosek, ikastetxe mailla aundirako ikasketak be alegindu zan eragiñ edo ta zirikatzen, Salamankako ikastetxe nagusitik baiña, erantzun gogorrak artu ebazan.

Orduan IIIn Karlosek, bere egitamu bat aurkeztu eban, geroago sartu zana.

IIIn Karlosen denboran, lur-langintzarako egin ziran berrikuntzak, Galbeztar Josek eraiki eban Erri Lagunen Diruzko Alkartearen eskutik agertu ziran.

Eta Kanpomanesek fisiokraziagaitik(2) zirikituta, nekazaritzazko arloak euki ebazan arazoekin asi zan arduratzen.

Kanpomanesek idatzi eban Errege-Eskubide edo ta Eskubide-Berezietan Ondasunak Lotzeko Liburu-izti´an(3), Laterriaren bereratasun edo aukera ta bai erritarren babesagaitik arduratu zan, erritarren artean lurraren banaketa berdintsuagoa egiteko bearkuntzan agertuz.

1.778ko urtearen arautegiakaz, Ameriketarekin egoan salerosketako artu emona askatu zan.

1.782ko urtean, beste arloetan be artu ziran neurri batzuk, adibides: San Karlosen banke-etxe edo diru-etxea sortuz; erri lanak, Aragoiko Kaiserraren Ur-aska(4); eta Kataluña, Balentzia, Andaluzia, eta Galiziatik, Madrilleraiñoko bideak.

1.787ko urtean Kanpomanesek errigizarte barik egon ziran lurraldeentzako, montio edo egitamuzko saio bat egin eban, erritar bage egon ziran Andaluziako Sierra Morena mendi kateak, eta Guadalkibir ibaiaren erdi aldeko ibarrak erritzeko.

Eta orretarako, Olabidetar Pablok Andaluziako erregearen ordezko arduraren begipean, Europaren erditik emakume ta gizonak ekarri ziran.

Alemanak eta Flamenco katolikuak ekarri ziran, nekazaritza eta lanbideko lantegiak sortzeko, lapurgoko jendeakin egon ziran zemankutzatuta lur orreitara.

Laterriak ordaindu ebazan egitamu orreik, eta iraspen barriak be sortu ziran, La Karolina, La Carlota eta La Luissiana bezela, Jaen, Kordoba, eta Sebillako lurraldeetan.

(1) Escuelas para el aprendizaje de los diferentes oficios, que luego se llamaron escuelas de formación profesional. (2) Fisiokrazia = partidario de la escuela económica, que atribuía a la naturaleza el origen de la riqueza. (3) Errege Eskubide edo Eskubide Berezien Ondasunak Lotzeko Liburu-izti´an = Tratado de la Regalía de la Amortización. (4) Aragoiko Kaisertzaren Ur-aska = Canal Imperial de Aragón.

Langintza arloan, goi-zale ta apainkeri askoko egitamu bat be antolatu eban, Bakartze-Oneko lur-zuriagaz(1) tresneriak egiteko, Eguras-Etxeko Berinagaz(2), eta Martinezen Zillargintza Pradoko ibiltokiaren etxe batera eroan eban, peninsula edo ugarterdi onetan zabalkuntza aundia artuta.

Denbora onetan, gaxo-etxe erritarrentzat, kaleen argitzaren serbitzua, zikinkeriaren garbiketak, kaleko bideetan galtzar-arriak ipintea, eta kaleetako uraren-izurkiak(3), agindu eban egitea.

Madrillentzako, kaleen zabaltasuna ta ibil-toki edo zugatzbide luzeak, Zibeleseko iturri, Neptuno, Alkalako Atea, Orburuko iturria(4), landare-beratz(5), San Karlosen gaixo-etxea(6), eta Pradoko erakustokiak eginda.

## 1. 75. *Zaldunak edo izen aundikoak.*

Asko txikertu zan euren ugaritasuna, erregeak murriztu ebazalako. A ta guzti erritarren %´tik lauko kopurua euki eben.

Euren aberastasuna goraldu egiten zan mailla aundikoen artean ezkontzen ziranean, gurasoengandiko diru asko artzen ebalako.

1.783ko urtean IIIn Karlosek, esku lana baieztu eban, eta ortik aurrera, mailla aundiko izendun gizon-emakume orreik be mesedetu egin ebazan, orrarte debekatuta euki eben lan egitea, erregeak lege ori ezereztu ostean, lanean ipini ziralako. Ortik aurrera eta Vn Felipek eta IIIn Karlosek emon ebazan eskubide edo baietzarekin, asko ugaritu ziran.

IIIn Karlosen gudu erakundea, erregetzazko zaldundia aundikien araudiarekin, eta Madrilleko zaldunen erregezko gorpua irasi ziran.

Alderantziz, mugaketa asko ipini eutsoezan oiñordetza ta jauntzutasunari, nai erregetza onetan aienatu ez.

E

## 1. 76. *Apaizak*.

Aberastasun aundiak euki ebezan eleizako serbitzariak, Ensenadak egin eban zergak banatzeko edo kalastrutik, Gaztelako lur landuen zazpirena izan zan eurena, eta amarren kopurua abeltxeenezko arloan(7).

Euki ebazan esku-ondasunak eta lur-ondasunari, gaiñeratu egin bear jakon altzetan eben amarrena, ortik erregeen irurena, bai ta artzen ebazan baikura edo ta akurazko(8) sarietatik.

Toledoko eleizea izan zan aberatsena bere urtearen 3.500.000 erlekoakin.

IIIn Karlosek, diru arloaren ezberdintasuna orekatu eban zati aundi baten beintzat, eta ezereztu ebazan eleiztarrak agindu ebazan lege batzuk, errigizarteko eskubideen aurkakoak ziralako.

## 1. 77. *Be-maillako erritarrak.*

Auek ziran ugarienak, eta arlo orreitan aurkitzen ziran nekazariak, diru arloetan ia ia konpontzen ziranak. Beargille edo langilleak izanda zorigaitzezko bearraldian bizi ziranak.

Ensenadaren kalastra edo zerga erroldatik ikusi leike, esku-langilleak %´tik 15eko kopurua zala, eta nekazariak baiño obeto ordainduta egon zirala. Aberatsak orduan agertzen asita.

---

(1) Bakartze-Oneko lur zuriagaz lan egiteko = trabajar con Porcelana del Buen Retiro. (2) Eguras Etxeko Berinagaz = Cristales de la Granja. (3) Kaleentzako izurkiak = alcantarillado. (4) Orburuko iturria = fuente de la alcachofa. (5) Landare-Baratz = Jardín Botánico. (6) Gaur Sofía erregiñaren erakustokia dana. (7) Amarren kopurua abeltxeenezko arloan = el diez por ciento en el área del ganado lanar. (8) Baikura edo akuratu = alquilar, dar en arrendamiento o subarrendamiento.

Denbora onetan erdi Ugarte onen eginkizuna, gizaldi onek eroaten eban berrikuntza ta argiduraren asmakizunagaz ezagutu leike.

Kadizeentzat garrantzi aundikoa izan zana, Amerika, Barzelona eta Madrilleko salerosketarekin lotuta egoalako.

## 1. 78. *Ijituak*[1].

1.749ko urtean ijituaren aurka egin eben Sarekada Aundia deitu eutsoena porrot egin ondoren, ijituak zalantza edo ezbaiezko egoera baten aurkitzen ziran.

1.763ko urtetik erabagi gura ebena, lege barri batzuk argira atarata.

1.783ko urtean Iraillaren 19an askenez, Erregezko Eginkizunari lotuta egin ziran alegiñ ugariakin, ijituak errigizarteagaz kidetzeko edo bezelakotzeko, kendu ziran edo gura izan eben beintzak, ijituak ekarten eben ezberdintasunezko giza txarrago ori[2].

Eta debekatu egin ziran ijitu edo gaztelar barriaren izenakaz eurei deitzea, iraingarri edo laidotsuzko berbak ziralako.

Ijituen non bizi aske itzi zan, errege leku ta jauretzetan izan ezik, eta bizitzeko lan-bide barrien baimenak emon ziran, lagunarteko taldeetan lan egiteko be.

Debekatu ziran baiña, ardandegiak eukitea eta zaldien ilea moztuteak, ijituaren bizi-bideak ziralako.

Ijituak euki zituzen jantziak be debekatu ziran, euki eben izkuntzagaz batera, eurei beartuz etxeetan bizi zitezen, euki eben betiko erri-aldagaz amaitzeko, legezko zigor aundiekin.

Eta etxe, jantzi, izkuntza ta lanezko zeregiñaren legeari uko egiten eutsonak lenengoz, lepoa erre egiten eutsoen burdiñ bero bategaz, len belarrien mozketak eta eriotzak egiten ebazan orde, eta bigarrenez arrapetan ba eutsoen, orduan eriotzagaz ordaintzen eban.

Zigortasun oneik, amasei urte baiño geiago eukiten ebazanai ezarrita, gazteak euren senditasunetik atara ta Aldundiaren Erruki-Etxeko erakundearen mende sartu, euki ebazan irakaslarien eskuetan itzita.

1.788ko urtean IIIn Karlos il zanean amaitu ziran espainian edo Gaztelan argi edo edertzaillezko alegiñ orreik, Frantzian eztanda egin eban iraultza aundiagaz danak billurtu ziralako, eta IVn Karlos bere semea geien, euslari edo gordetzaillera aldatu zalako, gero etorriko zanari begira, geroago ikusiko dogun lez.

## 1. 79. *IIIn Karlosek, bere ezkontza bidez euki zituzen alaba semeak.*

1.737ko urtean ezkondu zan Sajoniako Maria Amaliagaz[3], SajoniakoIIn Federikoren alaba zana, eta amairu alaba semeak euki zituzen, zazpi bakarrik elduta adiñetara:

-Espainiako Maria Isabel Antonia, 1.740ko urtean traillaren 6an jaioa eta 1.742ko urtean Urrillaren 31n il zana.

-Espainiako Maria Josefa Antonia, 1.742ko urtean Urtarrillaren 20an jaio eta 1.742ko urtean Jorraillaren 3an il zana.

-Espainiako Maria Isabel Ana, 1.743ko urtean Jorraillaren 30an jaioa eta 1.749ko urtean Epaillaren 5ean il.

(1) Ijituak = jitanos. (2) Giza txarragoa lez = Erpe ustel edo zornetsu bezela = raza de raíz infecta. (3) Sajoniako Maria Amalia = 1.724an jaio eta 1.760ko urtean il zana.

-Espainiako Maria Josefa Karmela, 1.744ko urtean Uztaillaren 6an jaio eta 1.801eko urtean Abenduaren 8an il zana.

-Espainiako Maria Luisa, 1.745eko urtean Azaroaren 24an jaio eta 1.792ko urtean Loraillaren 15ean il zan. Erromatar Alemaniako Jermanikoaren kaisar sakratuko kaiserra IIn Leopoldokin ezkonduta egon zana.

-Espainiako Felipe Antonio Kalabriako kondea, 1.747ko urtean Bagillaren 13an jaio eta 1.777ko urtean Iraillaren 19an il zana. Espainiako eta Napoleseko erregetzatik baztartu ebena, zoroa izateagaitik.

-IVn Karlos Espainiako erregea, 1.748ko urtean Azaroaren 11n jaio eta 1.819ko urtean Urtarrillaren 19an il. Borbon ta Parmakotar Maria Luisagaz ezkonduta egoana.

-Espainiako Maria Teresa Antonia, 1.749ko urtean Abenduaren 2an jaioa, eta 1.750eko urtean Epaillaren 2an il zana.

-Espainiako I Fernando, Siziliak biko erregea, 1.751eko urtean Urtarrillaren 12an jaioa, ta 1.825ko urtean Urtarrillaren 4an il zana. Absburgoko Maria Karolina Austriako Artxidukesagaz ezkonduta egoana.

-Espainiako Gabriel, 1.752eko urtean Loraillaren 12an jaioa eta 1.788ko urtean Azaroaren 23 an il zana. Portugaleko Braganzatar Mariana Biktoriarekin ezkonduta egoana.

-Espainiako Maria Ana, 1.754ko urtean Uztaillaren 3an jaio zana, eta 1.755ko urtean Loraillaren 11n il.

-Espainiako Antonio Paskual, 1.755eko urtean Abenduaren 3ln jaioa, eta l.817ko urtean Jorraillaren 20an il zana. Borbontar Maria Amaliagaz ezkonduta egoana.

-Eta Espainiako Frantzizko Javier, 1.757ko urtean Otsaillaren 15ean jaioa, eta 1.771ko urtean Jorraillaren l0ean il zana.

## 1. 80. *35n Jauna Bizkaiko Jauntzan.*

1.759ko urtean Urrillaren 4an IIIn. Karlos izendatu ebenetik, Bizkaiko Batzarrak, ez eben euki aipameneko gauzarik Foruen aurkako arazo bidetik, nai ta gure arduradun aundikien artean espainitarren gorteko barnetik lilluratuz ibilita, neurri aundi baten euskal nortasuna galtzen asi.

1.788ko urtean Abenduaren 14an gabeko ordu-batak lauren gitxiagoak ziranean il zan, sukar gaixotasunekin IIIn. Karlos.

Eta urte berean jaio zan bere bir-seme edo billoba Karlos Mª Isidro, Espainiako ondorengo guda sortuko ebana, eta gure karlistadako alegiñean buru izango zana.

Eta 1.788ko urtean Abenduaren 23an, bere bigarren seme IVn. Karlos izan zan, eskutitza Bizkaiara bialdu ebana Bizkaitar Batzarra oartzeko.

1.789ko urtean Urtarrillaren 5erarte ez zan irakurri Bizkaiko Batzarrean, eleizkizunak beti lez, egiteko agintzen eban eskutitz ori. Eta denbora gitzi barruan, ariñauko Abenduaren 30ean idatzitako beste eskutitz bat artu eben Bizkaiko Batzarretan, IV Karlos betiko aldarriketakaz izendatzeko esaten ebana.

1.789ko urtean Urtarrillaren 15eko Batzarrean irakurri zan Jaun barría izendatzeko eskutitz ori, eta Otsaillaren 16n egunerako geratu ziran eleizkizun orreik ospatzeko, bai ta 18an IVn Karlos Bizkaiko Jaun izendatzeko.

## 1. 81. *XVIn Luis, Nafarroa eta Frantziko erregea.*

1.754ko urtean Dagonillaren 23an jaio zan Bersallesen XVIn Luis au, aita, Frantziko Luis Fernando(1), eta Sajoniako Maria Josefa(2) amarenbidetik.

(1) Frantziko Luis Femando = 1.729ko urtetik 1.765ko urteraifío bizi zana, (2) Sajoniako Maria Josefa = 1.73leko urtetik 1.767ko urteraiño bizi zana.

XVIn Luis au, 1.755eko urtetik 1.793ko urterarte, Austriako Maria Antonietagaz egon zan ezkonduta, lau alaba seme eukinda.

Eta 1.793ko urtean Urtarrillaren 2lean Parisen il.

1.774ko urtetik 1.789ko urterarte izan zan Nafarroa eta Frantziko erregea.







***XVIn Luisen margozkia, bere armaría eta bere idazpeko zirriborroa.***

1.774ko urtetik 1.793ko urterarte Andorrako printzea beste printze artean.

Eta 1.789ko urtetik 1.792ko urterarte Frantziko iraultzaren bidetik, frantzezaren errege, Nafarroa eta Frantziko erregetzaren izen buruari, uko eginazo eutsoenean.

1.754ko urtetik 1.774ko urteraiño Berri'ko dukea. 1.765eko urtetik 1.774ko urteraiño Frantziko erregetzaren ondorengoa.



## 1.82. *XVIn Luisen aurtzaroa.*

XVIn Luis Berriko duke oneri, Frantziko Luis Augustoren izena ipini eutsoen jaio zanean.

Eta laugarren semea zan, Frantziko ondorengoa zan Luis Femando aita, eta Sajoniako Maria Josefa amaren bidetik.

Frantziko ondorengotasuna euki eban Luis Femando onen bigarren emaztea, Poloniako errege IIIn Federiko Augustoren alabea zan.

Eta jaio zanean, bere aita eta 1.751eko urtean jaio zan bere anai Luis Jose Jabier´ek, bere aurretik egon ziran lez, Frantziko erregetzaren ondorengotasunean, sekula ez ziran gogoratu, XVIn Luis au Frantziko errege izando zanik.

Bere nebarrebak:

-*Frantziko María Teresa* 1.746ko urtetik 1.748ko urteraiño bizi zana, eta Luis Femando aita ta leen ezkontzako Espainiako Maria Teresaren alaba izan zana.

-*Frantziko Maria Serafina,* 1.750eko urtetik 1.755ko urte bitartean bizi zana.

-*Frantziko Luis Jose Javier,* beren aurretik egon zana Frantziko ondorengotasunean, eta 1.751eko urtetik 1.761eko urteraiño bizi zana.

-*Frantziko Javier Maria,* 1.753ko urtetik 1.754ko urteraiño bizi zana.

-*Frantziko Luis Estanislao,* 1.755eko urtetik 1.824ko urteraiño bizi zana, Probenzako kondearen izenagaz ezagutu zana. Frantziko Iraultzaren deboran atzerriratu egin bear izan ebana, ta Napoleon jausi zanean, Frantzira ostera itzuli ondoren erregetzaren aulkira igon ebana XVIIIn Luisen izenagaz. Beragaz asi ziran Berrezkuratasunezko denborak.

*-Frantziko Karlos Felipe,* 1.757ko urtetik 1.836ko urteraiño bizi zana Artois kondearen izenagaz ezagututa, eta bere anai XVIIIn Luisen ondorengoa izanda, Xn Karlosen izenakin igon ebena Frantziko erregetzara.

*Frantziko Klotilde,* 1.759ko urtetik 1.802ko urterarte bizi zana, Zerdeñako erregiña izan zana ezkontza bidez.

*-Eta Frantziko Isabel,* 1.764ko urtetik 1.794ko urteraiño bizi zana.

XVIn Luis au, Marsaneko kondesa ta Roaneko printzea zan Maria Luisaren ardurapean ipini eban, onek gortetik atarata Bellebueko jauretxera eroanda, berton bere ume aldia egiteko, eta baleiteke bere bizitza ilketatik alboratzeko.

Sei urte euki ebazanean, bere ama ordearen eskutik atara eta mutillen ondora eroan eben, mutikoa goibelgarritasun sakon baten sartuta.

Luis Fernando bere aitak aukeratu ebazan, nortzuk izando ziran bere urrego irakasleak, eta Bauguyon dukea, jaurlari bezela ipini eban; Limojeseko gotzaia, maisu edo irakasle lez; Sinetyko markesa, jaurlariaren ordego lez; eta Radonbillerseko abata edo apaiz burua, irakaslearen ordego lez.

Eta Fernando bere aita izan zan, ararte olgetan egiten ziran ikasketak alboratu ebazanak, umeak lan ta indarka edo kementsuki ikasteko ikasi bear izan ebazanak, gero XVIn Luisen nortasunari ekarriko eutsoezan bakardadeko edo ta bildur edo lotsorkerizko izate aundiak, bere nortasunezko ezean biurtu jakozanak.

Bere izeko eta ama orde Maria Adelaida printzeari atsegintzen jakon bere loba Luis etxera eroatea, bertan Luisek egin egiezan bere gogora agertzen jakozan naiak, eta sarri ta pozik joaten zan izekoaren etxera.

1.765eko urtean bere aita Fernando il zanetik, ikasketa sakon eta onak artu ebazan XVIn Luisek, bere irakasle Bertier Josu Lagunaren aldetik, baita Bauguyon dukearen aldetik be, Luisek, latiñ, italiano, aleman, ta ingeles izkuntzak ondo ikasita, atzean itzi barik, lojika, gramatika, ele ederra edo erretorika, jeometria eta izarrizti edo izar-jakintzak.

Diru arlorako be jakintasun aundiak artu ebazan, edestian maisutasun aundia arruta. Monteskieugaitik be eragipenduta egoan, beragandik jainkotasunaren kanpotik era berriko erregetasunaren izaera artuta.

## 1.83. *XVIn Luisen Ezkontza.*

Txoiseul dukeak(1), Austriatarrakin alkartu gura izan eban, Errusia ta Ingalaterraren gora edo zorionezko aurrerapideak geratzeko, eta orretarako, Austriatar Lorenako Franzizko(2) Erromatar Jermanikoaren kaiserra eta kaisar Andre Maria Teresaren(3) alaba, Maria Antonieta artxidukesaren eskua eskatu eban Frantziko erregetzaren ondorengoa izan zan XVIn Luisekin ezkontzeko.

---

(l)Choiseul, Etienne Francois Duque de = 1.719ko urtetik 1.785eko urte bitartean bizi zana, Mme Ponpadurraren babesekoa zan, 1.758-1.770eko urte bitartean Frantziko jaurkintza eroan eban. 1.758ko urtean Bersalleseko egiunea berak antolatu eban. Eta 1.761ko urtean espainitarrakin senidetasunezko egiuneagaz, Josu Lagunak Frantzitik atzerriratu ebazan. 1.766ko urtean bere agindupean, Lorena alkartu eban eta 1.768ko urtean Korzega. Du Barry´tar Mme barriaren ospea aundiagotzen joan zanean, berea galerazten asi zan, asken baten bera, bere Txanteloup´eko lurraldeetan atxilotu lez geratuta. (2) Lorenatar Franzizko Erroma Jermanikoaren kaiserra = 1.708ko urtetik 1,765eko urteraifio bizi zana. (3) Maria Teresa = Erromatar Jermanikoaren kaiserra I Franzizkoren emaztea, Bienan jaio ta il zana, eta 1.717ko urtetik 1.780ko urte bitartean, Austriako Artxidukesa, Ungria ta Boemiako erregiña, 1.740-1.780ko urte bitartean Austria ta Ungriaren erregiña. 1.740-1.748ko urte bitartean Absburgotarren aginpeak artuta Austriatarren ondorengotasunezko gudari eutsi eutsan. 1.756ko urtetik 1.763ko urtera Frantziagaz alkar, zazpi urteko borrokari eutsi eutson. Erromatar Jermaniko kaisertzaren IIn Jose eta Frantziko Maria Antonietaren ama izan zan.

Maria Antonieta atzerrira joateko bere lurraldearen mugan, oial-etxola bi eraiki ziran, alkartu egingo ziran indar-kemeneko erri orreik iruditzeko. Frantziko oial-etxolan, Noialleseko kondesa(1), Kosse´ko dukesa(2), Gorteko lau andre, Saulx-Tabannes kondea oorezko zalduna, Tesseko kondea len ezkutari lez, eta Txartreseko gotzaia leen kapellau lez. Eta beste oial-etxolan Austriatik etorri ziran Andre lagunai, Parisetik bialdu eutsoezan jantziak, artxidukesa ori jantzi zediñ.

1.770eko urtean Loraillaren 15eko egunean eldu zan Estrasburgora Maria Antonieta, eta Konpiejneko urian geratuz, berton ezagutu ebazan XVIn Luis, eta Luisen izekoak.

Lagun oste(3) ori Saint Denisera elduta Muetteko jauregietxean geratu ziran, erregea bere ondoregoakaz Bersallesera joanda.

1.770eko urtean Loraillaren 16ko egunean eldu zan Maria Antonieta Bersallesera, eta Rotxeko kardinalak, Maria Antonieta ta Luis batera, jauregetxearen otoiz-tokira eroanda, berton ezkondu ebazan. Gorteko ospakizunak aundiak izan ziran, Parisekoak baiña, gaindu ebazan, bietara ainbat jende ikusten eta ospatzera joanda.

Txarto amaitu ebenak, adibidez: XVn Luisen zabalgune edo enparantza jendez beteta egoala, su-gurpillak biztu ziranean eta sortu zan astrapalagaz, giza-talde aundi ori billurtu egin zan ta ariñeketan asita, zelaiaren azberdintasunagaitik askok edo geienak, lurrera jausi ziran, atzetik iges etorten ziran zalgurdiak gizaki asko zapalduz, eta askok txuliatu edo alderatu ezinik, Sena Ibaira jausita.

Eskontza ori ez zan osotu edo bete, arik eta zazpi urte beranduago, biok erregetzara igon arte. Zazpi urte onen badaezbadako gauza au baiña, ez zan besterik, erregeak bere moko azal edo zil-muturrean(4) euken zilloa, estu edo txikerra eukinda, sortzen eutsezan miñakaz ez ebela ezer egiteko almen edo gogorik, arik eta azal buru ori ebagi arte, bai ta bera be lotzor edo beldurtsua zalako.

Azal buru orren arazoak konponduta, lau alaba seme euki ebazan:

-*Frantziko Maria Teresa Karlota,* 1.778ko urtean Abenduaren 19ko egunetik 1.851ko urtearen Urrillako 19rarte bizi zana, Frantziko Luis Antoniorekin, Angulemako dukesa izan zana, eta errege zaleentzat, Frantzia ta Nafarroako erregiña, Luis onegaz ezkonduta egoalako.

-Frantziko ondorengoa zan Luis Jose Javier Bretañako dukea, 1781eko urtean Urrillaren 22an jaio zan eta 1.789ko urtean Bagillaren 4an il.

-Frantziko Luis Karlos Normandiako dukea, 1.785eko urtean Epaillaren 27an Bersallesen jaio zan, eta 1.795eko urtean Parisen il.

Frantziko iraultzaren matxinatuak atrapau eta Tenpeltar lekaidearen espetxean bere aitagaz atxilotuta, bertan il zana, eta erregetzara ez igon arren, bere aita XVIn Luiseri burua moztu eutsonean, errepublikaren aurkakoak edo erbesteratuak, Frantzia eta Nafarroako errege lez aldarrikatu eben XVIIn Luisen izenakin.

-Eta Frantziko María Sofía Elena Beatriz, 1.786ko urtean Uztaillaren 9an jaio zanetik, 1.787ko Bagillaren 19rarte bizi zana.

## 1. 84. *XVIn Luis Frantzia ta Nafarroaren errege aulkira igonda, egin eban jaurpidetza.*

1.774ko urtean Loraillaren l0ean XVn Luis, nabarreri edo baztanga balizaren gaitzagaz, eta astiroko neke aldi azken arnasetan egon ondoren il zan, bere ondorengo seme XVIn Luis errege eginda.

(1) Noialleseko condesa = andere lagun lez egiteko. (2) Kosseko dukesa = jantziak antolatzeko arduraduna. (3) Lagun oste = séquito. (4)Moko-azal edo Zil-muturreko = prepucio, el agujero que tenia su prepucio era muy estrecho.

Eta lenengo neurri gogorra artu ebena XVIn Luisek, erritarrak eziñ ikusi edo gorroto euki eben ministruak, euren arduratik kanporatzea zan, Aigilloneko dukea eta Terray abatarekin egin ebena.

XVIn Luisek baiña, baten bat bear ebela gogoratu zan, eta Txosieul dukea ta Matxault baztartuta, Maurepas(1) kondeagaz geratu zan.

XVIn Luisek, len garrantzizko gauza artu bear izan, ebena, XlVn Luis bere aititeren Maupeon ministruak kendu eban Pariseko Lege Biltzarra, Arrras, Blois, Klermont-Ferrand, Lyon, Paris eta Poitiers´eko Auzi-Etxe Nagusiengandik aldatu ebana, XVIn Luisentzat zalantzan geratu zan Pariseko Lege Biltzarra berrezkuratu ala ez.

XVIn Luisek askenean berrezkuratu eban Pariseko Biltzar Nagusia, euren arduradunak ostera len ekiezan lan lekuetan ipinita.

Berjennes kondea(2) arduratu eban atzerritarrezko zeregiñakaz; Gudarako ardura Muy kondea; Sartineko Antoine itsasoko eginkizunaren arduraduna; Turgot´tar Jakkes(3) diruaren orokorrezko kontrola, diru-zaiñaren ministru bezala; Maleserbes Pariseko esku alde edo lurraldera bialdu eben, eta Annand Tomas Hue de Miromesnil, Frantziako atz edo zijiluaren(4) zaindari izendatu eben.

1.772ko urtean erre zan 661 eko urtean erruki egintzazko eran, eta gaixoarentzat eraiki zan Pariseko Dieu-Ostaletxea, 1.111 urte lanean egonda gero. Koroatzeko denbora onetan oso txarto egoana.

Dieu Ostaletxe ordez, lau gaxo-etxe egiteko antolaketak egin ba ziran, erriko altxorretan ez egoan dirurik. Eta Dieu Ostaletxe au bera barriztu, ta zabaldu zan.

1.774ko urtean Abenduaren 14an, Pariseko artx-apezpikuak ezarri eban lenengo arria, Parisen Sena ibaiaren zelaian egiteko geratu zan Sendalaritzazko Ikastetxeari.

1.775eko urtean Ekaiñaren 11n Reimseko eleiz nagusian koroatu ebazan XVIn Luis eta bere emazte Maria Antonieta artxidukesa, Pepino laburraren eran etorten zan eginkizun ori.

Reimseko gongotzai edo artx-apezpikuak igurtzi edo gantzutu eban, bere eskuetatik artuta erregetzazko eraztuna, errege makilla, zuzentasunezko eskua eta Koroia.

Gero beren eskuak buru gaiñean ipin eutsoezan. Erritar asko joan ziran ikusle, koroatze orreitara.

XVIn Luisek, Zuzenbidearen arloa asi zan bideratzen, Laterriaren gora beragaitik espetxeratuta egon ziran atxilotuak kanpora atara, eta atxiloentzak euki ebezan zigorrezko araudiak bir-ikusi edo bir-aztertu egiezan aginduta.

1.780ko urtean, espetxeratzen egiten ebazan atzilotutakoai epaitu baiño ariñago egiten eutsoezan gertubideak(5) kendu ebazan, eta igeslarien alde aringarriak(6) arauratzeko agindu eban.

---

(1)Pelippeaux ta Maurepas´tar Jean Frederik kondea = 1.701-1.781eko urte bitartean Bersallesen bizi zana. 1.749ko urtean XVn Luisekin itsasoko ministrua izanda, Mma Ponpadurrek erbesteratu egin ebana, eta Laterriaren ministrua XVIn Luisekin izanda, Lege-Biltzarra berezkuratu eban. 1.792eko urtean agertu ziran bere oroipenezko idazkiak. (2) Vergennes, Charles Gravier, conde de = 1.717ko urtean Dijon´en jaio eta 1.787ko urtean Bersallesen il. 1.754-1.768ko urte bitartean Turkian ordezko lanean ibili zana, eta 1.771-1.774ko urte bitartean Suezian. Eta XVIn Luisegaz, bera izan zan 1.779ko urtean Austria ta Prusiaren arteko borrokan, Testxeneko egiunea lortu ebana, eta 1.783ko urtean Bienan egin zan egiunea bideratu ebena, 1.786ko urtean Ingalaterragaz egin zan salerosketako egiunagaz be amaitu ebena. (3) Turgot, Ane Robert Jacques, baron de i´Aulne, 1.727ko urtetik 1.781eko urte bitartean bizi zana. Malesherbes,Chrétien-Guillaume de Lamoignon = 1.721ko urtean Parisen jaio ta 1.794ko urtean Parisen il, XVIn Luis babestu ebena Konbenzioaren aurrean, eta erregeari burua moztu eutsoenean iraultzaren Auzi batek, lepoa mozteko gaillura berari be bialdu eutson. (4) Atz edo zijiluaren zaindari = xuzen eragille edo el equivalente a ministro de justicia. (5) Epaitu baiño ariñago, gertzeko egiten eutsoezan indarrezko alegiñak = Torturas. (6) Arauratzeko alde aringarriak agindu= mando regular los atenuantes de las deserciones.

XVIn Luisen erregetza osoa, 1.771ko urtean bere aita XVn Luisen agindupean egon zan Moupeour´tar Rene Nikolas Karlos Agustines arduradunak, berrikuntzazko ekitaldietan asi zanetik, berak erakunde ta diruen arloak zuzentzeko egin ebazan ekiñaldiagaitik marratuta dago.

XVIn Luisek Lege Biltzarrak berrezkuratzen dauz, ta Turgot, Nekker, Kalonne, Brienne eta ostera Nekkerrek lau biderrez beintzat alegindu ziran, erregetzaren berrikuntzakaz, eta batez be danentzat bardindu egingo ebazan zerga barri bat ipinten. Orren alegin bakoitzean, Zaldun, Nagusi, Gorengo apaiz edo ta legetik aske ta baimenduak ziranen aurkaritzan agertzen zan.

Lege Biltzarraren Soiñ-ganeko edo epaille jantzitako andikien aurkaritza be artu eban, auek beti bizi ziran oparotasunezko eran bizi gura ebelako, eta XVIn Luisek ez ebalako gura, erregetzak emoten eutsoezan orokorrezko aginduaren almenak erabili, egiten ebazan berrikuntzak, izenpetzearen bearra izan eban.

XVIn Luisek geien gura ebana, berak egiten ebazan berrikuntzak, orokorrezko Laterrietan ezartzea zan, eta 1.789ko urtean ospatzeko geratu ziran batzar orreik.

Eta berak egiten ebazan berrikuntzaren arazo aundienak, eleiz katolikoaren aberrituta batzangotzeko goiko agintari bidetik, aurkaritza gogorra euki ba eban, ez zan gitxiago diru arloetan agertzen zan ondamena, xaupide edo ordaiñezkoak, irabaziak baiño askoz geiago izaten ziralako.

XVIn Luis ikusi ondoren zer gertatzen jakon, andiki ta eleiza katolikoaren agintariekin, eurak euki ebazan berarizko lege berezien aurka, bearkuntzazko neurriak artzea erabagi eban, norkeriz zelan bizi ziran legez kanpo, erritarrak ikusi egiezan.

Eta XVIn Luisen leen ministruak, adikor ospatzeko deitu ba ebezan Orokorrezko Laterrien batzarrak, guztiz alde egin eben bere kontrolpetik.



## 1. 85. *Turgot´tar Jakkes ministruaren jaurkintza.*

XVIn Luisek, Turgot´tar Jakkes izendatu eban diruketaren arduraduna.

Eta onek bereala, matxintasunezko montio edo egitaraua aurkeztuko eban, erritarrek aukeratuta, goitik berako agintaritzan egiteko batzarrak: auzo batzar, udal batzar, barruti batzar, lurralde batzar, eta askenez, erregetzaren udal edo erritarrezko batzarra egiteko.

Turgot´ek beste bildugarrizko montio batzuk be gura ebazan antolatu:

-Diru bageko erritarren lepoetan egon ziran eta ito egiten eutsoezan zergak, kentzea.

-Aundiki eta eleiztar nagusiei, lurraldeen zerga bategaz arduratu.

-Eleiza bidetik, diru gitxien artzen ebazan apaiz eta apaiz ordezkoak obeagotu, eta lekaidetxe geienak kenduta, kalastrazko erakunde bat eraikita, danak bakotzari egokitzen jakon neurrian, zergakaz ardurapetu.

-Ukalarien eritziak askatu. Feudoko jaunen ordeak erostea. Erregetza osoan, neurrian eta berekiko azta bardiñak egokitzea. Askatasun osoa salerosketa ta mercantil arloetan.

Eta Turgot bera arduratzen zan lez gaidun edo ta ekanduzko arlo orretan, erritarrentzat irakaskintza bategaz arduratzea, antolabide onen egitamuzko argiak ulertu zitezen(1).

Azi, ale edo ta garaoaren saltzaille bakar, zaldunezko togadun edo epaille jantzitako aundikiak, legetik askatuta egon ziranak eta berrikuntza oneik kalte egiten eutsonenai, alkarte aundietan asi ziran batzen Turgot´en aurka.

Alkartasun orreitara erregeen ondorengoak ziran Maurepas ministrua eta erregearen emazte Maria Antonieta bezelakoak alkartuta.

(1) Antolabide onen egitamuzko argi edo arrazoiak ulertu zitezen = dando principio al movimiento de la ilustración, que proclamaba la soberanía de la razón, frente a la revelación y a la autoridad.

XVIn Luis alegindu zan legetik askatuta egon zirenak eta Maurepas ta erregeiñagaz elkarte orrek osotzen abazanai aurre egiten, Targoten antolaketak aurrera egien.

Eta 1.776ko urtearen Epaillan, XVIn Luisek autortu egiten dau: "Argi ikusten dot, erria Turgot eta nik bakarrik maitatzen dogula".

Ia Frantzi guztia matxinatu zan, urunek artu eban balioagaitik.

Eta balekite aberats aundiki ta odolezko printzeagaitik antolatuta egon matxintasun au, eurak izan zirelako artu eben kalte aundiagoena, diru arloaren berrikuntzak eraginda.

Erritar gosetiak, gitxi bear izan ebalako matxinatu zitezen, aundiki orrengaitik zirikituta.

XVIn Luisek egoera orren aurka urte bi egonda, onartu bear izan ebazan erritar ta aundiki orreiñ aurkaritza.

1.776ko urtean Loraillaren 12an Malesherbesek(1) itzi eban euken jaurkintzazko ardurea, eta erregeak Turgot kendu bear izan eban bere agintaritzazko lekutik, ta argiratu ebazan legeak ezereztu.

## 1. 86. *Nekker´en ministeritza.*

1.776ko urtean XVIn Luisek Turgot kenduta, Jakkes Nekker izendatu eben diru arloen zuzendaritzak(2) eroateko.

Jakkes Nekker au erritarren be-maillatik igonekoa izanez gaiñ, Jinebrako atzerritarra, eta baita erlijioz aurkari edo ukalaria zan.

XVIn Luis eta Nekker´ek, oiñarrizko berrikuntzetara itzuli ziran.

1.778ko urtean Boltairek(3), Mont Jura ta Sanint Klaude lekaretxeko ezku mendekoak askatzeko alde agertu zan.

Eta 1.779ko urtean Dagonillaren 8an Nekker´ek agindu bategaz, erregetzaren azken ezku mendeko edo zerbitzariak askatu ebazan, ekintza orregaz antzeztuta bere jaurkintza.

Urte onetan be agertu eban lege bat, andra ezkondu, meatzari, eta lekaideak eskubidetu egiten ebazanak, euren bizi sariak edo euki ebezan diruak erabiltea, senar edo iñoren baimenik bage.

A ta guzti, zerbitzutasunezkoaren aurkako lege orreik ez ziran debekatu Frantziko Iraultzararte.

(1) Malesherbes= Malesherbes, Chrétien-Guillaume de Lamoignonde. 1.721ean Parisen jaio eta 1.794ko urtean Parisen il. Askatasunaren aldekoa, eta eroakor edo zabala izan zana berari aurkezten eutsoezan idazkiak beren eritzia emoteko. XVIn Luisen ministru bezela, erregea babestu eban Frantziko matxintasunaren ongundean. Matxintasunezko epaitegi batek, guillotina edo lepoa moztuteko gaillura zigortu ebena, XVIn Luiseri lepoa edo burua moztu ondoren. (2) Diruzko arloaren zuzendari = el equivalente a controlador general de las finanzas. (3) Boltaire edo Voltaire = Bere izena Francois Marie Arouet zan, 1.694ko urtean Parisen jaioa eta l,778ko urtean il zana. Argitasunezko aldiaren (Ilustración) gizon jakintsuen artean ia aundiena izan zana eta Frantziko iraultzan ia geien esku artu ebena. Josu Lagunekin ikasita, bi bider egoan atxilotuta Pariseko Bastillan, 1.717-18 urte bitartean eta 1.726ko urtean. Ingalaterran egon zan erbesteratuta aldikada baten, eta Frantzia-lngalaterrako goibe aundi orren bitartez, 1.734ko urtean bere Letras Filosóficas argitu eban, Frantzia osoa dardarazi itzi ebana, Pariseko batzarrak debekatu egin ebana, Zirey´ko errian kokatu zan urrengo amar urtetan. 1745ko urtean Frantziko Jakitun Batzarrean sartu zan, erregetzaren edestilari ta aitor semeen (gentil hombre) ardura artu ebazan. 1.750eko urtean eta bere miresle aundia izan zan Prusiako IIn Federikoren alegiñagaitik Postdam´era joan zan 1.753ko urterarte egonda. Eta eztabaidak egon ziralako bien artean Jinebrara eta gero Farney´ra joan zan, bertotik Europako printze ta filosfu eta idazle on geienakin artu emon aundia eukinda. 1.788ko urtean itzuli zan ostera Parisera, eta adimen zaleko gudaria izanda, zalegikeria, zorrozkeria edo ta jasan eziña, bai bera Jaungoikua onartuz, goi-agertaldiaren eta kanpoko gurketaren aurkakoa izanda, espetxeetako oñaztapenak, eta eleiza katolikoaren batzangotasunezko aberrikuntza erasotu ebazan eziñ besterarte. Eta ainbat liburu eder argitaratu egin ebazan.

Arik eta 1.789ko urtean Dagonillaren 4ko gabean, fabore doai edo eskubide bakar euki-ten ebazanai, ta iltzeko zigortasunera egon ziranai egiten eutsiezan aurreko itaunak debekatu ziran arte.

Nekkerrek diru arloaren gora berak zuzentzeko be, euki eban gogoan lurraldeko batza-rrak eraikitea.

1.781eko urtean Nekkerrek, diruaren arloetan berak egin ebana, "Guda"ko idaz lanean bere aurreko Turgot´eri aiñ emaitza onak emon eutsoezanak argitaratu ostean, eta Laterrien diru arloko batzarrean aurkeztu ondoren, asi zan bere jaurkintza.

Lege Biltzarrekoak, ezereztu ebazan berak aurkeztu ebazan lurraldeko batzar orrein sor-tzeak, eta gorteko gizonak ikusita euren diru kontuak gutxitu egiten zirala, guzur beltzkeria ibili eben ugari, errege ta beren ministruaren ospe ta almenak murrizteko.

1.781eko urtean Loraillaren 2lean, XVIn Luis erregea eta bai bere Nekker ministruak, ezin eben geiago jasan edo eutsi, aundiki orrein aurkakorik eta uko egin eutsoen zeregiñ orreri, Lege Biltzarrak onartu ebena.

## 1. 87. *Kalonne´en ministeritza.*

1.783ko urtearen Azaroan XVIn Luisek, Txarles Alexandre de Kalonne izendatu eban diru kontuen ikertzail nagusi lez, ararte Laterriko ministrua zan Nekker´en ordez ipinteko.

1.786ko urtean Ingalaterragaz egiune bat egin eban garraio eta langintzak bizkortu egie-zan alegiñ aundiak eginda, Laterrien ziñezpena berrezkuratzeko.

Kalonnek, iru urtean eroan ebazan maillegu, zorretan edo prestameneko ordaiñaren jaur-kintzak, Laterriaren diru kontuak garbitu, bultzatu ta indartzeko.

Guzurrezkoa biurtu jakona, bere aurretik egin ebezan berrikuntzaren antolamendutara joan izan bear ebelako ostera; Barru aldeko salerosketaren arloak askatuz, barruko mugak ta al-kargoak kendu, zergak gitziagotu, eta be maillako erritarrak, erdi mendearen antzera, erregeen-tzat egiten ebazan doaiezko lanak, diruaren trukera aldatu, gutxitzeko kutxa(1), Laterriaren diru-kutxa lez biurtu, eta batez be, lege berezi, fabore edo baimen aundiarekin bizi ziranak zergapetu eta euren azpikoai sorospide edo diru laguntzagaz beartu gogoan edo gogoz artu egiezen.

Lurraldeko batzarrak berriztu, eta eurak aukeratu diru orreik banandu egiezen.

Kolonnek Turgoten antzera, erritarrak aukeratuz, eleiztar ta auzotegiraiño goitik berako antolamenduan batzartu gura eban.

Eta XVIn Luisek Kolonneri esan eutson: "Nekkerrek aurkeztu eustan antolamendu ber bera zala, berak aurkezten eutsoena", baiña egitamu ori, geiago izan zan, edo antz geiago euki eben beintzat, Turgot´ek aurkeztu eutson antolamenduagaz, Nekkerrena baiño.

Egitamu orreik antzerkilarien artean euki eban aurreneko egillea, du Pont de Nemours Pierre Samuel fisoiokrata(2), Turgot´ek lenengoetatik euki eban laguntzaillearena zan.

Eta Lege Biltzarrean, gitxien ziran zaldun edo togakaz jantzita joaten ziran aundikien aurka ez agertzeko, gobemuko jaurlariak, 144ko buruzagien(3) batzar bat antolatu eban, egi-tamu ori aurrera eroateko.

1.787ko urtearen Urtarrillan XVIn Luisek, Alsaziako juduak ordaindu bear ebezan oin sariak kendu ebazan.

1.787ko urtean Otsail-Epail illetan andiki orreikaz batzartuta, kendu edo ezereztu egin eban bardiñezko zerga ori.

(1) Gutxitzeko kutxa Laterrien diru-kutxa lez biurtu = a la Caja de descuento, convertirla en un banco estatal. (2) Fisiokrata = partidario de la escuela económica, que atribuía a la naturaleza el origen de toda riqueza. (3) Buruzagien fabore edo baimen aundikoak ziranak = Privilegiados.

Eta XVIn Luisek 1.787ko urte orren Jorraillan, aundiki, bere emazte edo ta jaurlariko agintariak emon eutsoezan aolkuak artu ondoren, bere ondotik kendu eban Kolonne jauna.

## 1. 88. *XVIn Luisek, atzerrirako eroan eban politikea.*

***Amerikarraren askatasunezko guda:***

1.775ko urtean Frantziak, Ameriketan euki zituzen kolonizatuakin asi zan berbetan, euren askatasunaren gora beran.

Azkenean Berjennesek, txantxa edo isekan esan edo ulertuazo eutson XVIn Luiseri, gudan asteko ingelezaren aurka, Ameriketako kolonien askatasunagaitik.

1.776ko urtean eldu zan Frantzira, Ameriketako lurraldeetan Ingalaterrak euki ebazan kolonien askatasuna.

Frantzezaren gogoan, zazpi urteko gudatan Ingalaterraren aurka galdu zituzen koloniak, berrezkuratzea zalako.

1.778ko urtean Otsaillaren 8an, argitu zan Frantziak eta Amerikarrak sinatu eben elkargoa.

1.778ko urte orreitan XVIn Luisek, Franklintar Benjamín(1) Amerikarra artu eban bere gorteko jauretxean, eta espainiako errege IIIn Karlos limurtu eban, koloniekaz alkartu zediñ.

1.788ko urtearen Udabarrian, beste garrantzidunezko barri bat, XVIn Luisen emazte Maria Antonieta aurdun geratu zala zan.

Eta 1.788ko urte berean Abenduaren 19n danoen etsipenerako, neskea jaio jakien. Maria Teresaren izena ipini eutsoen.

1.778ko urtean Uztaillaren 27ko egunaren bien bitartez, Frantziak ainbat garaipen lortu ebazan. Garrantzitsuena, Atlant Itsasoan kokatzen dan Ouessant´eko Ugarte aurrean lortu ebena.

Denbora orreitan XVIn Luis berak, euken Sartine Itsas-Ministruagaz antolatu ebazan Mantxako itsas estuetaik eraso aldi batzuk.

1.779ko urtean Frantzezak, Afrikako Senegal berrezkuratu eben, itsas-borroka batzuk galdu arren. Frantzia eta Espainiako itsas gudariak sazkilduta geratu ziran borroka orreitan, euren artean sortu zan disenteria edo sabeleriagaz.

XVIn Luisek, Amerikako lurraldeak gura ebazan babestu ainbat gudalozte indartsuak bialduta, Washington´tar Jeorjeo amerikar gudal nagusiari laguntzeko.

1.781eko urtea, oparozko urtea izan zan frantzezarentzat, adibidez:

-Otsaillaren 2an Frantzia eta Espainiako itsasontzidiak Menorkako ugartea berrezkuratu eben Ingelesaren eskutik(2).

-Jorraillaren 8ko gauetik 9ko egunetan XVIn Luisek, Ameriketan borrokatzen egoala, Jinebrako jauntzuak agertu eutsoen matxintasun gogorra bakeztu gura eban, alosokerizko legeak ezartzeko. Aztuta, ameriketan askatasuna ta bardintasunagaitik borrokatzen ibili zala.

-Eta Ameriketako jaurkintzaren batzarkide Franklintar Benjamin, John Adams, eta John Jayk au ikusita, Frantziagaz euki zituzen egiuneak baztartuz, Ingalaterragaz sinatu ebazan bakeak, eta XVIn Luis gauza onegaitik asarratuz, bere ministra Berjenneseri eskatu eutson Franklin´tar Benjamin´eri gogor egiola, zentzaldian agertu zediñ.

---

(1)Franklin´tar Benjamín = Amerikar jakintsua, 1.706ko urtean Boston jaioa, eta 1.790ko urtean Filadelfian il. 12 urte euki zituzenean ikasketari itxi ta bere aitari saboia eta kandelak egiten asi ondoren, gizon aundia egin zan. Eta 1.775eko urtean, berari agindu eutsoen Ameriketaren askatasunezko idaz-agiria, idatzi egiela, gauza askoren artean. (2) Washington George = Bijrjiniako Wwstmoreland 1.732ko urtean jaioa, etal.799ko urtean Birjiniako Mount Bernon ilda. Amerikarrak euki eben Gudal Nagusi aundi ta Amerikarraren lenengo lendakaria.

-1.781ekourtean Iraillaren 27ko egunetik, Urrillaren 19ko eguneraiño, Birjiniaren Ekialdeko lurraldean Yorktown´eko península edo Ugarte egineko azken borroka orreik, gudalozteak Amerikar Washington, Frantzez Lafayette eta Rotxanbeau gudal nagusiak, Frantzez Itsazontzidiakaz, De Grasse amiral-ontzi nagusiagaitik ainbat alditan erasotu ondoren, garaipen aundia lortu eben.

-1.781eko urtean Urrillaren 22an Frantzian, Maria Antonietak, itxaropenezko semea eukin eban, Luis Jose deitu eutsoenai.

-1.781eko urtean Azaroaren 2lean, beste garrantzizko gauza bat sortu zan Frantzian, Maurepastar(1) Jean Frederik Phelippeaux kondea il zanean, erritar guztiak itandu bat euren artean eginda: "Eta oraiñ Frantziko jaurkintza nork zuzenduko dau ?", "ni neuk jaurrituko dot"(2) erregeak erantzunda.

1.783ko urtean Urtarrillaren 20an askenez, frantzezak, espainolak, amerikarrak eta ingelesak, Bersalleseko jauretxearen Aolkuzko Gelan batzartu ziran.

Eta batzar orretan artu ziran erabagiakaz: Frantziari, Senegaleko zati bat, Karibeko Ugarte batzuk eta India ta Dunkerkekin euki zituzen salerosteko itsas-kaien artu emonak emon eutsoezan.

Beste aldetik, frantzezak lenengoetan amerikarrekin berba eginda euki zituzen diruz sei milloien libera galdu ebazan. Frantziko Laterriarentzat ekintza orrek baiña, zorrak agirían ipini eutsoezan, larogei liberaraiño eldu ziranak.

## 1. 89. ***XVIn Luisek, Austriarekin euki ebazan artu emonak***(3).

1.778ko urtearen lenengo illabetetan, Alemaniko Beko-Babieran(4) ondorengotasunezko guda sortu zan, IIn Jose Alemaniako Erromatar Kaisar Sakratuaren kaiserraren ustez, Frantziko Maria Antonietaren nebea zanak, erregetza orren aulkian ezartzeko, eskubideak eukezala. Maria Antonieta Frantziko erregiñaren maitasunezko borondateari ikutuz, aitzakizko zirikiketa asko artzen ebazan eten bage bere amaren aldetik, eta ondo eskuratzen eban Austriatar erregeen ordezko Merzy´k(5) bestetik zirikituz, bere senar XVIn Luis eta onek eukazan ministruari berba eutsoen Austriako erregetzaren gora beran, auek baiña, erregiñak asarre asko ta aundiak euki arren, ez eben ezer onartzen, eta erregiñak bere aurduntasunagaz jokatu arren be, ez eban lortu ezer.

XVIn Luis berak artu eban erabagia, artekarizko bakeak egiteko, IIn Joseri eskatuz, uko edo ukatu egiala Babierako Be aldearen erregetza ori.

Eta 1.779ko urtean Loraillaren 13an, Testxen(6) sinatu eban bakezko agiria.

1.782ko urtean Un Jose Alemaniako kaiserrak, Maria Antonieta arrebari, bere senar XVIn Luis limurtu egiala eskatu eutson, Austria ta Errusiari(7) lagunduten sinist-arazteko, esku artean eukan gudaketa, ona zalako irurentzat.

IIn Jose Alemaniako kaiserraren gogoz ta Errusiako IIn Katalinagaz batera, Otomanoen Kaisertza erdibitu gura eban euren artean, Frantziari Ejipto emonda bere tentun edo erdikotasunagaitik(8).

---

(1) Maurepas, Jean Fréderic Péhlippeaux, conde de = 1.701eko urtean Bersallezen jaioa, eta 1.781eko urtean Bersallezen il zana, XVn Luisekin Itsas ministrua eta 1.749ko urtean Ponpadur´ek atzerriratu ebena, eta gero XVIn Luisekin, Leen ministrua eta Laterriko Ministrua izan zana. (2) Erriak, eta oraiñ Frantziako jaurkintza nork zuzenduko dau ?, erregeak erantzunda *"J'entends régner", "Neuk zuzenduko dot, edo Gazteleraz = yo pienso reinar"*. (3) Guerra de la marmita. (4) Baviera = Ipar aldean Turinjia, Ipar-Ekialdean Txekoslobakia, Ipar-Egoaldean Hesse, Ekialde eta Egoalde-Ekialdetik Austria, Egoaldeko Mendebaletik Suiza, Mendebaletik Baden-Württemberj´gaitik mugatuta dagoena Munitxeko bere Uri nagisiagaz. K.a. Erromatarrak menperatu ebena; K.o. 788ko urtean Karlomajnok bere kaisertzara sartu ebena; Erromatar kaisar sakratuaren dukaterria izan zan; 1.778-1.779ko urte bitartean bere ondorizko guda ostean, Palatinadokoakaz alkartu zan; 1.871eko urtean Alemaniako kaisertzagaz alkartu zana; eta 1.918ko urtean IIIn Luis erregea kenduta Errepublika baten biurtuta gero, IIIn Reitx´eko Laterri baten biurtu zana. (5) Austriatar Merzi, erregen ordezkoa = El Austríaco embajador Mercy. (6) Testxen euskeraz edo Teschen gazteleras = Cieszyn´ko uria, Poloniaren Katowice lurraldean Olsa ibaiaren eskuma aldean eta Txekoslobakiako Cesky Tésin´eko uri aurrean aduana, eta beragaz lotuta egon zana 1.920ko urterarte. (7) Errusian, IIn Kataliñ Aundia izan zan erregiña. (8) Tentun edo erdikotasunagaitik = neutralidad.

XVIn Luisek onartu al eban bere koñatu Alemaniako IIn Josek agintzen edo eskeintzen eutsona, eskutitz bat idatzi eutson baiña, kalte-ordaiñ bide orreik Europa osoan beti, arazo aundiak sortzen ebazala esaten.

Alemaniako IIn Josek, eskutitz ori irakurri ondoren, bete betean gogoratu zan, Frantziko XVIn Luis, Otomano Kaisertzaren babesle edo laguntzaille zala, ta arazo baten bat egon ezkero, euren alde kokatuko zala. Eta beartuta agertu zan asmo orreik bertan izten.

1.783ko urtean Azaroaren lean Maria Antonietak, bere señar XVIn Luisegaz urreratze bat euki ondoren, aurdun geratu zan, eta gura ezin-bageko aur-galtzea euki eban.

1.784ko urtean Alemaniako IIn Josek, Balkanesko mendi-katearen edo bere inguruan dagozan Bulgaria, Albania, Yugoslavia, Grezia eta Europako Turbia ta Rumaniari bakez itzita, Beko Errialdekoakaz sartu zan.

IIn Josek, Olandesak ostera zabaldu egien Eskaldako errekaren aoa edo sarrera gura eban, Austriatar Bealdeko Erriaren Anbereseko kai´en zabaltasuna lortzeko.

Wesfalian egin zan bakezko egiunaren aurkakoa zan asmo ori baiña, Frantziko erregea konturatuta.

Eta XVIn Luis bere koñatu IIn Josek euki ebazan asmoak, Olandarren salerosteko irabaziaren arloak oinkatu edo zapaldu egiten ebazala ta, frantzezak asarratu ziran.

XVIn Luis bere koiñatu IIn Josegaz asarre, Europako bakaea beti, zalantzan ipinten ebalako, geiago be asarratu zan bere galestarren eritziak, Olandarren alde agertu ziranean.

Eta XVIn Luis bere koñatu Alemaniako IIn Josegaz asarre Europako bakea beti dangiliz edo zalantzan ipinten ebalako, Olandakin alkartu zan.

IIn Josek, barriro zirikitu eban bere arreba Maria Antonieta bere alde egien.

Alperrezkoak izan ziran baiña erregiñak egin ebazan alegiñ guztiak, nai ta laugarrenez aurdun geratu arren, eta bere neba IIn Joseri esan bearrean geratu zan, berak ezin ebala geiagorik egin bere senar XVIn Luisekin.

IIn Josek jakinda bere koñatu XVIn Luisek ez eutsola lagunduko, Austriako itsasontzi bat bialdu eban Eskaldako ibaitik, bere asmoak indarrez beteteko.

Olandesak ikusi ondoren itsasontzia errekatik zear, oarkizun batzuk bialdu ondoren, tirokatu eben itsasontzi ori, IIn Josek gudarekin keiñatuta.

Eta egoera ori, Europako bakea apurtzeko larrian egon zanean, XVIn Luis agertu zan bake zale.

Alemaniako kaisar IIn Josek, amar milloi florin eskatu ebazan bere guda-garaipenari uko egitearren, Olandarrak zortzi milloira beratuta IIn Jose´k euki ebazan asmo orreik.

Eta XVIn Luis bera aurreratu zan bakeagaitik, Olandarren diru gabetasunezko bi milloi orreik ordaintzeko.

1.785eko urtean Epaillaren 27an, askeneko alperkerizko esku-joku edo esku-lan au, balekite erregiñaren eragipenetik sortukoa zala, urte ta egun onetan beste seme bat Luis Karlos euki ebalako. Eta beste urtean Maria Sofía Elena Beatriz, urte baten barruan, birikien gaitzaldiagaz il zana.

## 1. 90. *Frantziko Orokorrezko Laterriak.*

1.789ko Loraillaren 5ean Frantziko Bersallesen batu ziran Orokorrezko Laterriak.

Irugarren Laterria, bereala, beste bien aurka agertuta.

Eta egun onetan Frantzian sortzen zana, ez eban euki zer ikusirik, XVIn Luis eta bere emazte Maria Antonietagaz, auek begira egon ziralako iltzen egoan euren ondorengo semea ta.

1.789ko urtean Bagillaren 4an il zan Luis Jose erregearen semea, eta XVIn Luisek gelditu ebazan Orrokorrezko Laterrien batzar orreik ille biko doluak aginduta.

Irugarren Laterriak, erregearen aginduari jaramon egin barik, Aberri Batzar lez izendatuz, pelotazko gelan batzartu ziran Bagillaren 20an, euren artean zin eginda, andik ez ebela iñork urtengo, arik eta Frantziaren araudizko lege nagusiak(1) osotu arte.

1.789ko urtean Uztaillaren 9an Orokorrezko batzarraren izenari, Araudi Batzarrena(2) gañeratu jakon.

Egun onetan eleiztar geienak ta 50 zaldunezkoak jaio zan batzar orretara ondoratu ziran.

XVIn Luisek batzar orreik bere kontrolpean eukiteko, Alsaziatik Broglie mariskala euki zituzen gudalozteak ekarri ebazan Paris eta Bersalleseko ingurua menperatzeko.

Gudarien ibilkorra baiña, agertu eban erregeak euki eben asmoa.

1.789ko urtean Uztaillaren 13an, erritarren asarrea gora joan zan, eta erregeak Nekker´en utziera onartu eban.

1.789ko urtean Uztaillaren 14an Pariseko erritarrak eta igeslari naikoak alkartuz, Bastillako gaztelua artu eben, erritarrak erregeen jauntxukeriagaz lotzen ebalako gaztelu ori, eta or emon jakon asiera, Frantziko Iraultzaren matxintasunari.

## 1. 91. *Frantziko Iraultza.*

Urrengo asteetan diru geiegi edo geien euki ebazan sendiak, Artois(3) ta Polijnak´ekoak(4) bezela, igeska asi ziran, il egiezan bildurra euki ebelako.

1.789ko urtean Uztaillaren 17an XVIn Luisek, Pariseko bidea artu eban bere emazte Maria Antonietak itzi ez arren, au lotsagarriazkoa zala erregearentzat oldozten ebalako, baita bildur be zalako XVIn Luis il egien. Erregea ostera, Bersallesera joanda.

XVIn Luis errege berak lagundu eutsoen Pariseko matxinatuari, eta orregaitik eroaten eban iru Koloreakaz beren kapela, errigizartearen ta erregetzaren batasunezko ezauntzaren ikurra iruditzen ebalako.

1.789ko urtean Uztaillaren 29an erritarrak eskatuz, ostera ekarri eben Nekker, diru arloaren ministru bezela ipinteko.

Bien bitartean, zaldunezko andikiak ekarriko ebezan gudalozteari bildur, erritarrak euki eben sabel-zorria edo goseagaz, eta erritarren artean egon zan naasmena bidez, Frantzi osora zabalduta, ainbat nekazarien arteko matxintasunak sortu ziran andikien aurka, Bildur Andikoaren izenagaz ezagutu ziranak.

1.789ko urtean Dagonillaren 4an, gauza guzti oneri bake apur bat emotearren, batzarrak, feudoko legeak ezereztu ebazan, erritar guztiak bardiñezkoak izateko, feudotzaren amaiera esangura ebana.

XVIn Luis erregea asarratu zan, erriaren Laterri guztien goiko puntan(5) bera, edo orduko erregeak al-osokerizko zetzu orretan etorten ziralako. Ez eban atzerakadarik euki baiña, erritarren berdintasunezko eritzi ori aurrera joan zalako.

---

(1) Frantziaren araudizko lege nagusiak euki edo osotu arte = Leyes constitucionales de Francia. (2) Orokorrezko Batzarraren izenari, Araudi Batzarrena gañeratu jakon = al nombre de las cortes generales, se le añadió el nombre de cortes constituyentes. (3) Artois sendia = Artoiseko konde izen au, XVn Luisek emon eutson bere bir-seme Karlos Feliperi, geroago Xn Karlos erregea izando zana. (4) Polijnak = Sendi andia izan zan 1.050eko urtetik Loira ibaiaren Iparraldean aginduten ebena. Eta Armand Jules François 1.745eko urtean Parisen jaioa eta 1.817ko urtean San Petesburgon ilda izan zan Frantziko Iraultzaren denborakua, eta 1.780ko urtean Polijnak´eko dukea egin ebena, eta bere emazte Yolanda Martine Gabrieke de Polastron (1.749-1.793) izan zan XVIn Luisen emazte Maria Antonietaren lagun miña eta laguntzaille, Iraultzako epaikideak gogor zalatu ebena. (5) Erregea asarratu zan, erriaren Laterri guztien goiko puntan bera egoalako = el rey se enconó, porque la figura del rey estaba en la cúspide de todo el estamentario nacional, que los revolucionarios querían subvertir con sus reinvindicaciones de igualdad.

1.789ko urtean Urrillaren lean Bersalleseko jauregian, afari aundi bat emon eben Flandeseko gudaloztearen omenez, erritarrak baiña, ez eben olan artu edo ez eben gura olan ulertu, eta Parisen, iraultzaren aurkako batzar bat lez izan zala zabaldu zan, omenezko afari ori.

1.789ko urtean Urrillaren 5ean nekazarien tresneriekaz izkillatuta andrazko parrastada andi bat gizonakin naasturik, Bersalleseko jauregira joan ziran, erregeari ogia eta matxintasunezko egoera larri orren amaiera eskatzen.

1.789ko urtean Urrillaren 6an, erregeen gelak indarrez artu ebazan eta illak be egon ziran zaindari ta erritarren artean.

Eta beartu ebazan errege ta bere senditasuna, Tulleriaseko jauretxera joaten, Aberriko Zaindariaren begipean.

1.789ko urtean Urrillaren l0ean Orokorrezko Batzarrak, Luis erregearen izen buru barri bat onartu eben: ***"Louis, par la gráce de Dieu et la loi de l'État constitutionnelle, Roí des Francais"***(1). Eta emen aldatzen dabe, ararte Frantziko erregea erritar ezberdiñaren artekaria izan zanetik, Frantzezaren errege izatera erritarren menpe, lurralde orrek euki ebazan erri ta izkuntza ezberdiñaren eskubideak ezeren kontuan artu edo euki barik. Europan, bera izanda lenengoa.

XVIn Luis, Tulleriaseko jauretxetik, eizan be urten ezinik, geldotasun edo gogo-gabekeri antzeko baten jausi zan.

Erregearen sendi artean, Parisetik iges egiteko gogamenakaz asi ziran, Europako erregeari politika eta guda laguntza eskatzen.

Erabagi ori ulergaitz eta galbide edo arriskutsua zan oso, eta orrela zirela gauzak erregeak, zentzuzko batzarkideen laguntza asi ziran aurkitzen, izkutuzko itzarmen orreik, Onore Mirabeauko markesagaz(2) asita.

Erregeak, apurka eta argi ta zeaztasun aundiagaz irakurri ebezan Mirabeauk bialdu eutsoezan argibideak, baiña Fersen eta Breteuil kondeakaz euki eben uste obeagoa, eta Breteuil Suizan erbesteratuta egon arren, bera ekarri eben Europako gorteetan euren ordezkoa izan zediñ.

Bien bitartean, erregeen inguruan egon ziran Laterriaren zaintzaille edo gudariak, eurak esaten eutsoen politikazko atxilotuak zirela, eta euren aukerea, sortu ziran agintarien eskumendekoa zala.

Erregeak, ez ziran egon adoz konstituzioaren itz-aurrekoak esaten ebanakin, ez eta zaldun edo aundikiak euren esanetan, iraultzaren aurka egingo eben beste matxintasunekin be, zaldun edo aundiki oneik errege eta erregiñagaitik ez-ikusi aundi baten gaiñetik, ez ebelako erakusten besterik. Erregeak, auek esaten ebanagaitik bildurtuta, eurei mezulariak bialdu eutsoezan pakeztu zitezen.

Bien bitartez Marat(3) ibili zan zirikitzaille erregearen aurka, XVIn Luiseri Marat´ek, iraultzaren aurkako beste matxinada baten buru zala salatzen ebalako, erritarrak zirikatuz

---

(1)"Louis, par la gráce de Dieu et la loi de l'État constitutionnelle, Roi des Francais" = "Luis, Jainkoaren grazia eta Laterriaren jaurgo lege bidetik, Frantzezaren errege". "Luis, por la gracia de Dios y la ley del Estado constitucional, rey de los franceses", berezko erriak, edo berezkotasunaren jendekuntzazko erriak ezereztu edo baztartu, edo legezkoak ziranak kontuan artu bage, asmakuntzazko erriak onartuz, Frantziko erri ezberdiñ lurraldea, frantzezaren laterrian biurtu ebelako, Jaungoikuaren Lege bidetik, eskubidetuta sortu ziran berezko erri guztiaren aurka. (2) Honore Gabriel Riqueti Miabeau´ko kondea = 1.749ko urtean Le Bijnonen jaioa eta 1.791eko urtean Parisen il. Erregearen izaera eta Iraultzaren eritziak batera eroaten alegindu zan, gauza biak elkargariak zirala ta bere esanetan. 1.790ko urtean (Jacobinos) demagogu edo erri-naslearen edo ta Frantziaren lraultzako alderdi oldartsu edo odol-bero ta odoltsuaren aldekoak ziranen kide izan zan. Eta 1.791 ko urtean Frantziaren Laterriko Batzar Nagusiaren lendakaria izan zana.(3) Marat = Marat´tar Jean Paul, Suizako Neutxatel Lurraldean Boudry´neko urian 1.744ko urtean jaioa, eta 1.793ko urtean Pariseko bere etxean eta busti-ontzian garbitzen egoala, Korday´tar Karlotak il ebena. Osagillea zan, eta París eta Laterrizko erri batzarraren kidea izanda, "L'Ami du Peuple" aldizkarian idazten ebazan idaz lan gogorragaitik ezagun egin zan, Iraillan egin ziran sarraski edo ilketaren zirikatzaille izan zan. Eta 1.789ko urtean argitu zan bere idaz lanen bereizte bat "Extraits des oeuvres de Mura´en izen buruarekin.

erregeak il egiezen. Orren ondorioz Paristarrak, XVIn Luis ta bere emazte Maria Antonieta erregiña, ilketa merezi eben errege saltzaille lez artu ebazan.

Eta bide onetatik izan zan erritarrak oitu zirela, erregeak ilteko merezimenduan ikusteko, erria zuzendu barik, azkenean, saltzaille batzuk baiño besterik ez zirala usten ebelako.

Gauzak, olangoak zirala ta, Fersen(1) kondeak, Maria Antonieta erregiñari esaten eutson, erregea sinist-arazi edo limurtu egiala, Parisetik iges egiteko.

Mirabeauk be aolkatu ebazan erregeak Parisetik iges egin egien, bien bitartez gudalozte bat antolatuta egoan, Laterriaren Batzar Nagusia ezereztu ta barri bat aukeratu erregearen aldekoa izan zediñ.

XVIn Luis ez zan ados egon lenengoetan eritzi orreikaz, ariñ aldatu zan baietza emoten baiña, Laterriaren Araudi barriaren edo eleiztar gizarteko konstituziozko lege barriaren agiriak sinatuazo eutsozenean, "Aukera orreitan bera, Metz´eko(2) errege izatea geiago gura ebala, Frantziko erregea izan baiño".

1.791eko urtean Jorraillaren 2an Mirabeau il zanean, erregeai ugaritu egin jakiezan euki ebazan arazoak.

Eta XVIn Luisek berarekin siñesmen asko euki ez arren, uste eban bakarra zala Laterriko Batzar Nagusietan erregetzaren goraberagaitik berba egiteko.

1.791eko urtean Jorraillaren 18ko Bazko egunean, erritarrak bidera urtenda, ez eutsoen itzi erregeari aurrera joaten, Saint-Kloudeko eleizara mezea entzuteko, XVIn Luisek asarratuz esanda: "Arrigarrizko gauza da, nik erriari askatasuna emon ondoren, askatasun berori niri debekatzea", eta erregiña ta ume biak zalburditik lurreratuta, Tulleriarantza joan ziran, erritarren barre, oiu, eraso, arrabots edo ta ukaldi bitartez.

Pariseko Erri-Batzarraren aurkakoa zan(3) Madame Roland(4) Jirondino baten emazteak idatzi eban: Erregea, itsustasun edo zatartasunezko azken zapaldaraiño eldu da; Bere inguruan dagozenagaitik agirian itxita, ez dau bururatzen ez-ikusia edo narda baiño besterik; Jenteak, Luis guzurtia esaten dautso, edo txarri lodia; Norberak ezin dau irudizkatu, alango gizon nazkagarri edo gorrotogarriaurik, Frantziko erregetzaren aulkian.

Eta Marat, len Parisen "Publizizte Parisien"eko aldizkariaren izena aldatuz irasi eban L´Ami du Peuple matxintasunaren aldeko aldizkarian, Luis Kapetoagatik: "Errixumeko gorputza baten azal-guzurrekoa lez irudimenduz, bonbil(5) bategaz alaitzen zan gizona zala" esaten ebana.

1.791ko urtean Bagillaren 2lean, erregea bere sendi osoagaz Austriako Beko Errietara iges egin eban, eta mugara eltzeko kilometro gitxi geratzen ziranean, Barennes´en Argonneko(6) mugara elduten egon zirala, bideetan zaiñ egon ziranak ezagutu ebazan, eta bertan atxilotuta, Parisera itzuli ebazan.

---

(1) Sueziako Fersen kondea, Frantziaren serbitzura egon zan militarra edo gudal nagusia eta 1.791eko urtean Frantziako erregearen iges aldia antolatuta,Barennesen porrot aundi baten amaitu zana. = el konde Fersen, Hans Axel de Suecia. 1.755ko urtean Estokolmon jaioa, eta 1.810eko urtean Estokolmon il. (2) Metz = Frantziko Ipar-Ekialdeko lurraldeetan, Moselako lurraldearen Uri nagusia dana, Mosela ibaiaren ondoan. (3) Comuna o junta del concejo de los jacobinos en Paris = Pariseko udalerri edo demagogu, erri-nasle edo odoltsuaren aurkakoak ziran Girondino edo Jirondinoaren andra batek esaten ebana. (4) Madame Roland = XVIn Luisen ministru Roland de la Platiére´tar Jean Marie´n emaztea. Jean Marie ministrua 1.734ko urtean Villefranchen jaioa eta 1.793ko urtean Ruan´en ildakoa. 1.792ko urtean Girondino edo Jirondino aldian XVIn Luis babestu ebena eta 1.793ko urtean Ruan´era iges eginda, bere burua il ebena jakin eban orduan, bere emaztea lepoa mozteko gailluan il ebala. (5) Bonbil = botella de lo que fuere. (6) Varennes-en-Argonne = Frantziaren Mosako lurraldean dago, Aire ibai ondoan.

Parisera ostera joateko itzuli ori, gogorra ei zan erregearen sendiarentzat, Epernay´n[1] gizon batek erregeari txistua bota eta beste batzuk erregea il gura ebelako.

Ortik aurrera uste zan, bere erriari saldukeria eginda, erritik iges egin gura eban erregeak, ez zala bearrezkoa Laterrientzat[2].

XVIn Luisek idatzi eban erantzunean baiña, argi itxi eban zergaitik egin eben iges, eta luzetasunezko salaketaren ekintza orreitan, iraultza bera salatuz, erregeak azpian ondo marratuta, berari Batzar Nagusiak gura eban eran ertsitu edo mugatu eutsoela gauza orreik alan egiten, esan eutsen.

Urte bat geiago bizi ziran Tullerietan erregeak, atxilotuta.

Eta 1.791eko urtean Iraillaren 14an, XVIn Luisek Batzar Nagusiari bildur, Frantziko Konstituzioa sinatu eta on artu eban.

1.792ko urtearen Bagillan, batzarkide batzuk bultzatuta, Austriari guda aurkeztu eutson XVIn Luisek. Urte ta ille onetan baiña, beren ezetza edo eragoz-pideko eskubidea erabiliz, debekatu eban Konstituzio barri onartu ez eben apaiz-lekaideak atzerriratzea, baita eurak eroateko bear ziran gudarien antolaketak.

1.792ko urtean Ekaiñaren 20an erritarrak izkillotuta, Tulieriaseko jauregia[3] erasotu eben leenengoz.

Eta aukera orreitan bere lagunak edo ta etsai aldetik, Luisen agerpena pairubageko otz itxuran ikusten ebala esaten eban, ikaratu be ez zalako egin, Legendre abere iltzailleak aurpegira astoarenak esan eutsoenean: "Jauna, arlote ta alper-aundi bat zara, geiago arduratu bear zara entzuten. Beti guzurtu dausku eta beti egingo dausku be. Jendea, sabela beteta dauka ainbeste guzurrakin eta gogaituta dago".

Eta au esaten egon zan bitartean, beartu eban erregea balkoira urten egien, eta erregeak, abere iltzaillen agindua bete ondoren, onartu eban agindu eutsoen frijioen kapela ipintea[4] ta erriaren omenez ardoa edatea.

Frantziko Batzar Nagusiak 25 ordezkari artu ebazan Pariseko alkate Petionegaz batera, jendarte ori limurtuz, bakoitza bere etxera joan zediñ bakez.

Eta Bagillaren 20ko eginkizun oneik, ez eben aurreratu baiño besterik egin, Dagonillaren l0ean sortuko ziranakaz.

Ebertistak[5] bideratzen eben taldea Parisen udaleko erri-batzarra kendu eban, askoren matxin-zaleko batzar bat ipini ta entzute-bagean egoan Laterriko Batzar Nagusiari zirikituz, erregea bere aulki edo ezar lekutik kentzeko.

Egun onetan, eraso aundiena artu eban erregea bere sendiagaz atxilotuta egoan jauretxeak, erregea bere lekutik kentzea gaiztetsi edo erabagi ebena.

1.792ko urtean Dagonillaren 10eko egunean, Tulleriaseko jauretxearen aurka egin zan eraso aundiena sortu zan, erregeen kentzea beartu ebena, Suizazo gudari guztiak, eta kanporatuta egon arren erregeak babesten egon ziran andiki ta zerbitzari naikoak il ondoren.

Senako Lurraldearen ordezkoa zan Pierre-Louis Roederer´en eskari bidez, XVIn Luis eta bere ondorengo semeak, lortu eben Batzar Nagusiaren legorpea, txaloketa aundi baten bidez, onartu ebazanak.

(1) Epernay = Frantziaren Marmeko lurraldekoa eta Txanpajneko ardotegiaren Uri nagusia dana, Epernay ko ibaiaren ezker aldean dagoena. (2) Erritik iges egin gura eban erregeak, ez zala bearrezkoa Laterrientzat = que no es necesario para el estado-nación, un rey que huye de su pais. (3) Tulieriaseko Jauregia = 1.564ko urtean Mediziseko Katalinak eraikiko Jauretxea Sena ibai eskuma aldean eta Loubre onodoan, Tulieriaseko izena ipinita, tellaren lantegi baten gaiñean jaso edo eraiki zalako. (4) Frigio'n kapela = Frijioak askatasunezko esangurean artuta, ipinten eban Txapel gorria. (5) Hébertistas = Jacques Rene Hérbert frantzez matxinzaleen aldekoak, oso gogorrak izan zirenak Pariseko erritar-batzarraren denboran (comuna de Paris), 1.792ko urtean Abenduaren 2´tik, 1.794ko urtean Epaillaren 4ko egunerarte iraun ebena.

Gabeko ordubietan baiña, Batzar Nagusi berori Frantziko Aberri babes, egokitasunezko ongunde baten biurtuta egoan, eta erregeak atxilotzeko erabagia artu eban.

Erregeari galazo egin eutsoen aurkez egotea, beiñ-beingo edo bitarteko egin zan matxin zaleen bakarrezko jaurkintza bat osotu ebenean.

1.792ko urtean Dagonillaren 13ko arratsaldean, frantzezaren erregea ofízialki edo agintari-danez baitu ta atxilotu eben espetxe lez apaindu eben Tepeldarren dorrean.

## 1. 92. *Oar txiki bat emen.*

-Kontuan artu bear dan gauza da:

-Leen erregeen epaille edo artekaritzatik, erregeak sekula ez ebela lortu alosokeriaren orokortasunetik, Laterriaren Batzar Nagusitasunerańo, ainbat gizaldi igarota.

-Laterriaren Batzar Nagusitik, Konstituzioara urte bi.

-Konstituziotik, Tulleriaseko Jauretxea erasotzera illebaterdi.

-Tulleriaseko Jauretxea gogorrez artzetik erregeak atxilotzera, iru egun.

-Eta erregen buruak moztuteko, aste batzuk baiño ez.

Konturatu gindezan, edesti guzti orretan frantzez deitzen jakozan lurraldearen erri-ezberdiñeko gizarteen eskubideak berantza joan ba ziran, ezin ebala euren idazburu euken: "Askatasuna, Lege, ta Senitasunaren" bidetik egin, euren zentzua iñondik iñora ez dalako ikusten.

-Leen, askatasunezkoak garela ulertzeko, bakotzaren ordezkaritzazko arloetan sartu bear garelako, bakotzaren aita-amarengandik asita.

-Legeen edo arau bidetik egin bear doguzela gauzak, gure artean ondo konpontzeko.

Lege orreik baiña, giza bidez, edo ta Ludi oneri Jaungoikuak bereztu eutsozan lege bidetik ?.

Gizona, alderdibagekoa izan bear dau orretarako.

Eta ori Goiko Jaungoikuari begira egiten da bakarrik, ez gaurko lez Erromatar Merkantil Katolikosunean aberri lez batzangotuz eta Islam´eko urrezko Tzekorraren gurtze bidetik.

-Eta senidatasun bidez.

Arlo orreik baiña, ordezkaritzaren arloak dira, bakotza bere senidetasuna daukalako.

**Edestiaren aria ostera artuta.**

Tepeldarren espetxean, banandu egin ebazan erregeak euki ebazan laguntzaillegandik, Lanballe errege-alabea artean zala.

Lanballe´tar(1) errege-alaba au, Iraillako ilketetan il eben.

Ondorengo semeen sebitzaria bakarrik itxi eutsoen eurei azkenerarte laguntzeko.

Eta erregeen azpiko eskutitzarik urten ez zediñ, neurri batzuk artu ebezan.

Ata guzti Kleri´k, errege-erregiñaren ille-orrazleak eurengana joaten zala, lortu eban berri batzuk eurei emotea.

Geroagoko arratsaldeetan, erregeen lagunak aldizkarien saltzaille bateri eskatuz, onek deadarka esaten ebazan aldizkarien albisteak tenpeldarren dorre azpitik, eta olan jakiten eben erregeak zer sortzen zan.

Espetxeratuta egon ziran bitartean, Luis erregea bere semearen irakazle lez ibili zan, tenpeldarren dorrean egon ziran Maltako Zaldunen milla ta bosteuneko liburuekin.

Liburu bat irakurten eban egunero Luisek, Boltaire ta Rousseau´rengana eltzen zanean baiña, Frantziaren ondamena izango zala euren baldintzak edo ipotesi´kaz esanda.

(1) Lanbaballe errege-alaba = Lanballe, Maria Thérése de Savoir-Cariguan, princesa de, deituten zan. 1.749ko urtean Turiñen jaioa eta 1,792ko urtearen Iraillan Parisen ildakoa. Maria Antonietaren lagun aundia izan zan, eta Iraillan il ebenean, bere moztutako burua pika edo zikai baten sartuta, Maria Antonieta erregiña atxilotuta egoan lekura eroan eutsoen erakustera.

1.792ko urtean Iraillaren 2lean, kanpo aldeko zurru-murruen artetik, oiu edo deedar aundi bat entzun eben erregeak, au esaten ebena: orduko agintariak zelan ezereztu eben erregetzazko agintaritza, Errepublikako jaurkintzaren ordez.

Albizte ori erregeak entzun ebanean, aurrera egin eban bere irakurteko denbora-pasa orregaz, erregiña alderantziz ogeratuta bere zorigaitzezko egoeragaz.

## 1.93. *XVIn Luisen epaiketazko bidea, eta iltzea.*

1.792ko urtean Azillaren 6an, erregearen eskubide edo yareitasuna, indargabetu edo ezereztu eben, eta erregea Laterriaren agintezko batzarpean ipini eben, auzibide orreik aurrera eroateko.

1.792ko urtean Azillaren 19an, erregearen burdiñezko alasa edo armairua aurkitu eben, bertan Euopako beste erregeakaz ostonduta euki ebazan eskutitzakaz. Au ikusita, Robespierre edo ta Saint-Just´ek, epaiketa barik zigortu gura eban Luis erregea, ongundearen geienak baiña ezereztu eben, betiko auzi-bidetik egiteko, Europako agintariak ikusi egien, frantzezak lege bidez egin ebezala gauza orreik.

1.792ko urtean Abenduaren 10ean, Luis banandu eben bere senditasunetik, eta bera bien bitartez, lege-gizonak batu gura ebazan, gitzik baiño ez ebena onartu, Malesherbes XVIn Luisen ministrua, epaille izeneko Francois Denis Trontxet, ta Raymond de Séze girondinoa, bildurra euki eutsoenai bere lege-gizonezko almenagaitik.

XVIn Luis bere lege-gizonakaz berba egiten egon zanean, bereala konturatu zan, berak aukera gitxi eukazala, arazo ortatik aske urteteko.

Eta 1.792ko urtean Abenduaren 25ean, politikan garrantzi aundikoak diran, bere azken naiak idatzi ebazan.

Epaiketa orretan, ongundearen(1) ordezkariak bananduta egon ziran euren artean, zentzu geien euki ebezanen artean, Luis epaitu gure ebalako, baiño ez il.

Egun batzuetan iraun ebazan epaiketa orren eztabaidakaz, askenean baiña, ilketaren zigorra agertu zan, alde 362ko autarki, aurka 288ko autarki eta 72 utzierazko autarkiakin.

1.793ko urtean Urtarrillaren 19ko egunean, goizeko ordu biak zirala irakurri zan epaiketaren, ilteko zigorrezko erabagi au.

1.793ko urtean Urtarrillaren 2lean eta goizeko amaiketan Iraultzako Enparantza edo Zabalgunean egingo zana. Gaur, Adizkidetasunezko Enparantza edo Zabalgunea dana.

XVIn Luisek, miñik-eza edo egonarriz entzun ebazan epaiketazko il-agiri orreik, eta bakarrik arrituko zan, erregeen aurkako autarkia emon ebenean, bere lengusu Philippe Egalité´k (Felipe Igualdad), ilteko baietza emon ebala entzun ebanean.

Edgewrth de Firmont, konstituzioa ez eben siñatu apaizak eroan eban urka-toki edo lepoa moztuteko antolatuta egon zan tresnerira. Erregeak berari emonda bere azken naiaren bir-idazki bat, Luisek ez ebalako usten, Laterrizko Ongunde edo Konbenzioari emoneko agiria, irakurriko zala.

1.793ko urtean Urtarrillaren 21eko goizean artu eben Jauna XVIn Luisek, eta goizeko amarrak eta laurenetan eldu zan Iraultzaren Enparantzara. Amarrak ta ogeita iru minitu gitzi gora beran, moztu eutsoen lepoa.

1.793ko urtean Urrillaren 16an lepoa moztu eutsoen Maria Antonieta XVIn Luisen emazteari.

1.794ko urtean Loraillaren 10ean, XVIn Luisen arreba Isabeleri.

Eta 1.795eko urtean Bagillaren 8an misterios bete edo izkutuki, XVIIn Luis il zan.

(1) Ongundea = convención francesa.

Maria Teresa bakarrik bizi zan, bere izeko Isabeleri burua moztu eutsonean, bere etxean urte bateko epean iñora urten barik egonda ondoren.

1.795eko urtean Abenduaren 26garreneko egunean ta guda amaieraren baitura lez askatu ebena, eta Austriara atzerriratuz, Angulemako dukea Luis Antoniorekin ezkondu zan.

XVIn Luisen gorpua Majdalenako illerrira eroan eben, arik eta bere anai XVIIIn Luisek bere 1.815-1.824ko urte bitarteko errege denboran, gorpua atara egon zan lekutik eta bere emazte María Antonieta Saint Deniseko eleizan, illobiratuta egon zan lekura eroan arte, biak berunezko il-kutxatan sartuz.

XVIn Luisen ilketa onen ostean, Europako errege guztientzat, bere anai XVIIn Luis izan zan Frantziko errege. Europako errege guztiak asarratu ziran ilketa onen gaitik, eta VIn Aita Santu Pio´k, Luiseri bere *Quare Lacrymae* goresgarriagaz, lenengoz alegindu zan XVIn Luis Doatsutzeko, edo Aldareetara igoteko.

## 1. 94. *XVIn Luisek euki zituzen alaba-semeak.*

XVIn Luis eta bere emazte Maria Antonietak, lau alaba seme oneik euki zituzen:

-Frantziko Maria Teresa Karlota Royaleko Madana, 1.778ko urtetik 1.851ko urteraiño bizi zana. 1.778ko urtean Abenduaren 19tik, 1.851ko Urrillaren 19raiño Frantziako Luis Antoniokin, Angulemako dukesa izan zana, eta errege zaleentzat 1.830eko urtean, ezkontza onen bidez *Nafarroa eta Frantziko erregiña.*

-Frantziako Luis Jose, 1.781eko urtetik 1.789ko urteraiño bizi zana. Frantziko erregeen ondorengoa eta 1.781eko urtean Urrillaren 22ko egunetik 1.789ko urtean Bagillaren 4raiño Bretañako dukea.

-Frantziko XVIIn Luis, 1.785eko urtetik 1.795eko urteraiño bizi zana. Eta 1.785eko urtean Epaillaren 27ko egunetik 1.789ko urtean Bagillaren 8raiño Normandiako dukea. Errepublikaren aurkakoak, errege lez gura eben, baiña sekula ez eben erregezko jaurririk egiñ.

-Eta Frantziko Maria Sofia, 1.786ko urtean Uztaillaren 9tik, 1.787ko urtean Ekaiñaren 19raiño bizi zana.

## 1. 95. *Atal onen Ondorioa. Sarrera.*

Leen, Nafarroako IIn eta Frantziko XIIIn Luisetik, XVIn Luis il eben arte ikusten dogu.

Bigarren, etenbageko borroka aundi baten bitartez sortzen dala edesti ori, Jaungoikuak izadi au bereztasundatuz irasita, ipini eutsoezan legearen aurka etorri garalako beti, arik eta norkeri aundiz 325eko urtean mundu oso au katolikotasunean aberrituta batzangotzeko sortu eben maixukeriz edo ziñezkintzatutako eritzia, indarkeriz ezartzeko asi ziranetik.

Ortik aurrera, sekula ez dabelako erriak jaurkitzeko asmorik euki, danori mekanikerizko tresneri bezela erabili euskuelako, bildur eta indarrezko zigor bidez.

Goiko Jaunaren Legeak or dagoz beti zain baiña, guk norkerizko araudi okerrak sortzen doguzenerako, gure norkerizko lege oneik epe laburrezko guzurrean, lokaztu egiten diralako geiago eziñarte, guzurra, guzurragaz bakarrik elikatu leikelako, eta askatasunezko arnas barriak artzeko, bide barriak aurkitzen alagindu bear gara. Betiko eten onetan baiña, norkeriaren guzurrezko lege baldintzatik urten ezinik, oiñarrizko okerrak ez doguzelako zuzentzen, ta orregaitik pitin pitinean samaraiño lokaztuta agertzen gara. Begitu zenbat bearrezko etenak egin bear izan doguzan Ludi edo Europako edesti onetan, Goiko Jaunak ipini euskuzan berezko legeetara bideratu gindezan, eta beti artu doguz Erromatar Merkantil Katolikotasunaren urrezko zekorra gurtzeko bideak.

Orregaitik, Euskaldunen artean beintzat, beti zaindu doguz, Goiko Jaunaren Lege bidetik lortutako askatasunezko demokraziaren baitak.

Norkeriz ezarri ziranak baiña, jaramon egin barik, or baztertu edo pikutara bota ebezan errigizartearen eskubideak, erregearen artekaritzak eta bizitzeko bear doguzan izan-gaitasunezko demokraziaren zentzu on guztiak, erregearen al-osokerira ta katolikotasunezko batzangotasunera bideratzeko.

Emen gagoz euskaldunak, gure arbasoak lortu eben demokrazizko baitari eutsiten, demokrazi ortan ikusten dogulako Jaungoikuaren Lege Bidea, eta konturaten garelako bide orreri eusteko jaio giñela, Goiko Jaunarengan ziñesten dogulako.

Europa osoaren errigizartea dago norkerien legez ezeren ardura barik, 325eko urtean Nizeako eleiz batzarrean ziñezkintzatutako legeakaz, arduraren zentzutik atara euskuelako, sortu ebazan sasi-legezko-agindu orreikaz, euren agindutara bizi gaitezen.

Ez ote da ordua konturatuteko, bereztasunaren borroka orretatik urten egin bear dogula, Europa ta Mundu onetako errigizarte guztia, Jaungoikuak bakotzari emoten dauskuzan ordekaritzazko ardureak, askatasunezko demokraziz bete dagiguzan ?.

## 1. 96. *VIIIn Atalaren egitaraua.*

Europako edesti onetan, Euskalerriaren edestia ikusten dogu, garrantzienetarikoa dala, bere ainbat milla urte ondoren askatasunezko demokrazian baituz, bera izan eta dalako, katoliko menperatzailleak daukien etsai aundiena. Bakarra esango neuke nik.

Orregaitik egiaren kontu aundiagaz atondu bear dogu, Euskalerriari emendik aurrera sortuko jakozenakaz, Europari sortu jakozan bidetik.

Gure asierako edestian Atlant-Itsasotik Alemeniaren erdiraño, ta Eskoziatik Kadizeraiño zabaldu gintzazanetik, edesti zear, Jaungoikoaren sinismeneko demokraziaren baitan bardiñ egon arren, murriztu euskuelako gaur Auñamendiko alde bietan daukaguzan lurretaraiño.

Eta Euskalerri lez aienatu gindezan, emendik aurrera dalako, guri emongo dauskuezan aizkorakada gogorrenak, euren kaisertzazko ametsak goraldu zediñ, edestiko arlo oneik begituko doguz.

-Sarrera.

-Aurkezpena

-Leen, eta gure Itsas-mugak Vn Felipetik aurrera gora ta bera ibili ziralako, Kondañok egiztatzeko idatzi eban *Foru Baimena*(1) aurkeztuko dautsuet, luzea izan arren, euskalerriaren askatasunezko demokraziaren lege ta oiturak leen aurkeztuta.

-Frantziko Iraultzaren oroimen labur bat, Frantziko Ongundean(2) sartzeko.

-Baztan eta Frantziko Ongundearen guda.

-Frantziko Leenengo Errepublikea.

-Napoleón.

-Espainiako IVn Karlos.

-Bonapartetar Jose Espainiako errege.

-VIIn Fernando.

-Kadizeko Gorteak.

-Gure Bizkaiko Jauntzaren azkeneko Jauna.

-Karlistadetan sartu arte.

**Atutxa´tar Paul**

***Zornotzan 2.017ko urtean Jorraillaren 11n.***

---

(1) Euskaldunak irasi eben Foru Baimena = Pase Foral. (2) Frantziko Ongundea = Convención Francesa.

Euskerazaintza

Euskeraren Erri Akademia
Academia Popular de la Lengua Vasca
L´Academie Populaire de la Langue Basque

e-mail: aeuskerazaintza@gmail.com
www.euskerazaintza.org